

Bernard Larregi

**ZENBEIT SAINDUEN
BIZITZEA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Testamen Çaharreco eta Berrico Historia* (Bigarren liburua). Bernard Larreguy. Fauver-Duharte, 1777.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00720.htm>

Andre-dena Maria zerurat altxatua

Andre-dena Maria egon zen munduan hogoi eta hirur urthe eta zenbait ilhabete Salbatzaillea zerurat igan zen ondoan, eta izpiritu saindua lurrerat yautsiz geroz. Zenbat ere ama dibinoak nahiko baitzuen behinere ez galdu begietarik bere seme maitea, ekharria zen halarik ere, oraino lurrean gelditzerat eliza sainduaren fagortzeko eta giriztinoen kontsolatzeko bere atseka-betan. Hark behar zuen bethe, nolazpait ere, behere huntan Salbatzaillearen presenziaren eskas handia. Mariak zerutik yauts-arazten zituen graziek bortitzki laguntzen zituzten arima Jainkotiarrek abiatzen ziren persekuzionetan. Deusek ere etzuen hala sutengatzen hekin fedea nola yakiteak Maria oraino bere artean zutela. Hura zen hekin kontseillua, hekin ihes-lekhua, hekin guzia. Hark finkatzen zuen heien berthutia, eta sustatzen kharra. Apostoluek berek ikhas zezaketen Mariaren eskola zuhurrean. Elizako aiteen arabera, San Luk-ek Mariaganik

yakin izan zuen xeheki Jesusek nola iragan zuen bere haurtasuneko denbora: errana da ebanyelioan Mariak etzuela utzten galtzerat ikhusten eta entzuten zuenetarik, eta bihotzean zaduzkalla Salbatzaillearen hitz guziak.

Birjina sainduak iragan zituen hogoi urthe eta zenbeit ilhabeteak Jainko adoragarriaren alderako amudiorik khartsuenean, eta berthutezko itsaso batean bezala. Lurraren gainean zen gorp-hutzez; ordean zeruan, bere seme adoragarriaren aldean, bihotzez. Bazuen hamabi urthe Yerusalemen bizi zela apostoluak eta dizipuluak athera behar izan zirenean hiri hartarik yuduen persekuzioneari ihes egitekotzat. Mariak bozkariorekin ikhusten zuen errelijionea hedatzen zela guzietarat; ordean elizaren asaldurek zaurhtzen zuten haren bihotza. Egon zen aphur bat Efeseko hirian: baratu zenean persekuzioea, bihurtu zen Yerusalemerat, eta etzen gehiago handik aldaratu.

Apostoluek hedatu zutenean fedearen argia hurren guzietarat, eta finkatu izan zenean eliza saindua, Mariak utzi behar izan zuen mundu hau: errexki eman zen hartan; ezen behatzen zion

mundu huni desterruko lur bati bezala. Bere seme maitez lehen-bai-lehen gozatzeko hirritsak zaraman haren bihotz guzia. Gabriel aingeruak egin zuen yakintsun noiz izanen zen bada egun eta oren zorionezko hura. Etzen izan Maria baitan ez sortzean, ez bizian bekhatuaren narraiorik; iduri zuen beraz etzela hiltzekoa; ordean bazakien Salbatzaillea ere hil izan zela, eta damu izanen zuen ez hari yarraikitzeaz. Zer bihotz min! ordean hala-hala, zer bozkarioa apostolu eta girizrino guzientzat yakin zutenean Jesusen ama heienganik hastantzerat zohala heltzekotzat bere seme adoragarriarengana! Berri handi hark yo zituen herri guziak. Mundua bildu zen, osteka, alde guzietarik hartzerat Mariaren azken benedikzioea. Ala mirakuillu handia ikhusi izan baitzen ordu hartan! Asko lekhutarat hedatuak ziren apostoluak eramanak izan ziren hedoi batean Maria saildua zen etxerat hari bere azken ohoreak bihurtzeko.

Birjina saildua hil zenean, guziak eman ziten, ahuspez, haren oinetan, nigarra zariotela. Yerulalemeko eta inguru hetako giriztinoek, ohoratu zuren lehiarekin haren gorphutz errespeta garria.

Eriek aski zuten harenganat hurbiltzea sendatze-
kotzat. Yuduak berak partalier izan ziren Mariak,
hil ondoan, obratu zituen mirakuillutan. Aposto-
luek altxatu, eta eraman zuten Mariaren gorphu-
tza Yerusalemetik hirur ehun urhatsetarat. Giriz-
tino guziak yarraiki zitzaizkon ahukuari xirio biz-
tuak eskutan: yuduak ere eman ziren giriztinoen
baltsan hobirainokoan.

Ala Mariaren bizia osoki bai da ederra. Sorthu
zen bekhatuaren kutsurik gabe; bethea izan zen
grazia hautetsienez, eta berregindua berthute
miragarrienez. Erran daiteke amudioak hil-arazi
zuela Maria, era ez gaitzak. Zer allegrantzia! zer
ohore Mariarentzat! Ehortzia izan zenetik hirur-
garren eguneko, haren gorphutz saildua ilkhi
zen hobitik; mundua etzen gai halako erleki pre-
ziatu baten izateko. Altxatu zen zeruetan gora,
eta Jesu-Kristo berak, harekin batean aingeru
araldek badaramate Jainkoaren tronua gaine-
rat.

Zeruan zare, beraz, o! Birjina saildua. Etzai-
tugu hargatik behinere galdu. Zure goratasun
eta loria guziaren erdian, orhoitzen zare bethi
gutaz. Hedatzen-tutzu yarria zaren tronu distian-

taren gainetik zure behatze arraiak gure gainerat. Zenbatenaz hurbillago baitzara grazia guzien ithurburu sakratutik, hanbatenaz gehiago seinalatzen duzu zure bothere handia gure fago-retan. Ematen gare fidantzia oso batekin, ahuspez, zure oinetan. Eskaintzen darozkitzugu gure errespektuak. Ofrendatzen darozkitzugu gure bihotzak. Ohoratzen zaitugu gure erregina bezala; othoitzten zaitugu miserikordiaren ama bezala; behatzen darozzugu gure ihes-lekhuari, gure esparantzari, gure kontsolamenduari bezala. Har gaitzatzu, o!, ama amultsua, zure ume maiteen baltsan. Perfekzione guzien bilduma saindua zarena, lagun gaitzatzu; egizu zure arartekotasunaz ardiets detzagun humiltasuna, garbitasuna eta salbatzekotzat behar ditugun berthute guziak.

Yaun-doni Mikael Arkanyelua

Elizak irakhatsten daroku Jainkoak kreatu zituela aingeruak mundua kreatu zuen ordu berean. Aingeruak izpiritu huts dire, eta ez dire gorphutzekin baltsatuak izateko eginak. Zerutik dituzten dohainen eredurakoa da heien perfekzioea. Jainkoak eman izan diote ungiaren eta gaitskiaren ezagutza, eta bataren edo bertzearen egiteko libertate osoa. Bere perfekzioeak lilluratu zituen hetarik hainitzak. Laudatu behar bidean bere ungi-egillea, eman zitzaizkon urgi-lluari. Etzuten nahi izan obeditu Jainkoa. Zer gerthatu zen? artikiak izan ziren ifernuko zolarat erretzerat eternitate guzian; ordean aingeru onak bethi humil eta leihal agertu ziren Jainkoaren alderat: hala-hala, bortitztuak izan ziren grazian. Zeruko izpiritu dohatsu hek bethi Jainkoaren aitzinean daude; ikhusten, adoratzten eta lorifikatzen dute bere kreatzaillea; ez dire behinere baratzen haren maitatzetik amodiorik khar-tsuenaz. Jainkoa hetaz baliatzen da hedatzeko-tzat bere manu sainduak kreaturetarat, eta

beregainki gizonetarat. Aingeruen bidez ezagutarazten du bere nahia edozein ordutan. Hek dire gure begirailleak, eliza guziaren, eta gutarik bat bederaren arartekoak eta laguntzailleak.

Dela testament berria, dela zaharra, biak mintzo dire zeruko izpiritu dohatsuez. Hirur aingeru agertu zitzaizkon gizonaren iduriaren azpian Abrahami erraterat izanen zuela seme bat, Rafael aingerua yarraiki zitzaion Tobia gazteari heltzekotzat Ragesenganat. Irakurtzen dugu oraino Gabriel aingeruak egin zuela Daniel yakintsun ethorkizunaz, eta Mesias mundurat ethorri behar zen mugaz. Aingeruek eman zaren artzainei Jesus sorthu zelako berri kontsolagarria. Aingeruek zerbitzatu zuten Salbatzaillea mortuan, eta bortitztu olibetako baratzean. Hitz batez errateko, Iskritura sainduak maiz aipatzen ditu zeruko izpiritu dohatsuak.

Bakharrik hirur aingeru dire zeineen izenak baidire ezagutuak; hek dire Mikael Arkanyelua, Gabriel eta Rafael. Yaun-doni Mikael da aingeru guzien buruzagia, eta gehienik ohoratu behar duguna. Daniel profeta mundura gabe gure Arkanyelua ezagutua zen etsaiaren gainean era-

man zuen garaitiaren arrazoinaz. Hil zenean Moise hanbat mirakuilluen egillea, faranek igurikitzen zuen idolatriarat emanak ziren yuduek adoraturen zutela profeta handi hura Jainko bezala. Sinhetste hartan, erakharri zuen populu hura tenplu eder bat egiterat Moisen ohoretan; ordean Yaun-doni Mikael agertu zen yuduen alde, eta gibelatu zituen idolatria hartarik.

Yaun-doni Yauni ebanyelistak, erraten daroku eman izan zela gudu handi bat zeruan Yaun-doni Mikaelen eta Luziferen artean; Luzifer eta haren lagun aingeru gaixtoak izan zirela garaituak, eta etzirela geroztik zeruan agertu. Mundu guzia gal- arazi nahiz dabilhari suge zaharra, zeina baida deabrua, artikia izan zen ifernurat bere aingeru, edo zerbitzariekin batean. Batzuen arabera, Yaun-doni Mikael zen Josueri agertu zitzaion aingerua haren laguntzerat kananeendarren zebatzten. Josuek erran zion harenganat zen aingeruari: nor zare zu? gure alde zara, ala gure etsai? Aingeruak ihardetsi zion: ni naiz Jainkoaren armadako printzea. Erran dezakegu egia guziarekin Yaun-doni Mikael elizaren laguntzaille izan dela egundainotik. Ez dugu ikhusten Gabriel eta

Rafael aingeruak agertu direla behinere mundur-
rat Salbatzaillea zerurat igan geroz; eta ikhusten
dugu Yaun-doni Mikael hainitz aldiz agertu dela
eliza eta giriztinoak laguntzerat. Atzarria dago
guzien gainean, eta bereziki Frantziaren gai-
nean. Haren arartekotasuna seinalatu izan da
gure erresuman; horra zergatik Louis hamekaga-
rrenak altxatu zuen, duela hirur ehun urtheen
ingurua, gerla gizonentzat ordena bat deithua
dena Yaun-doni Mikaelen ordena, zeinak errege
baidu buruzagitzat. Ordena hartako Jaunek
ekhartzen dute, egunoroz, lephoko urrezko bat
zeinari baidatxeiko gure arkanyeluaren zigillua,
edo errepresentazionea.

Yaun-doni Mikaelen alderako deboziona
beregainki berotu behar duena, eta gehienik
erakharri behar gaituena gure fidantzia haren
baitan ezartzerat, da yakitea hark daramatzala
arimak Jainkoaren yuiamendu ikharagarriat,
hartzerat behin bethiko sententzia; nolazpait
ere, haren eskutan artikitzen dugu azkeneko
hatsa. Zenbat arrazoin ez dugu beraz galdetzeko
eta prezatzeiko Yaun-doni Mikaeleri arartekota-
suna!

Yaun-doni Petriren bizia

Zerbait erran izan dugu Yaun-doni Petri apostoluaz; ez ordean aski. Badagoko hedadura gehiago saindu handi haren bizitzeari, Piarres apostoluen printze zen, Jesu-Kristoren elizaren buruzagi ageria, eta fedearen harroina, edo sustengua. Simon deitzen zen apostolutasunerat altxatua izan arteraino. Galileako zen sortzez, Bethsaida zaritzon hirikoa; Yonaz zuen aita; ethorki aphalekoa zen, ofizioz arrantzalea, ordean haren prestutasuna ezagutua zen. Ez dakigu xuxenki noiz ethorri zen mundurat; bainan iduri du zenbeit urthez Salbatzaillea baino zaharragoa zela. Ezkondu izan zen Kafarnaum; erran nahi da Tiberiadako itsas hegian zen porturik aipatuenean. Andres bere anaiarekin bizi zen. Andres hau Yaun-doni Yauni Baptistaren dizipulua zen. Egun batez ikhusi zuen Jesus maittea: ordukotzat entzun zuen bere nausia mintzatzan Jesusez, egiazko Mesias bezala. Eraman zion berehala berri handi hura Simon bere anaia-ri, erraten zioelarik: ediren dugu Mesias, mintza-

tu gaizko berari. Simon suharra zen berenez, Jesusen ikhusteko zuen hirritsak etzion ematen amorrik Andresenari; etzion utzi bakerik batere bere haurrideari eraman zezan arteraino Salbatzailleagana. Konplitu zuen biharamunean bere nahia. Jesusek ikhusi zueneko Simon, behatu zion arraitasun berezi batekin, eta erran zion: Simon, Yonasen semea, izen hau ekharri duzu orai arteraino; ordean hemendik harat deithuren zara Zefas, erran nahi da, Piarres. Bi anaiek Jesusekin iragan zuten egun hura guzia. Ordu beretik Piarres aurkhitzen zen dizipulu khartsuenetarik. Bihurtu zenean etxerat, Jainkoarengana zuen bere familia osoa. Arrantzan zaraman denborarik gehiena, halarik ere, hartzen zituen arteak maiz ikhustekotzat Salbatzaillea. Uzte izateko da harekin gerthatu zela Kanaako esteietan, eta lekhuko izan zela bere nausi dibinoaren lehenbiziko mirakuilluez.

Jesu-Kristok, Yerusalemetik heldu zela, bathu zuen itsas hegian Piarres sareen garbitzen hari zela Andres bere anaiarekin. Piarres, etzen oraino deuserrez gabetu; Salbatzaillea eman zen hura zen barkhuan; erran zion eraman zezala ur

gehiago zen lekhurat, eta arrantza on bat eginen zutela. Piarresek ihardetsi zion: nausia, nekhean iragan dugu gau guzia deusere hartu gabe; ordean horrela nahi duzunaz geroz, berriz ere etxatzen-tut ene sareak urerat. Egin izan zen ordu hartan arrantza handi bat: gure saildua espantitu zen, eta artiki zuen bere burua Salbatzaillearen oinetarat, zioelarik: Jauna, ez naiz gai agertzeko zure aitzinerat, ezen bekhatore bat naiz. Jesusek altxarazi zuen lurretik, erraten zioela: izan ezazu fidantzia, eta yarraik zakizkit, eragin nahi darotzut arrantza hobe bat, hartuko-tutzu gizonak. Jaunaren hitzeen graziak eta gantzudurak erakharri zuten gure saildua utzterat berehala zituen guziak; izan zuen bere emaztearen laudamendua yarraikitzeo Salbatzailleari gainerako guziak largaturik. Emazte hura zen Jesu-Kristoren zerbitzari leihal bat, martirioa pairatzeko zoriona izan zuena.

Piarresek erraten zuen ordu guzietan erakutsterat Jesu-Kristori ekhartzen zion amudio khartsua. Tiberiadako itsasoaren bertze alderat zohala bere dizipulu lagunekin, Jesus ibilhi zen uraren gainean, leihorrean izan balitz bezala,

heltzekotzat heiangana. Piarresek nahi zuen lehen bai lehen artiki bere burua Jesusen oinetarat, abiatu zen oihuz erraten: mana zazu, Jauna, ibil nadin ni ere uraren gainean heltzeko zureganana iguriki gabe zu gureganat ethor zaitezten artetraino. Salbatzaillea erori zen haren nahirat; ihardetsi zion: zato. Piarres lehiatu zen obeditzerat; ordean etzen hain laster eman uraren gainean non altxatu baitzen xirimola bat ondorat zaramana. Gure saindua yarri zen ikharan, eta oihu egin zion Jesusi: Jauna, othoi, begira nazazu. Salbatzailleak hartu zuen eskutik, eta ihardetsi zion: fede gutitako gizona, zergatik eman zara dudan?

Handik harat finkatuz eta emendatuz zohan gure apostoluaren fedea. Jesu-Kristok explikatuzioten bere dizipuluei, eta hitz garbienez Eukaristiako misterioa; guziarekin gerthatu ziren, heien artean, zenbeit bakhar herabe zirenak ematerat sinhetste oso bat haren erran sandutan, urrundu ere zirenak harenganik. Salbartailleak hori ikhusi zuenean, galdegin zaroen apostolutzar hautatu zituen hamabiei, hea ekharriak ziren hek ere haren utzterat. Piarresek ihardetsi zion: zu utzterat geroz, norat egin behar ginduke

bide? Zure hitzak berak gai dire gu bizitze eternalerat hel-arazteko. Sinhetste itsu batean bizi gara zu zarela Mesias igurikia.

Piarresen fede bizia etzen baxharrik aldi hartan seinalatu. Jesusek galdegin zioten bere dizipuluei zer zioten bada hartaz Yudeako herritan, eta norentzat hartzen zuten. Apostoluek ihardetsi zuten, batzuen uztez, Joanes Baptista zela, bertze batzuen arabera, Elias zelas, edo Yere-mias, edo ezperen profetetatik bat zela. Eta zuek (erran zioten) nor zaitzue naizela? Piarresek ihardetsi zuen bere khar handiarekin: zu zare Kristo, Jainko biziaren semea. Jesus itzuli zen haren alderat, eta erran zion: Simon, Yonasen semea, dohatsu zara zeren haragiak eta odolak ez darotzuten irakhatsi erranik heldu zaren egia. Ez dagoko gizonari izatea horren argitua: ene aita zeruetan denak irakhatsi darotzu nor naizen, eta nik irakhatsi nahi darotzut zer izan behar zaren orai beretik: zu zare Piarres, eta harri horren gainean ezarriren dut ene eliza: zu izanen zare (ene manuen azpian) haren asentua eta haren indarra. Ifernu guzia altxa bedi, nahi duen bezanbat, hari yazartzekotzat; heresiek, tiran barbaroek

eman biozote gudu. Gordoka dezakete non edo non; ordean ez dute nihoiz ere iharrosiren eliza guzia emanen darozkitzut zeruko erresumaren gakhoak: nori ere idekiren baidiotzatzu hango atheak, eta hek sarthuko dire erresuma dohatsu hartan eta ez dire harako han sartzeko gai etzaizkitzunak; ezen zeruko yustiziak zuk lurrean ekharriren duzun yuiamendu bera ekharriko du: zu izanen zara behere huntako ene bikarioa, on eginen dut zeruan zuk lurrean eginen duzunaz. Elizako aiteen arabera, Piarres ordu hartan izan zen ezarria Jesu-Kristoz apostoluen printzetzat, errelijionearen zimendutzat, eta elizaren buruzagi ageritzat.

Piarresen amudioa Jesu-Kristoren alderat emendatzen zen haren fedea bortitzten zenaren eredura. Nausi dibinoak erran zioten, egun batez, bere apostolu guziei bazohala laster Yerusalemerrat, yasanen zituela hiri hartan laidorik handienak, azkenaz goiti heriotzea bera. Gure sainduaren kharra seinalatu zen orduan ere, zio-elarik: Jainkoari nahi ez dakioela gertha dadin sekulan erranik heldu zarena. Eman bazintez eginbide hartan, baginakike zu hartarik gibela-

tzen. Solas hau gaitzitu zitzaion Salbatzailleari: mintzatu zitzaion Piarresi hitz garratz hautaz: urrun zaite eneganik horrela mintzatzekotan; satanen ofizioa egiten duzu hura ere gizonen erospena gibelatu nahiz dabilha. Guziarekin Jesusek ikhusten zuen garbia zela gure saindua- ren xedea hala mintzo zenean. Ez da egundaino gerthatu dizipulurik bere nausia Piarresek bezanbat maitatu duenik. Amodio khartsu hark berak erakharri zuen erraterat bertze guziek utz balezate ere Salbatzaillea, hartaz bezanbatean, etzela behinere hastanduren harenganik. Zerk oraino erakharri zuen Piarres ebakitzerat Malku- sen beharria soldaduak yabetu zirenean Jesusez olibetako baratzean? Zerk bada baizik haren alderat sustatua zen khar handiak?

Hartua izan zenean artzaina, barraiatu zen arthaldea. Piarres eta Joanes izan ziren bakhar- rak leihal agertu zirenak. Piarres yarraiki zitzaion Salbatzailleari Kaifasen etxeraino; ordean ezagutu zutenean haren dizipulutzat, aski flakoa gerthatu zen errateko etzuela Jesus ezagutzen oilharraren kankak orhoit-arazi zuen bere desleihaltasunaz. Ezin erran daite nolakoa

zen Piarresen orduko urrikia. Ilkhi zen handik marrasketan; iragan zituen hirur egun nigar gozonenetan atrebitu gabe nihon agertzerat. Ero-riko humiliagarri hark etzuen batere gutitu gure apostoluaren amudioa bere nausiaren alderat, ez eta nausiarena bere dizipuluaren alderat; ezen Salbatzaillea etzen hain laster biztu hillen artetik non agertu baitzitzaion, bekhoz bekho, gure sainduari.

Yaun-doni Petrik, elizaren buruzagi bezala, erran zioten apostoluei hartu behar zutela bertze lagun bat Yudas traidorearen orde. Izpiritu saindua yautsi zenean apostoluen gainerat, Yaundo-ni Petrik egin zion populu guziari prediku bat huntaraino sarkhorra non hirur milla presuna izan baitziren bathaiatuak ordu hartan berean. Tenpluan sartzen zela Yaun-doni Jaunirekin aurk-hitu zuen pobre bat athean etzana; pobre hark bazituen berrogoi urthe, eta ezin niholare balia zitekeien bere zangoez. Piarresen manatu zioen Jesu-Kristoren izenean altxatzeaz handik. Eri hura altxatu zen berehala bozkario guzietan, eta hedatu zuen mirakuillu haren berria hiri guzirat. Gauza espantagarri hark erakharri zuen mundu-

tze handi bat aposoluen ingurutarat; orduan ere Yaun-doni Petri mintzatu izan zen hanbat khar eta gantzudurekin non itzul-arazi baitzituen bortz milla arima Jainkoaganat.

Obra miragarri hek guziek haro sobera egiten zuten utzteko eliza orduraino aurkhitzen zen bakean eta deskantsuan. Yuduak yabetu ziren bi apostoluez. Galdegin zioten, noren izenean obra-tu zuten eri haren sendatzeko mirakuillua. Yaun-doni Petrik ihardetsi zuen beretzat, eta Yaun-doni Yauni bere lagunarentzat, egin zutela mira-kuillu hura hek hil-arazi zuten Mesias egiazkoaren izenean. Yuduek debekatu zituzten mintzatzaz gehiago Jesu-Kristoz, eta haren erreligio-neaz. Yaun-doni Petrik ihardetsi zuen han aurkhitzen ziren guziak harritu zituen fermutasunarekin hitz hautaz: ikhus ezazue zeuek yustu denez zuei obeditzea Jainkoari baino hobeki. Bada Jainkoak manatzen daroku predikatzeaz lekhu guzietan Jesu-Kristo biztu dela, hillen artetik.

Yaun-doni Petri geroago eta botheretsuago agertzen zen bere hitzetan eta obretan. Zuela bi egun deusere hurren etzakien arrantzale pobre hura mintzo zen legeko Doktorik yakintsuenak

baino hobeki. Haren hitzak hanbat sententzia miragarri ziren. Zenbat mirakuillu etzuen egiten! Hedatzen zituzten eriak bere lastaira eta ohetan hura iragan behar zen karrika eta bidetan, agian gure sailduaren itzala helduko zela heien gainerat; etzen behar gehiago sendatuak izatekotzat. Yudu bekaxtiak kondemnatu zuten Yaun-doni Petri izaterat azotatua; ordean haren atseginik handiena zen, paira ahal izatea Salbatzaillearen ohoretan.

Yaun-doni Petri, Samariako herritarik heldu zela, sarthu zen Lidako hirian. Han ikhusi zuen paralitiko bat ohatua zena zortzi urthe hetan. Enea zen haren izena. Hedatu zituen begiak haren gainerat, eta erran zion: Enea, Jesu-Kristo Jaunak sendatzen zaitu, yeiki zaite, eta egizu zure ohea. Enea yeiki zen berehala; hedatu zuen mirakuillu haren berria, eta erran nor zen haren egillea. Hiri guzia lehiatu zen bathaioa errezibitzerat. Zenbat ere urhats, eta haren bertze mirakuillu berri. Alhargun bat Tabitha deithzen zena hil izan zen Jopeko hirian. Gure saildua han aurkhitzen da emazte hura hiltzenetik bigarren egunean. Ematen zaio othoitzari gorphutz hilla-

ren aldean, eta han ziren guzien aitzinean manazten dio Tabithari, Jesu-Kristoren izenean, yeikitzeaz. Tabithak idekitzen ditu begiak, ilkhitzen da gathabutetik, eta erakhartzen du Jopeko populu guzia bathaioa errezibitzerat.

Giriztinoen kontrako persekuzioeak abiatu ziren Yerusalemen egundaino baino fulia gehiagoekin. Herode Agripak uzte izan zuen atsegin eginen ziotela yuduei hil-arazten balin bazuen Yaun-doni Petri apostoluen printzea. Altxarazi zuen preso, eta estekatu zuten gathe lodiz. Hil-arazi gogo zuen gizon saildu hura handik zenbeit egunen buruan; ordean Jainkoak entzun zituen eliza guziaren othoitzak, eta urmariarazi zuen Agriparen nahi kruela. Yaun-doni Petrik bizia galdu behar zuen bezperan, Jaunaren aingeruak iratzarri izan zuen bere presundegian; eta gure saildua estekatua zadukaten bi gatheak erori ziren bere baitarik; ideki ziren presondegiko atheak. Aingeru berak eraman zuen Yaun-doni Petri karrikaren bururaino, eta han suntsitu zen.

Gure saildua yoan zen giriztinoak othoitz egiterat bilduak ziren etxe baterat. Yo zuen

hango athea Rode zaritzon neskatxa bat hurbildu zen, emeki emeki, yakitekotzat nor othe zen athea yo zuena. Ezagutu zueneko gure apostoluaren boza, hunenbat bozkariatu zen, non athea idekitzerat egin behar bidean, lehiatu baitzen etxe hartan zirenei erraterat Yaun-doni Petri athean zela. Urrun da sinhetsia baitzen nahi bezanbat erranik ere ezagutu zuela boza. Azkenean, gure saildua sarthu zen etxe hartan. Zer allegrantzia bihotz guzietan, guziz yakin zutenean zer mirakuilluz libratu zen bere gathetarik eta presondegitik!

Yaun-doni Petri ibilhi zen Yudeako eta Asiako bazter gehienetan; sustatzen zituen guzietan khar saildu batez giriztinoen bihotzak. Ethorri zen Erromarat, eta egin zen hiri hartako aphezpiku. Iragan zuen bere denbora guzia Jesu-Kristoren ezagut-arazten eta maitarazten. Azkenean, kondemnatua izan zen heriotzerat erreligione sailduaren buruzagi bezala. Bertzeak bezala gurutzefikatzerat zaramaten; ordean ardietsi zuen bere burruetarik grazia ezarria izateko gurutzean buruz behera, zioelarik etzela gai gurutzefikatua izateko haren nausi dibinoa

izan zen molde berean. Gobernatu zuen Erroma-ko eliza hogoi eta laur urtez, eta zenbeit illabete gehiago. Haren gorputza izan zen ehortzia Batikango eliza ederrean. Jesu-Kristoren hobiaz landan, gure apostoluarena ahal da munduko lekhurik errespektagarriena eta ohoratuena.

Yaun-doni Pauloren konbersioea

Saul gerorat Pauloren izena ekharri zuena Tarsa hirikoa zen. Farisauetarik zuen aita; erran nahi da, berak aditzerat, yuduen artean bizitzetik gogorrena, eta legea zorrotzkienik begiratzen zutenetarik. Bere sor-lekhuan iragan zituen gatzetasuneko urtheak; izpiritu hainitz zuen, eta maite zuen istudioa. Burasoek egorri izan zuten Saul Yerusalemerat altxatua izatekotzat Gamaliel deithzen zen legeko doktor handi baten eskolan. Ikhasi zituen burasoen errelijioneari zaron-saten gauza guziak, bai eta yuduen kostuma eta zeremona guziak.

Saulek eman zuen ezagutzerat probetxatu zela bere istudioaz; egin zen, arte laburrez, legearen begiratzaille khartsuenerarik bat; etzen deusere erratekorik haren bizitzearen gainean: etzuen edozein bizio ahalkagarri: besarkatu zituen farisauen sentimendu berak: ezin onhets eta preza zezakeien bere arbasoen errelijioea, gaitzetsi eta kondemnatu gabe Jesu-Kristorena.

Hortik heldu zen agertzen baitzen giriztinoen etsai deklaratzat. Saul lehenbizikotarik zen Yaun-doni Esteberen heriotzea galdegin zuena. Atsegin handirekin ikhusi zuen gizon saindu hura yuduez harrikatua. Giriztinoei ekhartzen zioten sumindura heltzen zen fuliaraino: etzituen deusetan guphidetsten yazartzen zaroen alde guzietarik eta krueltasunik handienarekin. Sartzen zen giriztino zirela uzte zitueneen etxetan, altxarazten zituen preso, eta eman-arazten burdinetan. Galdegin zuen eta errexki ardietsi Kaifas aphez-handiaganik giriztino guzien bilhatzeko laudamendua heien tormentatzekotzat. Zeharazten eta azotarazten zituen ezin erranezko dorphetasunarekin bere sinhetstea Jesu-Kristo baitan zuten guziak. Zer etzuen egiten hek erakartzeko Jesusen izen saindua blasfematzerat! agintza, dixidu, tormenta, hitz batez, egiten zituen munduan egin ahal guziak kordokatzekotzat giriztinoen fedea, eta ostikaraztekotzat gure errelijione guziz errespetagarria.

Saulek giriztinoei ematen zioten persekuzio-nearen fama hedatu zen alde guzietarat. Ezagutua zen Jesu-Kristoren etsayik handienarentzat:

haren aiphamena bera aski zen ikharan yar-arazteko arima Jainkotiar guziak. Saulen errabia etzen mugarrizatzen bakharrik Yudean eta Galilean, urrunago zohan. Bazter guzietako giriztinoen odolaren egartsuan bizi zen; etzuen bertze gogorik baizen hek sarraskitan eman-araztekoa. Hartua zuen buruan suntsi-arazi behar zuela altxatu berria zen Jesu-Kristoren errelijione saindua. Ordean ederrets dezagun Jaunaren probidentzia miragarria. Saulek ikhusi izan zuen, eguerdi bethean, bereganat zerutik ethortzen argi handi bat iguzkiak baino gehiago distiatzen zuena, eta inguratu zituena bera, eta berekin zituenak. Guziak laztu eta erori ziren lurrerat. Saulek, lurrean zatzala, entzun izan zuen boz bat erran zioena, hebreuko erdaran; *Saul, Saul, zergatik persekutatzen nauzu? Dorphe da zuretzat burdinarekin ihardukitzea.* Saul oraino gehiago ikharatu zen hitz hauk entzun zituenean: abiatu zen erraten: Jauna, nor zara zu? Salbatzailleak ihardetsi zioen: ni naiz Jesus, zuk persekutatzen duzuna; orduan Saulek erran zuen ikhara handirekin: zer plazer duzu, Jauna, egin dezadan? Salbatzailleak altxarazi zuen lurretik, eta egorri

zuen gizon batengana yakiterat zer egin behar zuen. Berak ere eman ziotzan ezagutzerat yasan beharko zituen atsekabeak. Saulekin zirenak ere altxatu ziren lurretik, eta entzuten zuten boza bat; ordean etzuten nihor ikhusten. Saulek alferretan zabaltzen zituen begiak, etzuen deusere ikhusten. Eskutik eraman behar izan zuten Damasko hirirat, Judas deithzen zen baten etxerat. Egon zen lekhu hartan, hirur egunez, itsutua, yan eta edan gabe.

Ordu hartan aurkhitzen zen Damasko hirian Jesu-Kristoren dizipulu bat; Ananias zuen izena: gizon prestu bat zen, yuduek berek halakotzat zadukatena. Salbatzaillea agertu zitzaion Ananias hari, eta erran zion zohala hulako karrikat, bilha zezala Saul Tarsekoa, Yudasen etxean izanen zela, eta edirenen zuela othoitzean. Ananias laztu izan zen aditzeaz Saulen izena bera; ihardetsi zuen: o! Jauna, entzun dut askotarik gaitski hainitz egin izan diotela Yerusalemeko giriztinoei; orai ere esku guzia berekin du preso hararazteko zure izen saindua aiphaturen duten guziak. Salbatzailleak ihardetsi zion: eman zakizko bideari, gizon hura bertze bat egina da. Hura

berezi dut predikatzekotzat ene izena populu guzien, lurreko erregeen, eta Israelgo umeen aitzinean. Emanen diot erakutsterat zenbat behar duen pairatu ene izenagatik.

Salbatzaillea hunela mintzo zitzaion denboran Ananiasi, Saulek ikhusi zuen, gogoz, Ananiaz deitzen zen gizon bat sartzen haren gelarat, eta ematen eskuak haren gainean izanaraztekoztat bista. Ananias lehiatu zen egiterat fede bizi eta fidantzia handirekin manatu zitzaiona. Aurkhitu zuen Saul erran zitzaion lekhuana, eman zituen bere eskuak haren gainerat, eta mintzatu zitzaion hunela: ene anaia Saul, zure bidean ikhusi duzun Jesusek egorri nau zureganat, zuri bista bihurtzerat, eta izan zaitezentzat izpiritu sainduaz bethea. Ordu hartan berean athera ziren likhitskeria batzu Saulen begietarik, eta ardietsi zuen bista. Altxatu zen bere lekhitik guzia boztua, admirazionez, eta bihurkhundez gaindi-egina. Ananiasek egin zuen yakintsun Saul Jainkoak zer nahi zuen egin zezan haren alderat: eman zion bathaioa, eta izpiritu sainduak bethe zuen bere dohainez. Batak eta bertzeak bihurtu ziotzoten Jainkoari eskerrak. Sau-

lek yan zuen, eta ethorri zitzaizkon galdu zituen indarrak. Iragan zituen zenbeit egun Damasena ziren giriztinoen artean. Hogoia eta hamasei urte ahal zituen: athera gabe hiri hartarik, predikatu zuen hango sinagogetan berak persekutatu zuen Jesus hura egiazko Mesias zela, Jainko biziaren seme eternala.

Ez da gaitz konprenitzea nolakoa izan behar zen yuduen espantimendua entzuteaz hala mintzaten orduraino Jesu-Kristoren erreligione sailduari hanbat errabiarekin yazartzen zioena, eta ethorria zena Damaserat giriztino guziak preso altxarazterat.

Yaun-doni Paulo egon zen, Neron, Enperadore kruelaren manuz, bederatzi ilhabeteen ingurua, Erromako presondegitan: kondemnatua izan zen azoterat eta heriotzerat.

San Andres Apostolua

Erran izan dugu San Andres Yaun-doni Petri-ren anaia zela; beraz Galilearra, eta Beithzaidai-koa. Entzun zuen, egun batez, Yaun-doni Yauni Baptista erraten, Jesu-Kristoz mintzo zela: horra Jainkoaren bildotsa. Ordu beretik yarraiki zitzaion Saibatzaillari, zuelarik laguntzat bertze dizipulu bat ebanyelioak izendatzen ez duena. Jesu-Kristo itzuli zen heien alderat, eta erran zioten: noren bilha zabiltzate? Etzuen galde hau egiten etzakielakotzat heien barneko berri; bainan atsegin zuen zabal ziotzoten bere bihotzak. Bi dizipuluek ihardetsi zioten: nausia, non da zure egoitza? Salbatzaillak erran zioten: zatozte, eta ikhus ezazue. Abiatu ziren Jesusen ondotik, eta harekin iragan zuten egun hura guzia. Zer bozkario! zer kontsolamendu gozo etzuten ediren Jesusen solas salbagarrietan!

Andresek predikatu zuen zenbeit denboraz Yudeako herritan; iragan zen gero Thrazarat, eta Epiarat; ibilhi zen oraino Eszitian, Kapadozian eta Albanian barna. Suntsi-arazten zituen bazter

guzietan satanen ilhunbeak, eta hedatzen Jesu-Kristoren argia. Sarthu zen Patras deithua zen hiri batean, eta predikatu zuen han ere bere nausi dibinoaren errelijione saildua. Ejea zen herri hetako gobernadorea. Yakin zuenekoztat Andres Patrasen zela, ethorri zen berehala hiri hartarat nahiz debekatu fedearen aitzinamen-dua, eta begiratu Jainko faltsoen alderako adora-zionea. Gure apostoluak Jainkoaren loriarentzat zuen kharra etzen nihon baratzen; huna nola mintzatu zitzaion gobernadoreari: baduzu, o! Ejea, bertze gizonen yuiatzeko esku guzia: etzaitzu bada bere bidean laitekela zuk ere ezagut bazineza zure yuie zeruan datzana? Etzaitzu bada iduritzen ezagutu dukezunean haren han-ditasun guzizkoa, behar zinokeiela bihurtu zor zaion ohorea, eta behar zintuzkeiela alde baterat utzi eta arbuiatu zure Jainko faltsoak?

Gure apostoluaren hitzek harritu zuten gobernadorea; erran izan zion: zu zare Andres hura gure tenpluak lurrerat artik-arazterat lehia-tzen dena? Onhets-arazten duena errelijione bat gure herritako manuek kondemnatzen dutena? Andresek, batere kantitu gabe, ihardetsi zion:

zuen printzeek etzuten emanen halako manurik izan balute gure erospeneke misterioaren eza-gutza, eta yakin izan balute Salbatzailleak ateha gaituela etsai gaixtoaren eskutarik, gu libertate dohatsu batean ezartzekotzat. Ejeak erranzioen: horiek guziek ez dute begiratu zuek Jesus deitzen duzuen hura izatetik yuduez hartua eta gurutzefikatua. Aithortzen dut (ihardetsi zuen Andresek) Jesus izan dela gurutzeari estekatua; ordean bada deusere gurutzea baino ohoragarriagorik? Gureganako amudioz hil izan da: erosi nahi izan du mundu guzia bere odolaren gostuz. Ejeak erranzion: nik zer antsia dut izan den gurutzefikatua bere nahitarat, edo bere bortxa? Aski ahal da yakitea gurutzefikatua izan dela adorazionerik ez meitzeko. Nor da hartu nahi lukeiena Jainkotzat gizon bat gurutzefikatua izan dena? Orduan apostolu saindua mintzatu zen gure misterio handiez, hala nola Jesu-Kristoren sortzeaz, eta gure errelijioneari darontsoten bertze egia errespektagarriez. Gobernadoreak etzuen halakorik aditzen; manatu zioen Andresi idolei sakrifikatzeaz. Huna zer ihardetsi zuen gure apostoluak: ofrendatzen diot, egunoro,

Jainko guziz boheretsuari ez, zezenen haragia, ez eta akherren odola; bainan bai gurutzean imolatu den, eta narraiorik gabea den bildotsa. Mundu guzia haren haragiaz eta odolaz hazten da; halarik ere bethi oso gelditzen da. Bildotsa hain da bizia sakrifikatua izan denean nola imolatu izateko aitzinean.

Gobernadoreak ezin yasan zezakeien gehiagore gure sainduaren solasik, altxarazi zuen preso. Erakharri zuen biharamunean beregana; mehatxatu zuen hil-araziren zuela gurutzean ez bazituen adoratzen Jainko faltsoak. Andresek iharde-tsi zion bere khar sainduarekin: o! gizon zoroa, zure itsumenduan, eta zure buru-gogortasunean egonen zara bada bethi? Uzte duzu bada zure dixiduek izitzen nautela? yakin ahal dezakezu ene hirritsik handiena tormenten pairatzean datzala. Nik dudan atsekabe bakharra da ikhustez urrundua zarela zeruko bidetik. Zenbatenaz pairaturen bai dut, hanbatenaz preziatuagoa izanen da Jainkoak enetzat zeruan dadukan gollar-doa.

Ejeak azotarazi zuen krudelitate izigarriena- rekin gure apostolua. Agertu behar izan zuen

berriz ere gobernadore barbaro haren aitzinerat, eta mintzatu zitzaion egundainoko khar berarekin gurutzean hiltzeari zatxeikon zorion handiaz, Jesusen ohoretan zenean. Andresek erran zion oraino Ejeari: enetzat daduzkatzun tormentek ez naute batere lotsatzen: egun bat, edo bia iraun ahal dezakete, eta hek izan-araziren darotedan dohatsutasunak ez du izanen akhabantzarik. Ordean, o! Ejea, tormenta guziz ikharagarria, eta zuk merezi duzuna da ifernuko sua, su bat behinere iraungituren ez dena, eta bethi indar bera izanen duena.

Gobernadoreak ikhusten zuen etzuela deuse-re irabaziko gure apostoluaren izpirituan; kondenatu zuen gurutzean hiltzerat. Populua abiatu zen oihuz erraten: zer egindu bada gizon yustu, eta Jainkoaren adiskide horrek kondemnatua ikatekotzat heriotzerat? Ez, ez dugu utzi behar efetutan ematerat sententzia bat hain zuzen kontrakoa. Gure sailduak etzakien non zen bozkarioz hil behar izateaz Jesu-Kristoren ohoretan. Othoitztu zituen giriztino guziak ez debekatzeaz, ez eta luzatzeaz ere haren martirioa. Etzuen hain laster urrundik ikhusi gurutzea,

non abiatu baitzen erraten, oihuz, allegrantzia guzietan: agur egiten darotzut, o! gurutze ohoragarria; Jesu-Kristok, hil izan denean zure besoe-tan, konsekratu izan zaitu bere gorphutz adora-garriaz. Arbuiatua zinen ordu hartaraino; ordean geroztik, osoki zara prezagarria. Fedea duenak ezagutzen du zure maitagarritasuna, eta badaki nolakoa den zuk izan-arazten duzun khoroa. Heldu natzaitzu fidantzia eta bozkario handire-kin. Har nazazu zureganat. O! gurutze preziatua, aspaldion berantetsia, hel-araz nazazu lehen bai lehen zure gainean hil izan den ene Salbatzaille maiteagana.

Gure saildua egon zen, bi egun, gurutzeari sokhez amarratua: erakhartzen zituen ingurutan zituen giriztinoak fedean irauterat, eta tormenta iragankhorren arbuiatzerat ardiestekotzat bethi-ko khoroa. Andresen pasientziak eta animo sain-duak sumindura oraino handiagoan ematen zuten, populu guzia yuie kruelaren alderat. Ejea hasi zen beldurtzen; manatu zituen burreuak libratzeaz gurutzetik gure apotolua; ordean burreuak eman nahi izan zirenean eginbide har-tan, eskastu zitzaizten indar guziak, hillak beza-

la zituzten bere besoak. Ordu hartan Andresek egin zuen, hitz goraz, othoitz hau: ene Jainkoa, ez dezazula permeti zure izenaren ohoretan gurutzeari estekatua dena yauts dadin handik. Har nazazu, othoi, zure erresuma dohatsurat: zure baitan dut ene fidantzia guzia: ordu da goza nadin, azkenean, ene bihotzak hanbat maite duen bere yabe adoragarriaz. Hitz hauk erran orduko, gure saildua inguratua izan zen zeruko argi distioz batez, eta artiki zuen azken hatsa heltzekotzat bizitze eternalerat.

Yaun-doni Yakobe lehena

Yaun-doni Yakobe, Zebederen eta Salomoren semea zen, anaia zuen Yaun-doni Yauni ebanyelista, eta bera baino gazteagoa. Bethzaidakoa zen, San Filipe eta San Andres bezala. Arrantza zen batzuen eta bertzeen ofizioa.

Salome lehenbizikotarik zen Jesu-Kristori yarraiki zitzaizteneen arrear: haren prestutasuna ezagutua zen: ohoratzen zuen bere familia guzia zaraman bizitze sailduaz. Salbatzailleak, itsas hegian zabillala ikhusi izan zituen Yakobe eta Joanes bere barkhuan; berekin zuten aita, eta bere sareen antolatzen hari ziren. Jesusek deithu zituen bi anaia hek beregana. Laster izan zen obeditua. Utzi zituzten berehala bere sareak, bere burasoa, eta zituzten guziak heltzekotzat Jesusgana: bereganatu zuten haren bihotza, agertu zuten lehia sailduaz.

Guziek Salbatzaillearen dizipulu maite baten-tzat zadukaten gure saildua: ikhusi zituen nausi dibinoak obratu zituen mirakuillu gehienak. Jesusek biz-arazi zuenean Yaun-doni Petriren ama-

giharraba, Yakobe han gerthatu zen: ikhusi zuen orobat bizten Zair, sinagogako buruzagiaren alaba: lekhuko izan zen oraino Salbatzaillea izan zenean loriaz estalia Thaboreko mendian.

Izpiritu saindua yautsi zenean apostoluen gainerat, Yaun-doni Yakobe abiatu zen herriz herri predikatzen guzietan Jesu-Kristoren fedea. Iragan zen Espainiarat, egin zen hango apostolu bezala: hura izan zen lehena ebanyelioa predikatu eta hedatu zuena gure hauzoko erresuma hartan. Bokantza eder bat zuen mintzatzeko; solidoa zen arrazoinamenduan, sarkhorra bere hitzetan, eta mirakuillu hainitz obratzen zuen; ez da beraz miretsteko baldin populuak, osteka, bazaramatzen Jesu-Kristoren errelijionearen besarkarazterat. Gaitzetsiak izan ziren Yaun doni Yakoberen obra espantagarri bezain miragarriak. Nahi izan zioten haren bizi preziatuari: zer etzuten egin haren gal-araztekozat! yuduek eskuratu zituzten bi majiziano edo azti ospe handitakoak: hek ziren Fileta eta Hermojenes: batak nola bertzeak hitz eman zuten suntsi-araziren zutela gure sainduaren fama guzia, eror-araziren zutela konfusionean eta ahalkerian. Urrun da

ordean hala gerthatu baitzen. Yakobe hasi zene-ko mintzatzen, Filerak ezagutu zuen egiazko Jainkoa, eta itzuli zuen bihotza haren alderat: Hermojenesek ere ezagutu zuen bere itzuli gaix- toen eta artifizioen funtsgabetasuna; bihurtu zion gure apostoluaren berthuteari zor zitzaion yustizia.

Etzen deusere gai zenik gutitzeko yuduek Yaun-doni Yakoberi ekhartzen zioten ondikozko herra: yabetu ziren hartaz Jesu-Kristoren Jainko- tasuna predikatzen hari zela: yazarri zioten fulia- rekin haren gorphutzari, eta eraman zuten Hero- des Agripa yudeako erregeaganat. Agripa hura zen haur inozentak sarraskitan eman-arazi zituen Herodes kruelaren ilhobasoa. Etzen aspaldion ungi heldu yuduekin, eta populuaren amu- dioaren ondoan zabilhan. Uzte izan zuen ez ahal zitekeiela parada hoberik onhets-arazteko zat bere burua, nola sakrifikatzea yuduek higun zuten, eta aspertu nahi zitzaizkon Jesu-Kristoren dizipulu khartsu hura. Bertze arrazoinik eta esta- kururik batere gabe, Agripak kondemnatu zuen gure saindua burua ebakia izaterat.

Yaun-doni Yakobe preso hartu zuen yuduak ikhusi zuenean saindu haren fermutatuna, ezin egon zen utzi gabe bere errelijione faltsoa yarraikitze kotzat egiazkoari. Uztekabeko gambia-mendu hunek damustatu zituen yudu kruelak konbertitu berria kondemnatua izan zen gure sainduaren heriotze bererat. Lehenik artiki zuen bere burua haren oinetarat, eta barkhamendu galdegin zion haren alderat egin zuen gaitskiaz. Yaun-doni Yakobek besarkatu zuen amultsuki gizon Jainkoaganat itzulirik heldu zena, eta erran zion: bakea dela zurekin. Bizia galdu behar zuten lekhurat zirenean, gure saindua eman zen othoitzetan: eskerrak bihurtu ziotzon Jainkoari egiten ziotzan graziaz eta ohoreaz permetitzean isur zezan bere odola bertze apostolu guziek baino lehen haren izen sainduaren ohoretan. San Epi-fanak segurutzen gaitu Yaun-doni Yakobek begiratu zuela, bere bizi guzian, garbitasuna Yaun-doni Yauni ebanyelistak bezala; uzte ere du hortik heldu zela Salbatzailleak zuen amudio berezia bi anaia heien alderat.

Yaun-doni Yakoberen gorphutz errespedagarria ehortzia izan zen Jerusalem; etzen ordean

hainitz egon hiri hartan. Errana da Espainiatik berekin alde urrun hetarat eramán zituen dizipuluek altxatu eta ekharri zutela bere nausiaren gorphutz saindua Iria deitzen den Espainia Galiziako hirirat, eta han egon zela bederatzi ehun urtheen ingurua. Erleki preziatu hek ezagutuak izan ziren Alfonze, erregeren denboran. Printze Jainkotiar hark erakharri zituen Konpostelarat. Han dire geroztik: ez bide da, Yerusalemez eta Erromaz landan, lekhurik munduan zeinarentzat agertzen baida debozione gehiago nola gure apostoluaren gorphutz sainduak ohoratzen duen hiria.

San Bartolome

San Bartolome Galileakoa zen bertze apostolu guziak bezala, eta orobat arrantzalea. Leihaltasun handirekin yarraiki zitzaion Salbatzailleari, etzen behinere hastandu harenganik. Baziren apostoluen artean bihurtu zirenak bere arrantzarat Jesusen dizipulu egin izan geroz ere; ordean San Bartolomek etzuen hala egin. Bethi bere nausi dibinoarekin egon zen; hortik beretik haren mirakuillu gehienen lekhuko gerthatu zen. Predikatzen zuen ezin erranezko khar batekin: erakhartzen zuen mundu guzia penitentziarat: sendatzen zituen eriak, eta libratzen etsai gaixtoaz hartuak. Egorria izan zen Albaniarat, eta Indietako bertze bazterretarat. Hedatu zuen guzietarat gure errelijione saindua. Haren mirakuilluak ederretsiak ziren paganoez berez. Konbertitu berrien berthute distiantak seinalatzen ziren gure apostoluak predikatzen zuen herri eta probintzia guzietan. Etsai gaixtoak bereganatzen zuen Armeniako hiri batean populuaren adorazionea mintzarazten zuen idola baten bidez.

Ordean gure saildua etzen, hain laster hiri hartan sarthu, non Astarot zaritzon idola hura mutu baitzen alde baterat. Uztekabeko ixiltasun hunek harritu eta laztu zituen ingurutako populuak. Egin zuten bide bertze idola batetarat yakittekotzat zerk ixil-arazi zuen bada Astarot handia. Etsaiak ihardetsi zuen bigarren idol haren ahoz Bartolome, Jainkoaren egiazko apostoluaren presentziak mutuarazi zuela haren laguna. Bertze haren bertze zagoela harentzat ere baldinetariak apostolu hura heldu bazen haren tenplurat. Erran zuen oraino Astarot etzela abiatuko mintzatzen Bartolome urrundu arteraino; gizon saildu hark othoitzten zuela Jainkoa egunean ehuntan, eta gauaz, bertze haren bertzetan; bertze alde, inguratua; zela zeruko aingeru araldeen.

Nolakoa etzen izan populuaren espantimendua ikhustez etsai gaixtoa bera ezin zagokela aithorra eman gabe San Bartolomeren berthute miragarriari! Populuak haren ikhusmin handia zuen; ordean farisauek, beldurrez gal munduak hetan zuen fidantzia, egin zituzten bere egin ahal guziak haren hil-araztekotzat. Ibilhi ziren, hirur egunez, haren ondoan nihon aurkhitu gabe,

azkenean ezagutua izan zen erien sendatze, eta egiten zituen bertze mirakuillutarik.

Gure apostoluaren ospea hedatzen zen guzietarat: Jainko egiazkoaren apostolua eta mirakuillu egillea deitzen zuten. Etsai gaixto fulios batek zarabillan Armeniako erregeren alaba bat. Errege hark bazuen fidantzia San Bartolomeen baitan; haren ikhusteko nahi handi batean bizi zen. Konplitua izan zen haren nahia. Gure saindua hurbildu zen harenganat: agertu zenekotzat eri hura libratua izan zen etsai gaixtotik, eta sendatu zen osoki. Erregek nahi izan zuen seinalarazi bere bihurkhundea, eta saristatu bere alabaren sendatzaillea; ordean San Bartolomek eman zion aditzerat etzabilhala zilhar, urreketan: hark galdetzen zuen guzia zela haren arimaren salbamendua, eta haren populuaren konbersioea. Mintzatu zitzaion hitz hautaz: heldu naiz zuri ezagut-arazterat egiazko Jainkoa, mundu handi hau guzia berak egin duena, bakharra merezi dituen gure amudioa, gure errespestua, eta gure adorazioea. Zure idolak, o! erregea, etsai gaixtoen obrak dire, hek berak adoratzan ditutzu. Zuri ematekotzat erakutste-

rat egiaz mintzo natzaitzula, nahi dut zure idolen artean osperik gehien duenak aithor dezan, bor-txaz bada ere, egia erraten dudala.

Gure saindua hartua izan zen bere hitzean. Errege yoantzen bere gorthe guziarekin tenplu-rat. San Bartolome etzen hain laster han agertu non idolarik famosena abiatu baitzen oihuz erra-ten etzela Jainko, ezin zitekeiela Jainko bat bai-zik, eta Jainko bakhar hura Jesu-Kristo S. Bartolo-mek predikatzen zuen hura bera zela. Aithor humiliagarri hunen gainean, gure sainduak manatu zion, Jesu-Kristoren izenean, etsai gaix-toari porroskatzeaz, orduan berean hiriko idola guziak: hala egin izan zen herrauts eginak izan ziren idola guziak. Mirakuillu hunek irabazi zituen izpirituak eta bihotzak: hiri guzia konber-titu izan zen. Zenbait egunik barnean erregek eta haren gorthe guziak ikhasi zuten gure erreli-jione saindua, eta izan ziren bathaiatuak. Gauza bera egin zuten erresuma hartako hamabi hiri buruzagiek: guziak yarri ziren Jesu-Kristoren uztarri ezti eta arimaren azpian; guziak itzuli ziren Jainkoagana.

Mirakuilluzko ganbiamendu hau gaitzitu zitzaien idolen aphezei; etzen ordutik arbuiorik baizen heientzat. Ikhusten zuten errege finki lothu zitzaioela gure errelijione sainduari, eta etsitu zuten behinere bihurturen zela idolen adoraterat. Errege hark bazuen anaia hat Astiajes deithzen zena itsutuki emana idoletarat, eta nausitasun oso bat zuena bere herritan. Anaia zoro hau aspertu zitzaion gure sainduari: gaztiatu zion ethortzeaz haren lurretarat. San Bartolomek etzuen deusere hala bilhatzen nola bere odola isurtzea Jainkoaren ohoretan. Eman zitzaion berehala bideari heltzeko galdetzen zuten lekhurat. Astiajesek eskuratu zueneko gure apostolua, larru-arazi zuen bizi-bizia. Zer suplizio dorphe! zer tormenta asma ikharagarriagorik! San Bartolomek pairatu zituen guziak idolatreak berak espantitu zituen pasientzia miragarrienarekin. Nola mintzo baitzen, tormenta-pean ere, Jesu-Kristoren Jainkotasunaz, eta fedezko egia handiez, Astiajes barbaroak ebak-arazi zion burua.

Hiltzenezan gure saindua, ikhusi zen mirakuillu bat punimendua zaxharkeiena, Astiajes eta

hura lagundu zutenak hil-arazteko gure aposto-
lua, hil izan ziren berak ere izan ondoan etsai-
gaixtoaz tormentatuak hogoi eta hamar egunez,
Giriztinoek altxatu zuten maiteki San Bartolome-
ren gorphutz errespektagarria. Erroman datza
guziez ohoratua.

Yaun-doni Eztebe, lehenbiziko Martira

Yaun-doni Eztebe izan da lehena bere odola eta bizia Jesu-Kristoren ohoretan eman dituenena. Yudua zen ethorkiz: nihork ez daki non sorthu zen, eta nor zituen burasoak: Altxatua izan zen Gamaliel, Salbatzaillearen dizipulu gorde, eta legeko doktor aipatuaren eskolan. Zorrotza zuen izpiritua, eta emana zen istudioari. Prestutasun handi hat agertu zuen bere gaztetasunean; Yaun-doni Petriren lehenbiziko predikuari zioen zor bere konbersioa. Seinalatu zen, ondoko urthean, errelijionearen alderat zuen khar biaz eta bere mirakuillu miragarriez.

Yaun-doni Ezteberen denboran, giriztinoek apostoluen eskutarat zaramatzaten bere ontasunak, guziak guzientzat balia zitezentzat eta laguntzeko beharrean zirenak. Apostoluek bazuten lanik aski ibiltzeaz, herriz herri, predikatzen, berek egin gabe ontasun hekien enplegua. Berezi izan ziren zazpi gizon prestu hartakotzat. Yaun-doni Eztebe zen hetarik lehena. Zuzenta-

sun guziarekin bethetzen zituen e man zitzaion kargu berriaren eginbideak. Zer atzartasun! zer lehia etzuen ematen erakutsterat hel-araztean laguntzak behar zen lekhu guzietarat! Haren berthuteak eta yakintasunak haro egiten zuten Yerulalemeko hirian. Iharduki behar izan zuen, asko aldiz, legeko doktorekin eta iskritura sainduan gehien trebe ziren nausiekin. Ordean hek guzien arrear, etzen bakhar bat gure sainduak garaitzen eta ahalkarazten etzuenik bere zuhurtziaren eta argien hedaduraz. Etzen hortan deuserere espantitzekorik; ezen Jainkoa bera mintzozen haren ahoz.

Legeko doktorek ikhuten zuten beraz etzute-la deuserere irabaziren gure sainduarekin arrazoinamenduan, hek baino gehiago zakiela, amor eman ahal ziozoketela yakintasunean; ikhusten zuten oraino mirakuilluz hainitz egiten zuela, eta erakhartzen zituela, egunoroz, multzoka, arimak Jainkoaren adoratzerat: hortik heldu da bekaxtu baitzitzaizkon Yaun-doni Ezteberen berthute miragarriari, eta bere artean egin baitzuten hil-arazi behar zutela. Huna nola hartu ziren hortakotzat. Eskuratu zituzten zenbeit gaixtagin, eta

erran-arazi zioten entzun zutela gure diakre saindua mintzatzen Moiseren eta Jainkoa beraren kontra. Kalomnia beltz hau laster hedatu zen populurat: guziak yarri ziren suminduran; ordean legeko doktorak ziren beregainki Yaun-doni Ezteberi aspertu nahiak. Sar-arazi zuten gure saindua, errabian izan balire bezalako dorphetasunarekin, bilduak ziren tokirat, eta harat erakharri zituzten berek eskuratu eta eskolatu zituzten lekhuko faltsoak. Gaixtagin dohakabe hek erran izan zuten yuieen aitzinean gizon hura etzela behinere baratzen gaitski mintzatzetik tenpluaz eta legeaz, laudoriorik handienak egiten zituela Jesusez. Yaun-doni Eztebek hauk guziak entzuten zituen deusere galdu gabe bere emetasunetik, etzen batere lotsatzen bere etsaien erdian: begiratzen zuen bake gozo bat bihotzean, eta bere leheneko arraitasuna bisaiean. Aphezeen printzea zen yuie guzian aitzindaritzat, galdegin zion diakre sainduari egiak othe ziren bada hartaz ziotzatenak.

Yaun-doni Eztebek ihardetsi izan zuen errespetatzen zituela patriarka zaharrak, hala nola Moise; eta gizonen egin ahal guziek ezin gibela

detzaketeiela Jainkoaren xede adoragarriak; yuduek zer nahi eginik ere, Jesu-Kristoren erreligionea suntsi-arazteko, ebanyelio saindua etzela hargatik gutiago hedaturen alde guzietarat. Haren bihotza sustatua izan zen, bet-betan, khar berri batez; altxaturik boza erran zioten: o! zuek gizon sinhets gogorrak, etzarete bada behinere probetxatuko izpiritu sainduaren argi salbagarriez! zuen aitzinekoek egin dutena egiten duzue zuek ere. Zein da yazarri ez dioten profeta? Azkenaz goiti, hil-arazi dituzte Jesu-Kristo mundurat heldu zelako berria ematen zuten profetak; eta zuek askiitsuak izan zarete gurutzefikatzekotzat Jesu-Kristo hura bera.

Yaun-doni Eztebe hunela mintzo zela, egin izan zen harramantza handi bat. Ezin hedatu zuen urrunago bere solasa. Mundu guzia yarri zen suminduran eta fulian bezala haren kontra. Ordean deskantsurik handienez aurkhitzen zen bera: bortitztua zen fede bizi batez, eta izpiritu sainduaren dohainez. Yuieak ekhartzen hari ziren denboran haren heriotzeko sententzia, egon zen zerurat beha, eta ikhusi zuen izpirituko begiez bezala gorphutzekoez ere argitasun mira-

garri bat; eta argitasun haren bidez, ikhusi zuen Jainkoa bere loria guzian, eta Jesu-Kristo haren eskuineko aldean. Gure sainduak etzakien ordu dohatsu hartan non zen, bozkarioz: abiatu zen erraten: ikhusten-tut zeruak zabalduak, eta gizonaren semea, xutik, Jainkoaren eskuineko aldean. Hitz hauk entzun zituztenek egin zituzten oihu min batzuk, eta tapatu zituzten bere beharriak blasfemioak entzun izan balituzte bezala. Eraman zuten herrestan gure saindua Yerusalemeko hiriaz kanporat, hil-arazteko legeak blasfematzaillan kontra zakharkeien heriotzeaz.

Yaun-doni Eztebe eramana izan zenean bizia galdu behar zuen tokirat, yazarri izan zioten gaixtagin bati, Jainkoaren etsai bati, eta blasfematzaillan bati bezalako barbariarekin; ordean bera etzen den gutiena kantitzen, othoitzean zagoen erraten zuela, begiak zerurat altxaturik: Jesus ene Jauna, errezihi zazu ene arima. Odola zarion gorphutz guzitik, sarraskitan zen guzia, halarik ere, etzioten gaitzik nahi bere etsaiei, aitzitik, maite zituen bere anaiak bezala. Belhaurikatu zen, eta erran zuen gora: Jauna, barkha

diozozute, othoi, egiten duten gaitския: hitz hauk erran zituenean, artiki zuen bake ezti batean bere azken hatsa.

Errana da Gamaliel legeko doktorak eta gure sailduaren nausi ohiak altxatu zuela, ixillik, bere dizipuluaren gorphutz saildua, eta ehorts-arazi zuela Yerusalemetik zaspil lekhoetan.

Yaun-doni Laurendi, Martira

Yaun-doni Laurendi Espainian sortu zen Aragoniako hiri Hueska deitzen den batean. Prestuak eta Jainkotiarak zituen bere burasoak. Etzuten deusere gupidets altxatzekotzat bere semea Jainkoaren legean. Laurens probetxatu zen eman zitzaion eskolaz, eta begietan zituen etsenplu ederrez: yaidura handi bat zuen ungi-rat. Bihotz ontasuna eta garbitasuna ziren bere-gainki haren baitan, haurdanik, seinalatzen ziren berthuteak. Ezin erran daite noraraino heltzen ziren Laurensen amudioa Jesu-Kristoren alderat, eta errelijionearentzat sustatua zen khar saindua. Behatzen zion Erromari giriztinotasunaren ithurburuari bezala; hargatik ere nahi izan zuen hiri hartan ikhusi bere burua. Erromako giriztinoek laster ezagutu zituzten arrotz gazte haren merezimenduak, eta berthute miragarriak. Aita-sainduak ezin aski ederrets zezakeien haren inozentzia; altxatu zuen ordena sakratutarat, eta gure saindua izan zen berezia Erromako zazpi diakretarik lehenbizikotzat. Kargu hari zatxeiz-

kon ez xoilki ematea fidelei komuniatzerat aita-sainduak meza erraten zuen alditan, bainan oraino elizako ontasunen arthatzea, eta pobren sokhorritzea. Halako kargu batek zuhurtzia handi bat galdetzen zuen ezin zitekeien esku hobetan. Mundu guziak laudorio zuen gure sainduaz. Oxala! utzi balitz eliza bakean; bainan ez; altxatu zen persekuzione bat osoki ikharagarria. Suntsi-arazi nahi izan zuten giriztinoen aiphamena bera, isur-arazirik heien odola.

Balerien enperadoreak printze olhe eta ekharkari baten sama zuen paganoen artean: halakoa agertu zen erreginatzekeo hastean giriztinoen alderat errege batek ere etzioten egundaino erakutsi hark bezanbat amudio eta arraitasun. Hunenbat giriztino bazen haren palazioan non iduri baitzuen eliza bat. Ordean giriztinoen alderako enperadorearen ontasuna seinalatu balin bazen hastapenean, erran behar da nonbait gerorat dorpheki ekharri zituela. Batetik bertzerako gambiamendu ondikozko hura heldu zen Makrien zaritzon batenganik. Makrien hura zen gizon bat ethorki aphalekoa, altxatua bere gaixtakeria izigarrien bidez ohore handienetarat.

Enperadore izateko hirritsan bizi zen, eta hobeki heltzeko bere nahi zororat, largatu zuen bere burua etsai gaixtoaren eskutarat. Etsai-gaixtoak agindu zion erresuma hil-arazten bazituen giriztino guziak.

Makrienek amoratu zuen Baleriana. Enperadore hunek kondemnatu zituen heriotzerat aphezpiku, aphez eta diakre guziak. Buruzagitarik hasi zen manu kruel haren exekuzioea. Sixta, aita-saindua izan zen hartua, preso altxatua eta gathetan emana. Yaun-doni Laurendi aspaldion martirioaren ondoan zabilhan; yakin zueneko San Sixta preso zela, sarthu zen bera ere presondegi berean harekin egotekotzat; etzuen hain laster ikhusi San Sixta non abiatu baitzen erraten: o! aita-saindu handia, nola zohazke sakrifiziorat zurekin eraman gabe orai arteraino lagundu izan zaituen zure diakrea? Etzaizko naski fida ene fedeari, edo ene animoari: eman etzatzu bata eta bertzea frogarat, eta ikhusiren duzu ez dudanez hazia merezitzen egin darotazun ohorea altxatzean dudan kargurat. Diakrea yarraiki behar zaio bethi aphezari, zergatik utzten nauzu bada haur xartxa banintz

bezala? Etzaitzu bada bere bidean dela umea izan dadin bere aitarekin? Eta ardia ez dadin urrun artzainaganik?

San Sixta ukitua izan zen bere diakrearen sentimendu onez: erran izan zion: kontsola zaite, ene semea, konplitzerat doha zure nahia. Zeruak biktoria handiago bat daduka zuretzat: zohazi, heda ezatzu pobretarat eskutan ditutzun elizako tresorak, eta prepara zaite martiriorat. Zer boz-kariozko berri bere odola Jesu-Kristorentzat eman nahizko hirritsan bizi zen gure sailduarentzat! Ez du galtzen momentorik: bihurtzen dio-tzote giriztinoei elizako ornamentak eta yarro sakratuak. Hartzen du pobrentzat aldaratua zen dirua, eta badarama giriztinoak gordeak ziren Erromako lekhu eta zokho guzietarat. Laguntzen ditu bere egin ahal guziez. Gure sailduak yakin zuen bazirela zenbeit giriztino pobre ihes egin zutenak Narzisa deitzen zen gizon prestu baten etxerat: yo zuen harat ere: lagundu izan zituen bertzeak bezala, eta bihurtu zion bista zenbait urthe hetan itsutua zen bati. Yakin zuen orobat bazirela bertze lekhu batean hirur hogoi eta hirur

giriztino gordeak. Hek ere lagundu zituen, eta erakharri finki egoterat bere fedean.

San Sixta kondemnatua izan zen burua eba-
kia izaterat. Yaun-doni Laurendik izan nahi zuen
berriz ere aita-saindu haren ikhusteko kontsola-
mendua. Bathu zuen hiltzerat zaramatela. Artiki
zuen bere burua haren oinetarat nigar marraske-
tan. Erran zion esku onetan utzi zituela elizako
tresorak, lagundu zituela pobreak, eta egiteko
gelditzen zitzaion guzia zela haren laguntzea
bere biziaz egiterat zohan sakrifizioan. Aita-sain-
du hark kontsolatu izan zuen bere diakrea erra-
ten zioelarik helduko zela hura ere khoroa bere-
rat hirur egunik barnean. Erran zion oraino: ene
semea, Jainkoak ikhusten du ene adin handiaren
herbaltasuna: tormenta arinak daduzka enetzat;
zutaz denaz bezainbatean, nahi du eraman
dezazun biktoria seinalatu bat zure martirioa
ospe handitan emanen duena. Hala gerthatu
zen.

Soldaduek hedatu zuten enperadoreaganat
berria Laurens, diakre gazteak ontasun hainitz
gorde zuela. Printze diru gose, eta giriztinoen
etsai hark har-arazi zuen gure saindua. Agertu

zen haren aitzinerat aire errespektuz eta fermutasunez bethe batekin. Lehenik, galdegin zitzaion zer zen; ihardetsi zuen ahalkerik gabe giriztinoa zela, eta Erromako elizako diakrea. Gero galdegin zitzaion non zituen fidatu zitzaizkon ontasunak. Ihardetsi zuen horren gainean, agertuko zituela ontasun hek nahi bazioten utzi hartako denbora. Eman zitzaion egun baten ephea. Gure sailduak iragan zuen egun hura aurkhi ahal zetzakeien pobre guzien biltzen. Eman zen bera hekien buruan, eta hurbildu zen enperadoreaganat erraten zioelarik konplitu zuela haren manua; horrekin batean erakutsi ziotzon pobre hek giriztinoen tresorik baliosenak bezala. Urrun da halakorik igurikitzen baitzuen enperadoreak: idoiztatua zadukan bere burua, eta eman zion bere gogoari behar zuela garrazki punitu diakre saildua. Azot-arazi zuen sarraskitan eman-araz arterainokoan; ondoan erran zioen; edo behar diotzotek ofrendatu gure Jainkoei sakrifizioak, edo behar duk yasan heriotze bat egundaino izan den kruelena.

Yaun-doni Laurendik ihardetsi zioen enperadoreari: zuen Jainkoek ez dituzte merezitzen

gizonei bihurtzen gaitzten ohoreak ere: nola beraz, o! Printzea, mana ahal diezakedazu hekin adoratzear? Ez dut tormenteen beldurrik, beraz zure dixiduek ez naute lotsatzen. Esparantza dut pairaturen ditudala Jainkoaren graziarekin hatean fermutasun handi batekin, eta hortik beretik ezagutuko duzula nik adoratzeko dudan Jainkoaren bothere guzizkoa. Enperadoreak ikhusi zuen zer nahi egin zezan, etzuela eskurako gure saildua; halarik ere, sararazi zuen berriz ere presondegian, eta utzi zuen Hipolitaren art-haren azpian. Yaun-doni Laurendiren aire modestak, eta presondegian egiten zituen mirakuilluek erakharri zuten Jainkoaganat hartaz ihardetsi behar zuten, eta Hipolita deitzen zen gizon ohoratu hura, zeinak errezibitu baitzuen bathaio saildua.

Argia urratzerat, eraman zuten Yaun-doni Laurendi hiriko yuiearen aitzinerat. Yuieak enperadorearen manua araberak, etzuen deusere guphidetsi haren eskuratzekotzat, baliatu zen lausengez, mehatxuez, agintzez, hitz batez, hartu zen alde guzietarat; ordean alferretan izan ziren haren egin ahal guziak. Gure sailduak

egundaino baino khar gehiago agertzen zuen Jesu-Kristorentzat. Yuieak trenkarazi zituen haren hezur guziak, eta yazar-arazi zion burdin zorrotzezko azotez. Yaun-doni Laurendi etzen batere kantitzen tormenta hek guzien erdian. Benedikatzen zuen Jainkoa, eta kantatzen zituen haren laudoriak: paganoak miretsiak ziren ikhustez haren bihotzean zen, eta kanpotik ere erakutsten zuen deskantsua. Yuieak egundaino bezala galdetu zion nongoa zen, zer erreligione zuen, eta zer bizitze zaraman.

Yaun-doni Laurendik ihardetsi klon yuieari Espainiakoa zela, eta Erroman iragan zituela bere gaztetasuneko urthe gehienak. Erran zion oraino: izan dut zoriona bathaioa, haurdanik, errezibitzeko, eta Jainkoaren legean altxatua izateko. Yuieak ihardetsi zion: nola duk atrebentzia errateko ezagutzen dukala Jainkoaren legea, arbuiatzen dituanaz geroz gure Jainkoak? Gure diakreak erran zion: zeren ezagutzen dudan Jainkoaren legea, arrazoin hortaz beraz arbuiatzen ditut funtsik gabeko idolak: sentsu onak berak erraren ahal du erhokeria dela uzte izatea bade-la Jainko bat baino gehiago. Orduan yuieak ixil-

arazi zuen gure saildua erraten zioelarik, gau hartan yasan beharko zituen tormentek irakhasiren ziotela bertzela mintzatzin. Yaun-doni Laurendik ihardetsi zion: ez dut bada nik hala uzte; ezen zure tormenta guziak hanbat bozkariozko ithurburu gerthatuko dire enetzat, eta zuk diozun gaua izanen da neuretzat egundaino iragan dukedan eztieta.

Yuieak eman-arazi zuen gure diakre saildua krisela baten gainean, eta beldurrez lasteregi erre zadin, etzuen nahi su biziagi bat, bainan su arin bat emeki-emeki erreko zuena, eta tormentak gehiago iraun-araziren zituena. Paganoak konbertitu izan ziren, osteka, ikhustean Yaun-doni Laurendiren fermutasun, eta bozkario miragarriak. Huntaraino zen loriatua pairatzeaz Jesu-Kristoren ohoretan non erran baitzion aire hirritz batekin yuieari aski errea zela alde batetarik, eta itzul-araz zezala bertze alderat. Horra nola hiltzen gure saildua. Erroman datza haren gorputzaren zathirik handiena. Badire Frantzian ere haren erlekiak.

Yaun-doni Bixintxo, Martira

Yaun-doni Bixintxo Espainiak izan duen martir aiphatuenetarik da. Saragozako etxe on batarik zuen bere ethorkia. Valera hiri hartako aphezpikuak altxatu izan zuen gure martira artha berezi batekin. Irakhatsi ziotzon gure erreljionea, eta izpirituaren argitzeko behar direnak: nausi saindu hark atseginekin ikhusten zuen bere dizipuluaren aitzinamendua yakintasunean; ordenatu zuen diakre, eta erran zion predikatze-ko botherea. Yaun-doni Bixintxok irabazten zituen bihotzak bere hitzeen gantzuduraz; argitzen zituen hura entzuten zuten giriztinoak, eta konbertitzen paganoak berak.

Dioklezien eta Maximien enperadoreek bizarazi zuten persekuzione ikharagarri bat giriztinoen kontra. Seinalatu zen, ordu hartan, Dazien, Saragozako gobernadorean, kharra bere printzeen alderat. Kunplitu zuen zorrozki hekin manua. Har-arazi zituen Valera eta Bixintxo, eta eraman-arazi gatheztaturik Valenziarat agian bide luzeko nekheak, eta hiri hartarat hel arterai-

no yasan behar zuten tratamendu dorpheak erakharriren zituela gure errelijione sainduaz arnegatzerat; ordean bideko nekheak eta gosea pairatzeak etzuten batere kordokatu hekin fede bizia. Hain hazkarrak ziren Valenziarat heltzean nola harat abiatzean.

Dazienek uzte izan zituen hobeki eskuratu emetasunaz ezen-ez dorphetasunaz. Huna nola hartu zen. Lehenik erran zion Valerari haren adin handiak eta haren gorphutzeko herbaltasunak bizitze ezti, eta deskantsuzkoa galdetzen zutela, eta nahi bazuen halako bizi dohatsu bat, aski zuela enperadoreen manuari obeditzea. Gero erran zion Bixintxori: zutaz denaz bezanbatean, o! ene semea, ez ahal diozu ukho eginen zure ethorki ohoragarriari. Sobera zara argitua eta ederki altxatua atsegin ez izateko zureganatzeaz enperadoreen grazia onak. Gaztea zara, ungi egina eta mintzatzaille ederra, zer ez duzu beraz igurikitze gure printzeenganik? Gauza bat da baxharrik egin behar duzuna ohore handienetar heltzeko, eta gauza hura den errexena da; aski duzu largatzea zure burasoen errelijionea: zatozki: beraz, o! ene semea, eta obedi zatzu

enperadoreak: begira zaite buru gogor eta hisitiar izatetik: hala gerthatzerat, segur zinduke heriotzerik kruelena, eta laidotsuena.

Valera apherespiku zaharra nekhez mintzo zen. Manatu zuen bere dizipulua Dazieni ihardets-teaz; orduan Bixintxo hasi zen hunela mintzatzzen: ez dioku zeren eman zure gogoari mundu huntako ohoreak, eta bizia gal-arazteko mehatxuak gai direla kordokatzeko gure fedea. Ez da guretzat halako ohorerik eta plazerik nola gure biziak ematea Jesu-Kristoren ohoretan. Dazienek minki hartu zituen gure diakrearen hitz laudagarririk: eman zen suminduran, eta erran zion: edo ofrendatuko diozute gure Jainkoei intsentsua, edo gostako zaitzu bizia. Bixintxok ihardetsi zion boza goraturik: ya erran darotzut gehienik bilhartzzen dugun ohorea, eta zuk egin ahal diezagukezun atseginik handiena direla gu bizi az gabe-tzea: gehiago dena yakin ahal dezakezu lasterago unhaturen zarela gure tormentatzeaz, ezen ez gu unhatuko baigara pairatzeaz Jesu-Kristoren ohoretan.

Gobernadoreak ezin yasan zuen gehiago gure gizon gazte sainduaren fermutasun handia.

Egorri zuen desterrurat Valera zaharra, etzuen bertze gaztigurik manatu aphezpiku hunentzat; bainan biztu zuen bere errabia guzia Bixintxoren gainerat. Manatu zituen burreuak baliatzeaz tormentarik bortitzenez, asmatzeaz ere izigarriagorik yazarteko diakre sainduari, arbuiatzen zituenaz geroz hekin idolak. Haren manu kruela laster izan zen konplitua.

Burreuek eztiratu zuten gure saindua hezur guziak kraskatuak izan arterainokoan. Dazien barbaroa etzen hartan baratu; ikhusirik Bixintxo dostatzen bezala zela tormenta hartaz, larruara-zi zituen haren bizkarra eta saihetsak burdinezko behatz zorrotzez. Dazienek uzte zuen gure martira sainduak artikiren zuela zenbeit has-beherapen eta nigar xorta; ordean enganatu zen: Bixintxok lehenbiziko tormenta bezala, yasan izan zuen bigarrena ere; erran nahi da, deskantsu eta bozkario guzietan. Erran behar da gure Jainkoak badakiela arintzen eta ezitzen sofrikaririk dorphenak eta garratzenak haren ohoreran hartzen direnean.

Urrun da Bixintxo lotsatua eta asaldatua baitzen tormenta arraillagarri hek guzien erdian;

aitzitik erraten zion Dazieni etzioela behinere yazarriren berak nahi bezanbat: desafio hunek oraino gehiago tarritatu zuen gobernadore krue-la. Nola baitzakien zauri hotztuek oinhaze oraino gehiago ematen dutela, berriz idekitzen direnean, manatu zuen berriz larrutzeaz gure saindua. Izan zen, ondikoz! obeditua: Yaun-doni Bixintxo emana izan zen sarraskitan, odola zarioela gorphutz guzitik. Etzuen gizonaren iduririk ere. Mirakuillu bat zen bizi ahal izatea estatu lastimagarri hartan. Dazien barbaroak ezagutu zuen alferretan zirela tormenta guziak, ezin garaitua zela gure sainduaren fermutasuna; ordean erran etzadintzat etzuela deusetan konplitu bere nahia, galdegin ziotzon Bixintxori liburu sainduak artikitzekeo surat, erraten zioelarik baldin ematen baziotzan, hark ere utziko zioela bizia.

Gure diakre sainduak ihardetsi zion aire dostaillu batekin yuieari hobe zuela baliatzea suaz akhabatzeko hasi zuen sakrifizioa, ezen-ez erretzeko liburu sainduak; eta ezin zagokela hari deklaratu gabe kondemnatua izanen zela bera behin bethiko surat ez bazioen ukho egiten ido-

len adorazioneari. Hitz hauk gaitzitu zitzaizkon Dazieni: eman-arazi zuen, orduan berean, suaren erdian, burdinezko punta zorrotz batzuen gainean: tormenta berri hunek etzuen erreberritu baizik gure martiraren bozkarioa. Mundu guzia lasturaz eta urrikalmenduz bethea izan zen ikhustez gorphutz erdi larrutu bat, eta hezurak ageri zituena. Sua bera aski izan ez balitz bezala sofri-arazteko zat, burreuek gantzutzen zituzten oraino, gatzez gure sainduaren zauriak.

Burreuek zer nahi egin zezaketeien, Yaun-doni Bixintxok etzuen behinere galtzen barneko bake gozoa. Begiak altxatuak zaduzkan zerurat, eta benedikatzen zuen Jainkoa bere tormenta guzien erditik. Dazienek khen-arazi zuen sutik sar-arazteko zat presondegi ilhun batean. Harat zenean, etzan-arazi zuen eltze puska batzuen gainean, eta etzuen nahi eman ziozoten yaterat, ez eta laguntzarik batere; ordean Jainkoak bere artharen azpian zadukan gure diakrea; suntsi-arazi zituen presondegiko ilhunbeak, eta hel-arazi zituen haren bihotzerat konsolazionerik nahikarazkoenak. Yaun-doni Bixintxoren zauri

guziak izan ziren ordu hartan berean sendatuak, eta aurkhitzen ziren haren baitan leheneko hazkarrasun eta edertasun berak. Zer espantimendu soldaduentzat ikhustez Yaun-doni Bixintxo zauri izigarri guzietarik arras sendatua, eta arrosatarat itzuliak eltze puska hek guziak! Mirakui-llu hark egin zuen presondegiaren artha zuena konbertitu izan baitzen bertze hainitzekin batean. Dazien sarthu zen fulia guzietan entzun izan zituenean gure sailduaren berri ezin konprenituzkoak. Hartu zuen bertze bide bat guti konpuzten zena orduraino agertu zuen krudelitarekin. Atherarazi zuen Yaun-doni Bixintxo presondegitik, etzan arazi zuen ohe guri batean, eta eman-arazi ziotzon iaguntza guziak. Tormenta guzietarik handiena izan balitz bezala etzana izatea ohe guri hartan, gure sailduak galdu zuen bizia harat orduko.

Yaun-doni Bixintxo ehortzia ikan zen Valenziako ingurutan. Frantziako errege batek sethiatu eta hartu izan zuen, duela milla eta berrehun eta zenbeit urthe, Saragozako hiria, eta yabetu izan zen diakre sailduaren estolaz. Erleki prezia-

tu hau aurkhitzen da Paristik berehala den San
Germaineko elizan.

San Fabiene eta San Sebastiene

San Sebastiene seinalatu zen fedearen fago-retan; elizaren sustengua deitzen ere zuten. Sorthu izan zen Frantzian, Narbonnako hirian. Altxatua izan zen giriztinotasunean. Emetasunak, prestutasunak eta zituen bertze milla dohai-nek ezagut-arazi zuten (dio San Ambrosiok) enperadoreen kortxean. Bereganatu zuen Diodklezien enperadorearen fidantzia, eta egin izan zen haren goardeen buruzagitzat.

San Sebastiene martirioaren hirritsan bizi zen; ordean gordetzen zuen bere nahia. Hartu zuen eman zitzaion kargu ohorezkoa hobeki laguntzekotzat persekutatuak ziren giriztinoak. Etxituen guphidetsten bere ontasunak eta bere egin-ahalak hek finkatzeko Jainkoaren alderako leihaltasunean. Giriztinoz betheak ziren presondegiak. Yasan-arazten ziotzoten tormentek kordokatzen zuten hetarik zenbaiteen fedea; bertze batzu ekharriak ziren ukho egiterat gure erreligionari begiratzekotzat bere biziak. San Sebas-

tienek sustatzen zituen khar saildu batez batzuen eta bertzeen bihotzak, eta erakhartzen. zituen fermu egoterat bere fedean. Bera zohan hekin ondotik heien burreuen oinetarat, berak animatzen eta bortizten zituen gure erreligione sailduan azken hatseraino. Molde huntan ematen zen, egunoroz, bere bizia galtzeko menean nahiz salbarazi bertzeak.

Mark eta Marzelien Erromako bi presuna ohoratu izan ziren preso altxatuak giriztino zirelakoztat. Estiratu zituzten, eta hiltzerat zaramatza-ten; ordean heien buraso, emazte eta ume oraino pagano zirenak eman ziren yuiearen oinetan, eta gibel-arazi zuten ilhabete batez, bere othoitz minez eta nigar marrazkez, bi kondenatu heien heriotzea. Zer etzuten egin ahaide desolatuek iharrostekotzat Marken eta Marzelien fedea! ordean San Sebastienen hitz sarkhorrek erakharrizituen leihal egoterat fedearen alderat: gehiagoden, konberti-arazi zituen hekin burasoak, emazteak era umeak; eta mintzarazi zuen muthu bat. Sendatzen zituen arimetako gaitzak bathaioaren bidez, eta gorphutzetakoak bere mirakuilluez.

San Sebastienek eragin zituen konbersionetan gehienik ederretsi behar duguna da Kromaze yuiearena. Kromaze hunek erakharri zuen bereganat Marken eta Marzeliennen aita, yakitekotzat hea eskuratu zituen bere bi semeak, eta hea utzi zuten Jesu-Kristoren errelijionea. Zer espantimendu yuie haren baitan entzun zuenean bi kondemnatuak etzirela batere erori bere familieen othoitz eta nigarretarat, ekharriak zirela gogotik pairatzerat heriotzea Jainkoaren ohoretan! Zer espantimendu oraino yuie beraren baitan yakin zuenean Marken eta Marzeliennen aita ere besarkatu zuela gure errelijione saindua! Buraso zuhur hark erran zion Kromazeri: milletan dohatsu gara ene semeak eta ni ezagutzeaz egia, eta Jesu-Kristoren errelijionea, ez denaz geroz, hartaz landan, salbamendurik. Yuieak erran zion: erhotu haiz naski zahartzerat: aita hark ihardetsi zion: ez naiz erhotu. Aitzitik, giriztino eginez geroztik hasi naiz zuhurtzen. Ez ahal da erhokeria handiagorik nik orai arteraino izan dudana, eta orai zuk duzuna baino. Baiki, utzten duzu egia, eta yarraikitzen zaizko gezurrari; nahiago duzu bizi zenbait egun bakharrez, ezen-

ez eternitate guzian. Yuieak erran zion aita hari: ezagut-araz diezadak bada egiazko errelijionea Jesu-Kristorena dela. Bertzeak ihardetsi zioen: bai, ene yuiea, eginen dut zuk galdetzen duzuna baldin entzun nahi bagaituzu ni eta Sebastien Jauna.. Etzen behar izan solas luzerik suntsi-arazteko zat yuiearen izpirituko ilhunbeak; laster ezagutu zuen fedearen argi salbagarria. Konbertitu izan ziren bera eta haren etxeko guziak; haren hamalau ehun gathibu ere izan ziren bat-haiatuak, eta libertatean emanak.

Persekuzioea aitzinatuz zohan Erroman. Yuie konbertitu berria hiri hartaz kanpoan bizi zen utzirik bere kargua, eta bere etxea, zeina baitzen giriztino persekutatuaren ihes lekhoa. Nahiko zuten erakharri Sebastiene ere etxe bererat persekuzioea yabal arteraino; ordean Erroman gelditu nahi izan zuen gure sainduak giriztino presondegitan zirenen laguntzekozat. Aita-sainduak eman zion hirian gelditzeko laudamendua. Beharrik zutela haren laguntza martiriorat kondenatuak zirenek. Aipatu dugun yuie konbertitu berriaren familia guzia kruelki izan zen tratatua. Batzuk ebakiak izan zituzten

buruak, edo izan ziren bizirik ehortziak, bertze batzu izan ziren itzatuak, edo artikiak itsasorat.

Martir hek guziek Sebastienen khar miragarriri zioten zor bere zoriona. Sebastienek yasan zuen berak ere handik laster martirioa. Berria hedatu zen konbertitzen zituela paganoak, eta gibelatzen giriztinoak adoratzetik idolak. Erregek erakharri zuen bere aitzinerat gure gizon saindua; erran zion esker gabe izatea zela yautsarazi nahi izatea haren buruaren eta haren erresuma guziaren gainerat paganoek adoratzen zituzten idolen punimendua, eta hedatzea haren palazioraino errelijione berri bat, erresuma guziarentzat kaltiar zena. Sebastienek ihardetsi zion enperadoreari errespektuekin, fagore handi bat zela harentzat eta haren erresumarentzat zerbitza zezan Jainko egiazkoa eta bakharra; etzela printze batentzat halako irabazirik nola Jainko faltsoen arbuiatzea, ez eta halako zerbitzari leihalik nola gauza guzien kreatzaille soberanoa adoratzen zutenak. Gaitzitu zitzaion Dioklezien enperadoreari Sebastienen solas zuhurra; estekarazi zuen zur bati, eta eman zuen manua hil zezaten fletxa kolpeka. Manu barbaro

hau izan zen konplutua. Irena alhargunak nahi izan zuen ehortzi, ondoko gauean, gure sailduaren gorputza; aurkhitu zuen bizi-bizia, eta altxarazi zuen bere etxerat. Sebastiene, sendatu izan zenean, athera zitzaion biderat enperadoreari, eta erran zion: zergatik utzten zara itsutze-rat? Nola eman dezakezu zure sinhetstea giriztinoen kontra erraten zaizkitzun gezurretan? Yakin ahal dezakezu ez direla zure etsaiak, eta hek direla zure zerbitzari hoberenak. On da yakin ezazun oraino laguntza handi bat aurkitzen duzula heien othoitzetan.

Dioklezien harritu zen entzuteaz gizon bat billa zadukana. Erran zion gure sailduari: hi haiz bada fletxa kolpez hil-arazi dudan Sebastien hura? Sebastienek ihardetsi zion: hura eta bera naiz. Jainkoak begiratu du ene bizia munduari emateko erakutsterat giriztinoen alderat egiten duzun inyustizia kruela: enperadorea eman zen egundaino baino sumindura handiagoan. Eho eta hil-arazi zuen, makillaz, Sebastien saildua. Haren gorputza Erroman aurkhitzen da.

Fabien Erromarra mirakuilluz izan zen altxatua aita-saildutasunerat: batzuk bat, bertzek

bertze bat nahi zuten aita-saindutzat. Guziak laster konpuntu ziren ikhusi zutenean yautsten zerutik uso bat Fabienen buruaren gainerat; ordu beretik abiatu ziren, boz batez, erraten Fabien izan behar zela aita-saindu. Fabienek egin zituen, bere egin ahalak ihes egitekotzat halako ohoreari; ordean ezin hartarik gibelatu zen. Fabienen khar saindua seinalatu zen denbora guzietz, eta beregainki bizitze gaixtoa zaraman aphezpiku baten alderat. Sainduki gobernatu zuen ondoan eliza, hama-hirur urthez: pairatu zuen martirioa.

San Nikolas Aphezpikua

San Nikolas Mirako aphezpikua, famatua da bere berthute distiosen eta bere mirakuillu handien ariaz. Patarra daritzon Asiako hiri batean sorthu zen. Aberatsak zituen burasoak, eta denbora berean, osoki prestuak. Etsitu zuten izateaz sekulan haurrik; ordean Jainkoak nahi izan zituen saristatu heien prestutasuna, eta egiten zituzten amoina handiak. Izan zuten haur bat zeruak sortzetik fagoratu zuena bere benedikzione bereziaz; ezen errana da etzuela hartu nahi bulharrik azte-azkenetan eta ortzilaretan. Iduri du barurtu nahi zuela azteko bi egun baten. Osaba zuen Mirako aphezpikua. Osaba, hau eskerren bihurtzen hari zela ikhustezaz primu bat bere familian, Jainkoak eman zion ezagutzerat haur hura izar arraiotsu bat izanen zela, eta argituko zuela mundu guzia bere berthuteaz.

Burasoek eskolatu zuren arthoski Jainkoak eman zioten benedikzinezko umea. Nikolas gazteak laster ikhasi zituen haren adinari zagozkon gauzak, eta yarraiki zitzaion beregainki sal-

bamenduko bideari. Etzuen, batere lakhet haurreen dostetetan; nahi bazioten atseginik egin, eraman behar zuren elizarat. Miretsteko da bortz urthetako haur batek izan zezan zuen bezainbat Jainkoaganako amudio, eta errespektu gauza sainduentzat. Eman zitzaion istudioari, eta nola izpirituz bethea baitzen, eta ez baitzuen deusere gazterik adina baizik, ardietsi zuen yakintasun hedatu bat. Haren saindutasuna emendatuz zohan gerotik gerorat. Ernetasun eta modestia hainitz aurkhitzen zen haren haitan, hargatik zen ere ekharria etsenplutzat. Galdu zituenean bere buraso maiteak, ikhusi zuen bere burua aberatasun guzien erdian etzuen hargatik deusere galdu bere prestutasunetik; aitzitik Jainkotiarra-go agertu zen.

Gure saindua yakintsun zen Mirako aitoren seme batek largatu gogo zituela gaitskirat bere hirur alaba ez izanez sortzeak ematen zion araberako ontasunik hekin dothatzeko. Zer egiten du herstura hartan? Bethetzen du rnoitza haturrez, eta artikitzen du gauaren erdian, eta ixillik, aita desolatu haren gelarat. Zer nahikarazko espantimendu buraso harentzat aurkhitzeaz

bere alaba zaharrenaren ezkontzeko behar zen diru guzia! Ezkondu zuen berehala, agindurik bere buruari probidentziak artha bera izanen zuela haren aizpez. Etzen tronpatu; ezen gure sainduak artiki zuen arrats hartan berean bertze haren bertze diru haren gelarat, eta ezkondu zen bigarren alaba. Aita dohatsu hark sinhetsi zuen errexki dirua bietan egortzailleak egorriren zioela oraino hirugarren alabaren dothea, eta nahi izan zuen ezagutu bere ungi egillea; hartakotzat eman zen zelatan. Nikolasek artiki zuen, gau minean, hirugarren aldikotzat gela bererat, bere amoina. Buraso hura lehiatu zen harengana, besarkatu zuen, eta bihurtu ziotzon eskerrak egin zion laguntza miragarriaz: gure sainduak damu hartu zuen ezagutua izateaz: othoitztu zuen aita hura sekretuan idukitzeaz haren amoina. Aitoren semeak agindu zion etzela mintzaturen harenganik zuen fagoreaz; ordean ezin egon zen ixillik. Biharamunekotzat hiri guziak yakin zuen Nikolasek egin zuen karitate ohoragarriaren berria.

Jainkoak elizaren ohoratzeko zadukan gure saindua. Mirako aphezpikuak ezaguturik haren

berthutea eta yakintasuna, eman zion aphezta-
suna. Dignitate hunek eman zion distiadura berri
bat haren merezimenduari. Debozionaek era-
man zuen haren osaba aphezpikua lur saindurat,
utzirik bere diozesa bere ilhobaren artharen
azpian. Gure sainduak gobernatu zuen diozesa
hura hunenbat zuhurtzia eta edifikazionerekin
non nahiko baitzuten ikhusi aphezpikutasunerat
altxatua. Hil zitzaionean osaba, S. Nikolas urrun-
du zen hiritik beldurrez izenda zezaten aphezpi-
kutzat. Deusek ere etzuen hala ikharatzen nola
aphezpikutasuneko kargu eder eta pisuak. Ira-
gan nahi izan zen Palestinarat, eta sarthu zene-
ko untzian, erran zion pilotuari xirimola, edo ten-
pesta izigarri hat altxaturen zela arte laburrik
barnean. Hala gerthatu zen. Marinelek etsitu
zuten biziak: izan zuten errekoritsu Nikolasen
othoitzetarat. Othoitzean eman zen bezain sarri,
aphazegatu zen fuerakana, eta edertu itsasoa.
Ez da beraz miretsteko baldin marinelek ezagu-
tzen badute gure saindua bere patrointzat, eta
bere arartekotzat, eta othoitzten badute itsaso-
ko hirriskutan. Ibilli ondoan Palestinan barna lur
sainduen ikhusten, bihurtu zen Mirako hirirat

ezagaturik hala zela Jainkoaren nahia. Sarthu zen komentu batean, han iragateko, bere uztez, bere azken egunak ixiltasunean eta penitentzia dorpheenetan; ordean bertzetako zadukan probidentziak.

Hil zenean Mirako aphezpikua, probintziako aphezpikuak bildu izan ziren hiri hartarat izendatzekotzat haren ordaina. Hekin arteko sainduenetarik batek ikhusirik ezin konpunt zitezkeiela hautuaren gainean, erran zuen, sustatua zelarik izpiritu sainduaren kharraz, Jainkoaren nahia zela hauta zadin Mirako aphezpikutzat biharamunean elizan lehenik sarthuren zen aphez saindu bat. Nikolas gerthatu zen aphez saindu hura. Ethorri zen argitu orduko elizarat yakin gabe zer iragan zen aphezpikuen bilkhuan. Guziak loriatu ziren ikhustiaz Nikolas behar zela Mirako aphezpiku. Alferreran eman nahi zitzaion ihesari, hartu behar izan zuen, bere borxa, eta mundu guziaren bozkario handitan, zeruak harentzat zadukan dignitatea. Izan zeneko kontsekratua, emazte batek eraman zion haur bat surat eroririk errea. Aphezpiku berriak etzuen egin gurutzea-

ren seinalea baizik, eta haur hura biztu izan zen han aurkhitzen ziren guzien begietan.

San Nikolas lehiatu zen bereganatzerat egiazko aphezpiku bati dagozkon merezimenduak, eta ahalik hobekiena bethetzerat bere eginbide guziak. Aldareen oinetan zaramatzen gau gehienak othoitz egiten beretzat eta bere populuarentzat. Etzuen behinere ofrendatzen mezako sakrifizio saindua non etzuen kanporat erakutsten barnetik sustatua zen khar sakratua. Pobreentzat zituen bere ontasun guziak. Hura aurkhitu nahi zuenak elizarat, presondegitarat eta hospitaletarat egin behar zuen bide. Sarkhorraren zen bere predikutan: haren diozesa azpikoaz gora itzulia izan zen urthe baten buruko. Barurtzen zen, bethidanik, aztean bietan, ordean aphezpiku egin izanez geroz, barurtzen zen egun guziez.

Saindu baten fermutasuna behinere ez da hala ageri nola errelijioneaz dohanean. Martirioak etzuen batere lotsatzen gure Nikolas handia: arbuiatzen zituen paganoen dixiduak. Eman zuten burdinetan, eta egorri zuten desterrurat. Zer etzuen pairatu errelijionearen etsaieen par-

tetik! Bihurtu zen denboraekin bere elizarat, eta erakutsi zuen egundainoko Jainkozko khar bera. Nork erran zenbat zituen urrikari dohakabeak! Solasean zatzala hiriko athean armadako hirur aitzindariekin, erran zitzaion hiltzerat zaramatzatela hirur presuna hobenik gabeak. Badoha, lehia guzien, bizia galdu behar zuten lekhurat: aurkhitzen-tu hirur dohakabeak begiak estaliak, eta burreua heien buruak ebakitzerat zohala. Ederrets dezagun gure sainduaren kharra! khen-tzen dio burreuari sabrea eskutarik, eta adi-araz-ten dio yuieari hirur dohakabe hek etzutela egin gaitskirik; abarizioak eta gaixtakeriak erakharri zutela hekin gal-arazterat eta merezi zukeiela berak izatea punitua. Yuiea beldurtu zen bere-tzat, eta eman zituen kondemnatu zituenak bere libertatean.

Mirako atheetan S. Nikolasekin solas egin zutenak izan ziren, zuzen kontra, akusatuak eta heriotzerat kondemnatuak. Ezarri zuten bere fidantzia gure sainduaren arartekotasunean: etzuten izan urrikitzeko biderik. Konstantin enperadoreak egin zuen amets San Nikolas agertu zitzaioela, eta mehatxatu zuela zeruko

zigorradaz baldinetariak ez bazituen ematen hirur aitzindari kondemnatuak bere libertate guzian. Enperadoreak hautsi izan zuen hekin kontra ekharria zen sententzia kruela. Untzi bat ondorat zohan aldi batez, marinelek othoitztu zuten gure saildua izateaz hetaz urrikalmendu. Sarthu zen berehala untzi hartan nihork ikhusi gabe, eman zen bera leman, eta eraman zuen Mirako porturat. Zenbat bertze mirakuillu handi etzuen obratu Nikolas sailduak! Jainkoak nahi izan zituen khoroatu bere loriaz haren berthuteak, eta nekheak: yakintsun egin zuen bere heriotzeko egunaz eta orenaz: egin ziotzon populuari bere azken adioak. Hartu zituen sakramenduak, eta agertu zen deseantsuki bure Jau-naren aitzinerat. Thonba eder batean izan zen ehortzia, eta ilkhitzen zen handik ur mirakuilluzko bat eritasun guziak sendatzen zituena. Orai Italian aurkhitzen da San Nikolasen gorphutza. Ohoratua da manera berezi batean, eta obratzen du, egunoroz, zenbeit mirakuillu berri.

Yaun-doni Martia

Yaun-doni Martia Hongriako zen ethorkiz: idolatreak zituen burasoak. Aitak nahiko zuen gibelatu Jainkoa adoratzetik; ordean ezin egin zuen. Martin, haurdanik, bathaiatua izateko nahi handian bizi zen. Sarthu zen hamabortz urthetako enperadorearen zerbitzuan. Bizitze saindu bat zaraman hartu zuen ofizio lerragarrian giriztino etzen arren. Pobreen alderako karitateak egiten zuen beregainki haren berthute maitea. Sartzen zelarik Amiens daritzon Frantziako hiri batean, bathu zuen pobre eskaille bat, guzia bulhuzia, eta hotzak erdi hilia. Dirurik gabe aurkhitzen zen, eta etzion bihotzak ematen utzteka pobre hura laguntza gabe. Erran behar da urrun hedatzen dela karitatea! Martinek hartzen du bere ezpata, egiten du bere kapa bi zathi, eta ematen dio haren erdia pobre urrikgarri hari. Lagunek ikhusi zutenean Martin kaparen erdiaz estalia, abiatu ziren hartaz burlatzen; etzen bizkitartean egundaino izan orduan bezain berreginko emana; ezen kapa ondar hark ematen zion karitateari

datxeikon distiadura guzia. Etzuen deusere galdu laguntza haren egiteaz, aitzitik zer etzuen irabazi? Jesu-Kristo agertu zitzaion, ondoko gauean Martini, erraten ziotelarik ingurutan zituen aingeruei: Martin, oraino bathaiatua ez denak eman darot yaunstura hau.

Martinen bihotza ezagutzaz bethea izan zen Jesu-Kristoren alderat. Eman zion bere gogoan utzi behar zuela lurreko erregeen zerbitzua sartzekotzat zerukoenean. Izan zen bathaiatua, eta galdegin zuen zerbitzutik atheratzeko laudamen-dua: galde hura egin zuen armada gudukatu behar zen denboratsuan. Erran zitzaion izitua zela, eta etzuela animorik utzi nahi zuenaz geroz gerlako ofizioa gudukatu behar zen orduan. Martinek ihardetsi zuen: begira nazazue hurbildik guduko eguneraino, eta eman nazazueke armada guziaren aitzinean; ez dut bertze harmarik nahi, baizik gurutzearen seinalea, orduan ikhusi-ren duzue animorik badudan, ala ez; ezagutuko duzue ez dudala etsaiaren, ez eta herioa beraren beldurrik; gauzak etzuen izan lekhurik. Etsaiek galdetu zuten bakea, eta bihurtu ziren bere herritarat. Eman zitzaion Martini armada utzteko

laudamendua, eta yarri zen oso-oso Jesu-Kristoren zerbitzuan.

San Hilario Poitiersko aphezpikuaren saindutasunaren fama hedatu zen Martinen beharritar; yarri zen nausi handi haren azpian, eta aitzinatu zen berthutean. Jainkoak ezagut-arazi zion konbertitu behar zituela bere burasoak; eman zen beraz bidean bihurtzeko bere herrirat. Alpetako menditarik iragaren zela erori zen ohoinen eskutarat; hetarik batek arraillatzer zioen burua, altxatu ere zuen besoa: dohatsuki, bertze batek begiraru zuen kolpe kruel hartarik. Ohoinek amarratu zuten gure saindua, eta eman bere arteko lagun baten goardiaren azpian; gaixtagin hunek galdegin zion Martini nor zen; Martinek ihardetsi zuen: ni naiz giriztino bat. Gaixtaginak erran zion: nonbeit zure beldurra ez bide da arina. Gure sainduak ihardetsi zuen: ene Jainkoa aurkhitzen da behar ordu guzietan, eta ez dut egundaino izan orai baino beldur gutiago. Hunea mintzatzeko fermutasun laudagarriak hautsi zuen hura zaindu behar zuenaren bihotza. Utzi zuen ordu berean bere ofizio gaixtoa, eta sarthu zen fraide penitentzia egiteko.

Martinek konbertitu zuen bere ama, ez ordean aita. Ezin egundaino eskuratu zuen buraso zahar eta buru gogor hura. Ariena heretikoak bekaxtu zitzaizkon gure fedearen fagoretan agertzen zuen khar miragarriari; azotarazi zuten mundu guziaren bistan, eta khendu zuten aurkhitzen zen lekhotik. Eman zen Milango komentu batean; khendua izan zen handik ere; sarthu zen mortuan, eta basa belhar xoilez bizi izan zen lekhu agor hartan. Denboraren buruan, bihurtu zen Frantziarat San Hilario bere nausi ohiarenganat; eragin zuen Poitiers hiritik hurbil komentubat; sarthu zen bera ere han, eta bizi izan zen saindutasun guzian.

Hil zenean Toursko aphezpikua, artiki zituzten begiak Yaun-doni Martiaren gainerat haren izendatzeko hiri hartako aphezpikutzat. Guziek bazakiten ohore era handitasunen ihes zabillala: atherarazi zuten komentutik eri baten ikhusteko estakuruan, eta bortxatu zuten aphezpiku izaterat. Martinek ezinbertzez ikhusi zuen bere burua kargu handi hartarat altxatua. Bethetzen zituen zorrozki aphezpikutasunari datxeizkon eginbide guziak, eskasik batere egingabe fraide saindu

batek konplitu behar dituenetan. Zenbat mirakullu etzuen obratzen gure sailduak? Artikularazi nahi izan zuen lurrerat haritz lodi bat paganoek etsai gaixtoari konsekratua. Pagano batek hartaz burlatzeko erran zion berek ebakiren zutela haritz hura nahi balin bazuen hartu bizkarrean lurrerako zenean. Nola Jainkoa baitan fidantzia handia baitzuen gure sailduak, iharde-tsi zion hartaz burlatzen zen paganoari eginen zuela hark zioen bezala, utzi ere zuen bere burua amarratzerat haritza erori behar zen lekhu berean. Giriztinoak ikharatu balin baziren beldurrez gal bere aphezpiku saildua, hala-hala, paganoak bozkario guzietan ziren uzte zutelokan hiltzerat zohala zuten etsayik handiena. Yaun-doni Martiak etzuen egin eskua altxatzea, eta bere burua seinatzea baizik, haritz lodi haren gaineraterortzerat zohana erori zen bertze alde-rat; sendatu zuen lepradun bat musu emanik; aski zen ukitzea haren soinekoak, iskribatzen zituen guthunak edo letrak, edo haren etzantzaren lastoa, eta ordu beretik, sendatuak ziren gaitzik zaharkituenak.

Yaun-doni Martiak nahiko zuen ardietsi enperadorearen laguntza buru eta gudu emateko heretikoei; ordean enperadorearen emazteak etzuen utzi palazioan sartzerat. Zenbeit egunen buruan, iragan zen, aingeru baten manuz, goardiaria guzien erditik, nihork ikhusi gabe, eta hedatu zen enperadorearen gelarat: printze hark etzion egin, hastean, begitarterik batere; ordean ikhusi zuenean bere burua bet-betan suz inguratu, altxatu zen bere alkhitik, besarkatu zuen aphezpiku saildua, eta bihurtu ziotzon ohorerik handienak. Yar-arazten zuen bere mahainean, eta bere aldean. Ekhartzen ziotenean edateko basoa, eman-arazten zion lehenik Yaun-doni Martiari, berak haren ondoan edatekotzat. Aphezpiku sailduak gehiago zadukan bere diakrea ezen-ez enperadorea, printze hari baino lehen eskaintzen zion bere diakreari edateko basoa. Gure sailduaren egiteko moldeak etziztaion batere gaitzitu enperadoreari; etzuen aitzitik laudoriorik baizen hartaz. Enperadorearen emazteak eman zion Yaun-doni Martiari othuruntza bat bere eskuz aphaindua, eta berak zerbitzatu ere zuen mahainean. Zer ikhusgarri

aphezpiku pobre bat, arrotza, gaitski emana soinean zerbitzatu aurkhitzen da printzesa handi batez! Ala askotan, mundu huntarik beretik ohore hainitz baidarraio saindutasunari!

Yaun-doni Martia zuzentasuna bera zen; etzuen nihor arinki yuiatzen eta kondemnatzen; nihork etzuen behinere ikhusi aserre, ez eta puntzu. Bethi orobat zen boz eta allegera. Etzen mintzo hitz edifikagarrienen errateko baizik. Entzun zueneko bazela zenbait eskatima haren diozesako eliza batean, zer lehiarekin etzen harat hedatu izpirituen baketzerat! Ezagutu zue-nean gutitzen zitzaizkola indarrak, etzan zen ahoz gora lurrean ikhustekotzat hain maite, eta hanbat bilhatzen zuen zerua. Haren dizipuluak nigarretan zauden haren ingurutan: nahi izan zuten eman lasto guti bat haren azpian; ordean aphezpiku sainduak etzuen nahi laguntza arin hura ere: berantetsia zadukan bere Jainko maitiaz gozatzeko oren dohatsua, halarik ere, huna nola mintzatu zen, bihotza zerurat altxatzen zue-larik baldin, Jauna, ene populuak ene beharrik badu, ekharria naiz nekhea yasaterat, egin bedi

zure nahia. Jainkoak saristatu zituen gure sainduaren berthute miragarriak deithurik beregana.

Yaun-doni Martiaren gorputza egon izan da osorik, lau ehun urtez, Toursko elizan mundu guziaz ohoratua. Hukanotek erre zuten ondikoz! erleki preziatu hura Toursko hiriaz yabetu zirenean. Gelditzen da oraino hiri hartan berean haren besoko hezurra.

San Agustin aphezpikua eta doktora

San Augustin aphezpikutasunaren ohorea, eta mundu guziaren argi distiosa, sorthu zen Afrikan. Patrizie zuen izena haren aitak, eta Monika haren amak. Gaindi egina zen izpirituz: guti istudiatzen zuen lehenbiziko urthetan, halarik ere ikhasten zuen nahi zuen guzia. Ama sainduak egin zituen egin ahalak bere semea Jainko legean altxatzekotzat; ordean pasionek zoraturadukaten Augustin handia. Etzuen bere burua baizik aditzen. Libertate sobraniatzko batek gaixtatu zuen haren bihotza: eman zitzaion arras libertinkerari. Bere sor lekhuari egin zituen lehenbiziko eskolak. Egorri zuten gero Kartajerat. Ezagutzak egin zituen hiri hartako gazte bera bezalako deserregelatuekin. Ala gostatzen baitzitzaion Monika sainduaren errelijioneari ikhustiaz bere semea bide gaixtoan! Bere zoramendu guziaren erdian, Augustin orhoitzen zen, noizetik noizerat, bere ama prestuaren hitz eta abisu zuhurrez, eta haren bihotz gaixtatua iha-

rrosua aurkhitzen zen, denbora gutirentzat bazen ere. Bethidanik bazuen berthutearen alde-rako yaiduraren funts bat. Damu gaixtorik utzi zituela pasioneak nausitzerat. Atseginekin irakurtzen zituen Zizeronen obra ederrak; ordean berak erraten daroku hetan ezagutzen zuela eskas bat zeina baida ez aiphatzea Jesu-Kristoren izena. Libertinkeriarri emana denak errexki egiten dio prestutasunari ukho. Hala gerthatu zitzaion Augustini. Sarthu zen Manikeenak deitzen ziren heretikoengano galkhorretan, berak aithortzen zuelarik arren sentsu onaren kutsurik etzela heien arrazoinamenduan.

Monika saindua etzen behinere baratzen Jainkoari othoitz egitetik bere semearen fagoretan; errekeritzen zuen urrikalmendu izateaz haren arimaz. Deklaratu zion bere bihotz mina aphezpiku saindu bati, zeinak kontsolatu baitzuen erraten zioela: zohazi, ene alaba, egitzu gerorat ere orai arteraino bezala, othoitzak eta nigarrak, eta ez da izanen errana galdu dela ume bat hanbat nigar gozo gusta dena. Ezin erran daite zenbatetaraino hedatzen zen Augustinen yakintasuna. Erhetorika irakhats zuen Erroman, Kartajen

eta Milanen: bereganatzen zuen guzietan munduaren admirazionea. Sarthu zeneko Milango hirian, lehiatu zen ikhusterat Ambrosio hango aphezpikua. Gizon saindu hunek hartu zuen haren bihotzaren irabazteko gai zen arraitasunarekin. Augustin bazabillan Ambrosioren predikutarat, eta laster sentitu zuen bere kontzientziako harra. Ordukotzat konfunditu zuen Manikeen arteko aphezpikurik famosena elkharrekin izan zituzten solasetan: arbuiatzen zuen heresia hura. Oxala emazteki dohakabe batekin zaraman bizitze gaixtoak ez balu gibelatu besarkatzetik erreligione katolikoa; zakien arren hura zela baxharrik egiazkoa!

Monikak etzuen nihon sosegurik bere semea gabe; hedatu zen Milanat agian Jainkoarenganako zuela Ambrosio sainduaren laguntzarekin. Aurkhitu zuen bere seme maitea, ez, (egia da) pulunpatua lehen bezala Manikeeneen heresian; ordean oraino giriztino egin beharra. Amaren othoitz minek, eta Ambrosioren hitz sarkhorrek erakharri zuten Augustin handia solasean sartzerat Sinplizien zaritzon aphez prestu batekin. Sinpliziene mintzatu zitzaion zaraman bizitze gaix-

toaz, eta konbertitzeko zuen premia handiaz. Kordokatua aurkhitzen zen Augustinen bihotza: bazakien, sentitzen ere zuen etzela bide onean; nahi zen konbertitu; ordean etzitzaion behinere finki lothzen obra handi hari.

Aliperen eta Augustinen adiskide Pontizien deitzen zenak, ediren zuen liburu sail bat Augustinen gelako mahainaren gainean. Jainkotiarra zen adiskide hura, atsegin hartu zuen liburu on hura han edireteaz. Mintzatu zitzairen bi adiskide heit liburu sail hark eragin zituen konbersio ederre, ekharri ere zituen etsenplurik ukigarrienak. Pontizien bere etxerat bihurtu zenekotz, Augustin altxatu zen bere lekhutik bihotza graziaz sustatua zuelarik, eta erran zion Aliperi: zer hari gare, ene adiskide maitea? Zertan daramagu gure denbora? errana izanen da bada deuseren ez dakiten batzu sarthuko direla zeruan, eta gu, gure yakintasun guziarekin lurrean herrestan ibilliko garela? Zer bada? zeren gu baino zuhurrago izan diren, eta zeren aitzindu gaituzten, hori izanen da arrazoin edo estakuru bat ez heit yarraikitze? Horrekin batean badao, hitzik erran gabe, baratzerat; Ali-

pek ere hartzen du bide bera, baratzearen bururat zirenean, Augustinek utzten du bere laguna, artikitzen du bere burua lurrerat, eta mintzo da hunela nigar marrasketan: *noiz arteraino, Jauna, noiz arteraino egorriko dut bada biharamunerat egun egin ahal dezakedana? Zergatik ez dut orai berean eginen bihar egin dezakedana?* Hitz hauk erratearekin entzun zuen zeruko boza bat zioena: *har zazu, eta irakur azu, har zazu eta irakur azu.* Augustinek ez du hain laster entzuten boza hura non altxatzen baida lurretik, eta baidoha Alipegana: hartzen du eskutarat adiskide haren aldean utzi zuen Yaun-doni Paulen guthuneen edo epistolen liburua, zabaltzen du, eta begitarat heldu zaizko hitz hauk: urrun zaite libertinkeriatik, plazer lizunetarik, eta eman zakizko Jesu-Kristori. Hura izan zen oren dohatsua Augustin bere konbersioneari finki lothu zitzaiona. Alipe ere itzuli zen, ordu berean, Jainkoaganat. Era-man ziotzoten bere berri kontsolagarriak Monika sainduari. O! zer bozkario ama bihotz onetako, eta Jainkotiar harentzat!

Augustin urrundu zen hiritik largatzekotzat bere burua oso-osoa othoitzari; yarraiki zitzaion

Alipe bere adiskide maitea. Handik laster batak eta bertzeak errezibitu zuten bathaioa Anbrosio sainduaren eskuz. Augustinek bazituen ordu hartan hogoi eta hama hirur urthe. Gaitz zitzaion mundu-pean salbatzea. Bilhatu zuen Afrikan lekhu gisako bat penitentzia, eta nigar egiteko bere bekhatuez. Monika nahiko zitzaion yarraiki bere seme maite, eta egundaino baino maiteago zuenari; ordean Jainkoak deithu zuen beregana. Semeak minki auhendatu zuen bere ama maitea, hanbat nigar harengatik isuri izan zuena. Emazte saindu hura hil izan zen Ostia darirzon hiri batean. Handik hirur urtheen buruan, Augustinek nahi izan zuen konbertitu Hiponako hirian bere adiskide bat: hura zen aitoren seme handi bat, merezimenduz bethea, eta gure sainduaren galdea zuena. Balera Hiponeko aphezpikuak yakin zueneko Augustin hiri hartan zela, erranzion populuari bazuela aphez baten beharra bere eginbideen bethetzekotzat. Hiri guziak bazakien Augustinen berthutearen eta yakintasunaren berri, eta guziek hura nahi zuten aphezpikuaren aphez laguntzaille; ordean ezagutzen zuten gure sainduaren humiltasuna; beldur ziren beraz

etzuela izan nahiko altxatua apheztasunerat. Zer egin zuten? hartaz yabetu ziren eliza bethean batere entzun gabe haren arrazoinak ez eta othoitzak. Augustinek eman behar izan zion bortxari amor: ordenatua izan zen aphez Baleria aphezpikuaz.

Gure sailduak eragin zuen komentu bat Hiponeko hirian: bildu zen harat mundutze handi bat batean bizitzerat pobrezian, barurean eta othoitzean. Explikatu zuen konzilio batean fedearen sinbola hunenbat yakintasunekin, non altxatu baitzuten, bere bortxa, aphezpikutasunerat. Heretiko guziak laztu eta ikharatu ziren entzun zutenean San Augustin aphezpiku zela: arrazoin ere bazuten; ezen yazarri zioten khar saildu batekin. Hartaz mintzo zen mundu guzia: orakle batentzat zadukaten bazter guzietan.

San Augustinen humiltasunak etzion deusere zor haren yakintasunari. Ez bide da gizonik hark baino gehiago beheratu duenik bere burua. Orhoitzen zen bere ez deustasunaz, eta etzitzazkon behinere ahantzten bere gaztetasuneko zoramenduak. Humiltasunak erakharri zuen egi-terat bere kofesioeen liburua: nahi zuen yakin-

tsun egin mundu guzia bere gazte denborako flakeziez, eta suntsi-arazi bere saildutasunaren fama zuzen-bidezkoa.

Hiponako hiria izan zen armada handi batez sethiatua. Baziren aphezpikuak bere elizak, eta populuak utzi zituztenak etsaieen beldurrez. Bertzela egin zuen San Augustinek, etzen behinere hastandu bere populu maiteaganik. Erakhartzen zuen bihotza Jainkoaganat altxatzerat; eta berak nigarretan zaramatzen gau egunak. Othoitzten zuen Jainkoa ez guphidetsteaz artzaina, eta begiratzeaz ardiak. Ezagutu zuenean hiria erortzerat zohala etsaien eskutarat, errekeritu zuen Jainkoa arren eraman zezan mundu huntarik ikhusi gabe egun dohakabe hura. Entzuna zaren haren othoitzza: hil izan zen etsaiak Hiponako hiriaz yabetu gabe. Hartu zituen sakramenduak fede bizienarekin, eta Jainkoaren alderako amudio khartsuenarekin. Haren gorputza Italian da, Paviako hirian.

San Frantzes Sales, aphezpikua

San Frantzes aphezpiku Jainkotiar eta khar-tsua, Saboyako etxe zahar eta ohorezko batetarik ilkhitzen zen. Sorthu zen Salesko yauregian. Bere amak altxatu zuen Jainkoaren amudioan, eta beldurrean. Laster seinalatu ziren seme miragarri haren berthute ederrak. Etzuen lakhet bere haur lagunen dostetetan. Erakutsi zuen, haste-hastetik, pobreen alderako urrikalmendurik laudagarriena. Ematen ziotzoten bere atseginetako burasoenganik izaten zituen diruak, eta ezin egin ziozoketenean bertze laguntzarik, khentzen zion bere buruari yanariaren parte bat hekin sokhorritzekotzat. Izpiritua bizia zuen, solidoa eta zorrotza berenaz, kortesa zen, eta ederki mintzo zen. Ez da beraz miretsteko baldin elizak zuen aphezpiku argituenetarik eta saindue-netarik izan bada.

Aita amek egorri zuten Frantzes eskoletarat Parisat. Ikhasi zuen izpirituaren argitzeko behar den guzia; etzuen gutiago ikhasi salbamendurat

daraman bide dohatsua. Haren bizitze sailduak edifikatzen zituen eskoletako lagun gazteak, komuniatzen zuen zortzitik zortzirat, eta erabil-tzen zuen larruaren gainetik ille latzezko athorra bat, edo zilizio bat, aztean hirur egunez. Botu egin zuen begiratzeko garbitasuna bere bizi guzian. Etsai gaixtoa bekaxtu zitzaion Frantze-sen inozentziari; yazarri zion alde guzietarik. Azkenaz goiti, eman zion burutarat damnatuko zela, zer nahi egin zezan zeruratzekotzat. Ifernu-ko tormenteen orhoitzapenak laztu, eta ikharatu zuen gure saildua: nihon etzuen deskantsurik, eroria zuen bihotz guzia, hiratua zen gogoetarik ilhunenez eta desolagarrienez. Herstura urrikal-garri hartan zelarik, begiak hedatu zituen Birjina sailduaren imayina baten gainerat, eta erran zuen khar saildu batekin: aski dohakabea izan behar banaiz gabetua izateko Jainkoaz gozatze-ko zorionaz mundu huntarik lekhora, nahi dut bederen izan, bizi naizeno, haren maitatzeko kontsolamendua. Othoitz labur eta bihotzetik heldu zen hunek suntsiarazi zituen sathanen tentamendu zoragarriak, eta erakharri zituen bakea eta fidantzia gure sailduaren bihotzerat.

San Frantzesek izan zuen bigarren asaldura bat haren berthuteari ohore egin zioena. Bere lagunek eman zuten behaztopatzeko biderik lerragarrienean. Yakin nahi izan zuten noraraino heltzen zen haren garbitasuna. Eraman-arazi zuren emazteki mundutiar, antzetsu eta debota- ren itxura egiten zuen batenganat, eta utzi zuten harekin bekhoz bekho. Sathan baliatu zen krea- tura dohakabe haren artificio, eta itzuli gaixto guzietz gure sailduaren alderat. Ederrets deza- gun Frantzesen berthutea, ikhusi zuenean ezin libra zezakeiela bere burua emazteki galdu haren persekuzionetik, etxatu zion itxendi bizi bat bisaiarat, eta eman zitzaion ihesari. Hasi zen ordudanik urruntzen geroago eta gehiago gazte lagunetarik, eta doblatzen bere penitentziazko obrak.

San Frantzes izan zen altxatua ordena sakra- tutarat, eta aitzinatuz zohan haren prestutasu- na. Abiatu zeneko predikatzen, hartaz zuen solas mundu guziak. Ez ahal da izan egundaino predi- karirik hura bezanbat atseginekin entzun denik, eta hark bezanbat salbamenduko fruitu erakha- rri duenik. Hartaz errana da eskuratzen ziruela

bihotzik gogorrenak, edo haren baitan seinala-
tzen zen saindutasunaz aldarean zenean, edo
bere bokantza ederraz eta hitz sarkhorrez predi-
katzen zuenean. Nolakoa etzen haren Jainkozko
kharra! Etzakien non bara; etzuen ezagutzen
harriskua proximoaren salbamenduaz zohanean,
Heresiak desmasia handiak egin ziruen Saboya-
ko probintzian eta inguruan. Lurrerat artikiak
ziren elizak, komentuak eta gurutzeak: zer
bihotz min gure sainduarentzat! Nekheaz eta
gizonen beldurraz gorago zen errelijioneari
ekhartzen zion amudioa, yasatera: zagon idoi
eta dorphetasun ethor ahal guziak sendatzeko-
tzat Jesu-Kristoren elizari egin zitzaizkon zauri
handiak. Emetasuna, pasientzia eta modestia
ziren haren harma bakharrak; etzuen bertze
deuseren beharrik Kalbinistei buru egiteko, eta
gudu emateko. Eskuratzen zituen emeki-emeki
hetarik thematuenak berak bere arrazoinamen-
du zuhurraz, eta bere itzeen gantzuduraz: horra
zergatik erran izan duen Kardinale batek etzela
gauza gaitza ezagut-araztea Kalbinistei ez doha-
zela bide xuxenaz; ordean San Frantzes Sales

bezalakoia izan behar zela hekin konberti-arazteko.

Kalbinisten ministreak ziren gure sailduaren etsayik errabiatuenak. Debekatzen zuten, egin ahal guzian predikatzetik Jaunaren hitz salbagarria; ordean alferretan hari ziren: bere kharrak bazaraman, San Frantzes guzietan predikatzerat. Askotan etzioten erran nahi leyhorrik etxetan, eta iragaten zituen gau osoak oihanetan.

Saboyako aitoren seme batek ikhusirik here-tikoek nahi ziotela San Frantzesen biziari, eskaini ziotzon laguntzak; ordean gure sailduak ihardetsi zion apostolu bezala, eta nihor gabe, sartu zela herri hetan, eta hala nahi zuela egon. Haren obra miragarrien ospea hedatua zen alde guzietarat. Aita-sailduak gaztiatu zion heltzeaz Genevarat arrazoinatzekotzat errelijionearen gainean huganot famatu batekin; laster erakharri zuen ezagutzerat bere enganioa. Errana da etzirela zazpi katholiko baizik Thomango hiri guzian San Frantzes harat zenean, eta konbertitu zituela han berean sei milla arima, eta hirur hogoi eta hamabi milla alde hetako herritan. Miretsteko da nola gizon bakhar batek egin ahal

zezakeien hanbat konbersione, eta nola haren gorphutzak yasaten zuen hanbat nekhe. Artha handi bat zuen erien ikhusteko; etzen gelditzen kofesatzetik ilhundu arteraino; berak zaramatan sakramenduak eri gaitski zirenetarat, hain gogotik etxolarik eta bordarik erromesenatarat, nola palaziorik ederrenatarat. Pobreak eta aberatsak bat ziren harentzat; orobat zen humil, arrai eta khartsu guzien alderat.

Horra nolakoa zen San Frantzes Sales izan zenean altxatua aphezpikutasunerat. Aita-sainduak behatzen zion Saboyako apostoluari bezala; admiratzen zuen bere denborako argituenetarik bat bezala, eta ohoratzen zuen elizak orduan zuen saindurik handiena bezala. Yoan behar izan zuen Pariserat errelijioneko egitekoz. Erregek egin zion saindu bati dagokon begitar-tea. Ohoratu zuen bere estimuaz, eta bere fidantziaz; eskaini ziotzon benefizio handiak, hala nola Parisko arxaphezpikutasuna; ordean etzuen nahi deusere halakorik, egia da bada erregeren alabak behartu zuela hartzerat haren lehenbiziko aumoniertasuna: eman ere zion diamant bat hagitz balio zuena erraten zioelarik: ematen

darotzut diamant hau begiratzekotan ene amo-
reagatik. Gure sailduak ihardetsi zion: bai, ene
printzesa, hitz emanen darotzut begiraturen
dudala non ez duten pobrek hunen beharra.

Etsenplurik ederrenak eta predikurik sarkho-
rrenak aski izan ez balire bezala, San Frantzes
Bisitazioneko Andre seroren fundatzaileak egin
zuen oraino, eskal herrian, Filotea erraten dio-
gun liburua, nahiz hil ondoan ere, arimak lagun-
du salbamenduko bidean. Liburu hura, merezi
duen bezala, laudatua eta ederretsia da lekhu
eta erresuma guzietan: halarik ere predikari zoro
batek errateko hainitz aurkhitu zuen liburu sain-
du hartaz; gehiago dena erre zuen predika-
tokian berean. Gure sailduak yakin zuenean
gauzaren berri; etzen batere lotsatu, eta erran
zuen bere ohiko emetasun maitagarriarekin,
atsegin zukeiela predikari haren bihotza balitz
sustatua Jainkoaren amudio sailduaz, haren
liburua khar biziez errea izanik heldu zen bezala.
Gaizkitu zenean, mundu guzia lehiatu zen haren
ikhusterat. Hauk izan ziren haren azken hitzak:
ikhusten duzue nola naizen, ez dudala deuseren
beharrik Jainkoaren miseriakordia baizik; galde

diozozue enetzat. Fidantzia oso bat dut haren bihotz ontasunean, denborak ditu egin izan diodala ene biziaren sakrifizioa. Hunela hil zen Lyongo hirian Genevako aphezpiku handia. Errespetatua zen populuaz, ohoratua prinzeez, maitatua Aita-sainduz: erran dezakegu oraino estimatua zela bere etsaiez ere, diot heretikoez. Haren bihotza Lyongo Bisitazioneko elizan datza.

San Bernat, abadea

San Bernaten ospea hedatua da mundu guzirat; haren mirakuilluak ezagutuak dire bazter guzietan. Birjina sainduak ez ahal du izan egundaino hura baino zerbitzari leihalagorik eta khar-tsuagorik. Argitzen zuen mundu osoa, eta ohorazten beregainki Frantziako eliza. Erresuma huntan eta Langrezko diozesan zen sorthua. Ethorki handitik zen: familia zaharrenetarik eta ohorez-koenetarik ilkhitzen zen. Bazituen zazpi haurri-de, eta itzul-arazi zituen Jainkoaganat guziak. Berthuteak odolak baino oraino gehiago ohorazten zituen haren buraso prestuak. San Bernaten amak amets egin zuen (izorra zelarik) zakhur ttipi bat zakharkela bere erraietan fangaz hari zena. Ama hura laztua izan zen amets hartaz, eta kontsultatu zuen gizon Jainkotiar bat, zeinak erran batzion mundurat emanen zuen haurrak begiraturen zuela leihalki Jaunaren arthaldea, eta etzela baraturen oihu egitetik elizaren eta fedearen etsaieen kontra. Ama hark berak hazi zituen bere zazpi umeak. Maite zituen guziak;

ordean egin zuen ametsak bazakharken maitatzerat bertzeak baino gehiago umerik gaztena, zeina baitzen gure saildua. San Bernat altxatua izan zen artha handirekin eta haren odolari zagon bezain ederki. Egorri zuten eskoletarat; ikhasi zuen igurikitzeke zen baino hagitz gehiago, eta zer bide etzuen egin berthutean! Hitz guti zuen, astiroki pisatzen zituen gauzak, eta lakhet zuen mundutik urrun bizitzea.

Ezin erran daite zertarainokoan heltzen zen San Bernaten deboziona Andre-dena Mariaren alderat; bere haurtasunean ere, aski zuen entzutea Mariaren izena yartzeko bozkario guzietan. Nahi zutenean gibelatu haurtasunari darraizkon huts xumetarik, aski zen Mariaren aiphamen baxarra: nork izan du egundaino garbitasunarentzat gure sailduak bezanbat amudio? Zenbat asaldura, bizkitartean, etzuen yasan behar izan etsai gaixtoaganik! Haren berthutea behar zen ez erortzeko bathzen zituen behaztopa lerragarrietan. Aldi batez, gerthatu zitzaion landatzea, apher bat, uztekabean bezala, bere begiak emazteki baten bisaiarat, izan zuen hunenbat urriki flakezia hartaz non sarthu baitzen lepho-

raino bereganik hurbil zuen, eta erdi hormatua zen ur batean iraungitzekotzat lohikeriaren sua, bere bizia beraren goztuz.

San Bernat etzen nahi bezain laster hastandu mundu-petik hobeki begiratzekotzat inozentzia. Sarthu izan zen pobreziarik handiena, eta penitentziarik dorphenak galdetzen zituen ordena garratz batean. Hasi zen eskuratzetik, eta ordena hartarat erakhartzetik hogoi eta hamar aitoren seme, eta bere sei anaiak: sei haurridek ardietsi zuten burasoaganik komentuan sartzeko laudamendua. Aitaganik urruntzean hetarik zaharrenak erran zion gazteenari utzten ziotzola bere ontasun guziak; haurride gazteenak iharde-tsi zion: erran nahi da beraz zerua hartzen duzula zuretzat, eta utzten duzula neuretzat mundua. Ez naiz batere antolatzen horrela: anaia gazteen hunek egin zuen haren haurrideek egin zutena. Utzi zuen hark ere mundua. San Bernatek erakharri zuen oraino Jainkoaganat osaba bat, eta aitoren seme bat ospe handitakoa, geroztik aphezpiku izan zena. Gizon gazteek aski zuten entzutea gure saindua ukho egiteko munduari. Agertzen zenekotzat, amek gordetzen zituzten

bere umeak, eta emazteek bere senharrak haren hitz sarkhorren beldurrez.

San Bernat lothu zitzaion fraide saindu bati dagokon bizitzeari ezin erran bezanbat kharrekin. Gogorki zebatzen zituen gorphutzeko sentsu guziak, eta bazaraman penitentziaren dorpheta-suna bidegabe egiterainokoan bere osasunari. Othoitzean eta meditazionean zituen bere gogoak eta atsegina: hetan ikhasi zuen iskritura saindua hedadurarik handienez: berak ere erraten daroku etzuela izan liburu sainduak ikhasteko bertze nausirik baizik haritzak eta oihanak.

San Bernaten famak, eta haren hogoi eta hamar laguneen etsenpluak, erakharri zuten mundutze handi hat komentu bererat; lekhurik ez izanez heldu ziren guzientzat, emendatu behar izan ziren komentuak. Gure saindua ego-rria izan zen bere lagunekin lekhu izigarri bate-tarat, eta etzuen nihon han baino lakhetago. Egin izan zuten mortu hartan, ez nekhe handirik gabe, egoitza xume bat kapera batekin: eman zitzaion komentu berri hari Clairvauxen izena, eta San Bernat izan zen hango abadetzat ezagutua. Alferretan nahi zuen bere burua gorde, Jain-

koak laster ezagut-arazi zuen munduaren argi-
tzeko zadukana. Arima Jainkoaganat itzuli
nahiak heldu ziren, osteka, San Bernaten gober-
nuaren azpian bizitzerat. Aphezpikuek, erregeek
eta printzeek Clairvauxerat zuten lehia kontsei-
lluketarat.

Teszelin, San Bernaten aita, etzen bere
semeak baino gutiago ekharria egiterat bere sal-
bamendua; hura ere sarthu zen hek bezala
komentuan, eta eraman zuen bizitze saindu bat
Clairvauxen. Gure sainduaren arreba batek izan
zuen bere anaia ikhusteko gutizia. Urrun da urri-
kitzeko izan baitzuen bere urhatsez. Haurride
sainduaren Jainkozko solazek ukitu zioten biho-
tza; utzi zuen hark ere mundua, eta sarthu zen
serora. Gauza miragarria! borrokan eta oinhaze-
pean bizi zen gure saindua, eta bethi ezti, bethi
arrai, bethi allegera ikhusten zen. Eri zen hurren
bethi, hagarandua zen haren gorphutz herbala,
halarik ere zenbat obra handi etzuen egiten!
Nork sinhets ehun eta hirur hogoi eta hamar
komentu izan direla hark eraginak! zenbat konzi-
liotan etzen aurkhitu elizaren argi bizi bat beza-
la! zenbatetan etzuen bakea eman handien,

printzeen artean, armada beretan ere! zenbat heresia etzituen suntsi-arazi! Aski zuen agertzea, eta ordu beretik, heretikorik thematuenak garaituak, konfundituak aurkhitzen ziren. Bere ibiltze eta nekhe guzien erdian, ematen zuen, egun guzietan, meza saindua. O! nolakoa etzen Jainkoaren alderako haren kharra lekhu guzietan, eta bereziki aldarean! Gaizkitu zeneko, aphezpikuek, abadeek, fraidek eta ezin erran bezanbat munduk nahi izan zuten ikhusi guzien admirazionea egiten zuen gizon saindu hura. Hil zen hirur hogoi eta hirur urthetan, eta Clairvauxko elizan izan zen ehortzia.

San Dominika

Espainian sorthu zen San Dominika; argitu zituen bere dizipuluekin batean giriztino herri guziak, eta ikharan zaduzkan gure errelijionearen etsaiak. Etxe ohorezko batetarik atheratzen zen; ordean bere prestutasunak oraino ohore gehiago egiten zion, ezen-ez bere odolak. Haren amak egin zuen amets emanen zuela zakhur xume bat mundurat, zakhur hark izanen zuela argi bat zintzurrean suntsi-arazteko zat ilhunbe guziak. Ama hark laster yakin zuen zer erran nahi zuen haren ametsak; ezen agertu zitzaion saindu bat erran zioena haur bat izanen zuela giriztinoak argituko, eta eliza kontsolatuko zituena. Lehenbiziko urthetarik ageri zen zer izanen zen gure saindua ethorkizunerat. Bihotz onetakoak zen: bereganatzen zuen mundua bere arraitasun eta emetasunaz. Bazuen, bere baitarik, berthutearen alderako yaidura dohatsu bat; maitatua zen bere ahaide, eta ezagutzen zuten guziez.

Osaba, eliza gizon batek, eman ziotzon San Dominikari lehenbiziko eskolak. Egorri zuten gero Palentziarat, ordu hartan Espainian zen eskolarik aipatuenerat. Hunenbat ikhasi zuen non aurkhitu baitzen sei urtheen buruko, theologo handienetarik bat; erran dezakegu oraino hobeki ikhasi zuela zerurat daraman bidea. Barurtzen zen azteko zenbeit egunez, pairatzen zituen penitentziarik dorphenak; lurra zuen bere etzantza, eta othoitzean zaramatzan gau gehienak. Ez ahal da izan egundaino nihor hura baino atzarriagorik bere sentsuen gainean. Etzuen hedatzen behin ere begirik emaztekitarat. Ezagun zen haren modestiatik zenbateraino preztzen zuen garbitasuna. Espainiako erresuma herstua izan zen goseteaz. Zer parada eder seinalarazteko San Dominikak pobrentzat zuen urrikalmendua! Etzitzaion aski egiten zuela hei emateaz bere dirua, saldu zituen oraino bere liburuak, eta etxean zituen dirutzeko gauza guziak nahiz hek hobeki sokhorritu. Emazte batek galdegin zion bere laguntza libratzekotzat ume bat gathibutasunetik, gure saindua etzen ahaletan kausitzen; ordean ederrets dezagun haren

bihotz ontasuna. Bera nahi izan zen gathibu yarri ume haren ordaintzat. Hala eginen ere zuen ama hark ez balu hartarik gibelatu.

San Dominikaren karitatea etzen mugarriztzen baxharrik gorphutzeko beharretan, oraino gehiago heltzen zen arimakotarar. Donu eder bat zuen mintzatzeko, eta izpiritu sailduak zara-billan haren mihia: aski zen haren entzutea nahiz predikutan, nahiz solasean Jainkoaganat itzultzeko. Hautsten zituen bihotzik gogorrenak. Eragin zuen lehenbiziko konbersioea izan zen aitoren seme gazte batena. Yaun hark egin zion ukho munduari, eta sarthu zen komentu batean; bere merezimenduek altxatu zuten denboraekin aitoren seme hura Kardinaltasunerat. Gure saildua konsultatua zen, gaztea zelarik, salbamenduko gidari zuhurren eta argituena bezala: behatzen zioten Espainiako orakleari bezala. Etzen lekhu batean egoteko egina; haren yakintasunak eta kharrak hedadura gehiago nahi zuten. Ibilli zen Espainiako probintzietan gaindi predikatzen Jau-naren hitz saildua. Eskuratzen zituen bekhato-reak, eta sunts-arazten zuen heretikoan phozoa-dura ondikozkoa. Elizak etziren aski handi iduki-

tzeko San Dominika entzun nahi zuten mundu osleak, predikatu behar izan zuen plazetan eta landetan. Itsas hegian predikatzen hari zen aldi batez, piratak, edo ureko ohoinak, yabetu ziren hartaz. Idoiztatu zuten hitz minenez eta eho zioten gorphutza makillaz. Zer izan zen gure sainduaren mendekua? Barbaro hekin konbertitzeko hirritsa. Galtzerat zohan bere bizia, artikia izaterat zohan itsasorat ez balitz altxatu haize xirimola bat. Orduan barbaroak beldurtu ziren bere buruentzat; ezagutu zuten Jainkoaren punimendu bat zela aurkhitzen ziren herstura hura. Guziak eman ziren gure sainduaren oinetarat: agindu zuten konbertituko zirela, eta momento heretik edertu zen itsasoa.

San Dominika eramana izan zenean leihorreat, hasi zen egundaino bezala predikatzen hedatu zen Kastillan eta Aragonian barna. Zenbat konbersione etzuen egiten lekhu guzietan! Erakhartzen zituen salbamenduko biderat populuak bezala, printzeak ere. Alfonze Kastillako erregea, San Louisen aitasa, eman zitzaion alde baterat Jainkoari entzun zueneko gure saindua. Alfonze berak egorri zuen Osinako aphezpikua

Frantziako erregegana galdetzerat ezkontzaz haren alaba Ferdinand Espainiako printzearentzat, eta eman zion aphezpiku hari San Dominika laguntzat. Langedok-etik iragatean, ikhusi zuten bihotz minekin heresiaz phozoatua zela probintzia handi eta eder hura. Frantziako erregek laudatu zuen Espainiakoaren galdea, egin zen ezkontza; ordean Jainkoak egorri zioen Frantziako printzesari eritasun labur eta bortitz bat berehala eraman zuena mundu huntarik esposatzeko astirik utzi gabe. Ustekabeko heriotze hark huntaraino zaurthu zituen Osmako aphezpikua- ren eta San Dominikaren bihotzak, non ez baitziren bihurtu Espainiarat, eta hartu baitzuten Erromako bidea galdetzekotzat aita-sainduari Langedok-en predikatzekeo botherea izan zuten aita-sainduaganik galdetzen zutena.

Ala urrikaltzeko baitzen Langedok guzia! Zer desmasia etzuen egiten heresiak alde hetan! sutan eta odoletan emanak ziren bazter guziak. Lurrerat artikiak ziren elizak, ostikatuak gurutzeak, bekhokhia gora agertzen zen gaixtakeria; etzen gehiago predikatzen Jaunaren hitz saindua. Horra zertan zen Langedok-eko probintzia

harat zenean gure saindua; ordean zer gambia-
mendu dohatsu! Azpikoaz gora itzuliak dire
guziak. San Dominika etzen hain laster abiatu
predikatzen non haren hitzeen gantzudurak, eta
haren etsenplu ederrek urmariarazi baitzituzten
heretiko guziak, erreberri-arazi elizak, eta kon-
bertitu baitziren gure erreligione sainduaren etsai
gehienak.

Zenbait heretiko bere buruak yakintsuntzat
eta Jainkotiaztat zaduzkateneke egin zituzten
liburu gaixto batzu blasfemioz betheak Jainkoa
beraren, Andre-dena Mariaren, eta sainduen
kontra zaronsotenak. San Dominikak ihardetsi
zioten hitzez eta iskribuz. Heretikoek etzakiten
zer erran: arrazoinen orde, egin zuten bide gaix-
takeriarat, eta mendekurat, galdegin zioten gure
sainduari bere doktrina iskribuz: eman ziotenean
eskutarat, iskribu hura izan zen irakurria hereti-
ko guzien bilkhuan. Hek guzien artean etzen
bakhar bat agertu deusetan ere kondomnatzen
zuenik iskribu hura. Etzen ordean hon aski: histu
behar zuten bere pasionea: hala egin ere zuten
artikirik iskribu hura surat; ordean zer dire gizo-
nen egin ahal guziak ez direnean Jainkoaren

nahiaren arabera? Suak errespetatu zuen doktrina katolikoa zadukan iskribua. Heretikoek eragin zuten su biziago bat, eta gauza bera gertatu zen, suak etzuen batere ukituko gure sailduaren iskribua. Iduri du halako mirakuillu batek behar zituela sar-arazi bere baitan heretiko guziak. Bizkitartean, o! itsumendua, bakhar bat ikhusi zen konbertitzeko zoriona izan zuena.

Heretiko bekhaiztiek buzti zuten ur gisa batez hekin doktrina zoroa zadukan liburua begiratzekotzat, bere uztez, errea izatetik, eta errantzien San Dominikari suak haren doktrina bezala heiena ere errespetaturen zuela, bazohazela frogantza egiterat. Gure saildua, eta mundutze handi bat bildu izan ziren ikhusteko heretikoek igurikitzen zuten mirakuillua. Artiki zuteneko bere liburua surat, ezagutu behar izan zuten bere ahalkeria handitan, bere extrabagantzia. Suak etzuen guphidetsi heien liburua aitzitik urte izan zuen momento batez: gure sailduak artiki zuen orduan ere bere iskribua surat, eta egon zen khar bizien erdian, oso-oso su guzia iraungitu arteraino. Predikatu zuen Langedok-eko hiri gehienetan, eta egin zuen ezin erran ahal bezan-

bat konbersione. Ordean bakharrak gerthatzen ziren, heretikoen artean, Jainkoagana bihurtzeko zoriona zutenak. Andre-dena Mariak ikhusirik San Dominika bere zerbitzari leihalaren bihotz mina ez konbertitzeaz heretiko gehiago, agertu zitzaion berari, eta erran zion predika zezala arrosarioko deboziona, eta ordu beretik hautsi-ko zirela heretikoen bihotz gogorrak. Gure saindua lehiatu zen obeditzerat: predikatu zuen othoitz salbagarri haren indarra, explikatu zuen nola eta zer xedetarat erran behar den arrosarioa. Laster ezagutu zuen deboziona saindu hari datxeikon berthute miragarria. Kontsolamendua izan zuen ikhusteko, arte laburrik barnean, gutienerat ehun milla bekhatore eta heretiko Jainkoaganat itzuliak. Ordu hura izan zen arrosarioko debozionaeren hastapena. Deboziona hau hanbatenaz da prezagarria zenbatenaz yauts arasten baiditu zerutik benedikzionerik gozoenak. Hargatik ere da den bezain ederretsia, eta pribilio handiz fagoratu.

San Dominika galdegina zen aphezpikutzat asko lekhurarat, eta beregainki Frantzian. Ordean bertzelakoak ziren probidentziaren xede

adoragarriak. Nahi zuen gure sainduak altxa zezan ordena bat egorriko zituena bere dizipuluak Jesu-Kristoren ebanyelioa predikatzerat, eta heretikoen konbertitzerat. Iragan zen Erromarat Tolosako aphezpikuarekin. Aita-sainduak laudatu zuen ordena berri haren altxatzeko xedea, eta manatu zuen gure saindua egiteaz berak, eta iskribuz ezartzeaz ordena hartan begiratzeko ziren erregela salbagarriak. Yakobinak deithzen dire ordena hartako fraideak. Ordena bat da elizari laguntza handiak eman diotzana. Handik athera izan dire sei aita-saindu, berregoi eta bederatzi kardinale, hogoi eta hirur patriarka, hamabortz ehun aphezpiku, sei ehun arxaphezpiku, eta bertze doktor eta saindu hainitz eliza ohoratu dutenak. Frantzia Tolosan egin zen Yakobinen lehenbiziko komentua.

Luzegi laiteke xehatzea San Dominikaren mirakuillu guziak: trika gaiten hetarik zenbeit bakharretan. Erromako andre handi batek entzun nahi izan zuen gure sainduaren predikua, utzirik ume bat eri ohatua. Bihurtu zenean elizatik etxerat, ediren zuen bere haurra hilla. Andre hark ezarri zuen bere fidantzia gure sainduaren

baitan: eramán zuen bere besotan haur hilla haren oinetarat: San Dominikak etzuen egin othoitz labur bat, eta seinatzea baizik, eta harturik haur hura eskutik, eman zion bizirik ama hari. Kardinale batekin solasean zagoela, erraten zaio bertze kardinale baten ilhoba hil zela zamaritik erortzearekin batean; ekhartzen dute berehala gorputz hil hura San Dominikaganat, gure sainduak egiten dio Jainkoari othoitz, eta entzuna da: ilhoba hilla altxatzen da, eta eramaten dio bere osabari biztu delako berria. Hargin bat lehertua eta hilla datza murru baten azpian: San Dominikak egiten du othoitz harentzat, eta bizten da hura ere; ez da beraz miretsteko hanbat obra espantagarri egiten zituen gizon saindu haren hitzek irabazten bazuten hanbat arima Jainkoaganat, eta eramaten bazioten zathi bat bere arropetarik, agertzen zenean munduaren arte-
rat.

Nekheak eta penitentzien dorphetasunak hagarandu zuten San Dominikaren gorputza. Laburra izan zen haren azken eritasuna; ordean osoki edifikagarria. Hautsaren gainean nahi izan zuen artiki azken hatsa. Hil izan zen berrogoi eta

hameka urthetan Bologna daritzon Italiako hiri batean.

San Frantzes

San Frantzesek egin izan du mundu guziaren admirazionea munduko ontasunentzat zuen arbuio miragarriaz. Elizako saindurik handienetarik da. Sorthu zen Asisa deitzen den Italiako hiri batean. Iduri zuen, sorthu zen oren beretik, Jesu-Kristoren bizitze sainduari nahi zitzaiola yarraiki guzietan. Salbatzaillea bezala Frantzes ere heia batean sorthu zen. Tratularia zuen aita, Bernadon zuen izena. Joanesen izena eman zioten bathaioan gure sainduari. Deithu zuten gero rat Frantzes, zeren arte laburrez ikhasi zuen frantzes erdaraz mintzatzen. Etzitzai on eman eskola handirik; abiatu zen gaztedanik tratuan. Bazuen izpiritu; ungi egin zen gorphutzez, eta bihotz on bat zuen. Urrikari zituen beharretan zirenak. Bereganatzen zuen bere arraitasunaz eta kortesiaz mundu guziaren amudioa. Yaidura gehiago zuen atseginentzat ezen-ez diruarentzat; ordean higun zuen libertinkeria. Bertze berthute guzien artean, karitatea zen haren baitan gehienik seinalatzen zena. Ezin eman ziozo-

kon barneak pobre bat utzte a egin gabe amoina. Egia da bada gerthatu zitzaioela behin utzte a pobre bat, utzte kaberek bazen ere, egin gabe karitatea; ordean zer urriki etzuen izan! Abiatu zen berehala eskaille haren ondoan, eta eman ziotzon zituen guziak. Ordutik finki hartu zuen gogoan, agindu ere bazioen Jainkoari eginen zio-tela amoina galdeginen zioten pobre guziei.

Tratuko barriadura etzagokon ungi gure sainduari, bertze zerbeit gehiagotako zadukan probidentziak. Asisako populuak izan zuen eskatima handi bat Perousakoarekin ethortzerainokoa n elkhari lothzerat. Frantzes etzen gutienik agertu bere zuzenen alde. Eman zuen erakutsterat bere animoa; ordean hartua izan zein, eta egon zen urthe baten ingurua Perousako presondegian. Hura izan zen ordua hasi izan baitzen higuntzen mundua. Ilkhi zenean presondegitik, eragin zuen soineko eder bat: yauntsi zuen bezain sarri, bathu zuen aitoren seme pobre bat erromeski emana. Bihotzak gaindi eginik, eman zion bere soineko ederra, eta hartu zituen ordainez, bertzearen arropa txarrak. Ondoko gauean ikhusi zuen ametsetan palazio eder bat arma

distiosez bethea, eta arma hek ziren zigillatuak gurutzearen seinaleaz. Iratzarri zenean, hartu zuen amets hartarik Jainkoak gerla-gizon handi bat egin nahi zuela hartaz. Sinhetste hartan sartu zen erregeren zerbitzuan; ordean Jainkoak egorri zion bigarren amets hat ezagut-arazi zioena bihurtu behar zela Asisarat, eta etzuela behar zerbitzatu hartaz landan bertze nausirik. Franzesek konprenitu zuen ordu hartan, hark egiteko zuen gerla izpirituala zela bere burua, eta bere pasioneak zituela bere etsaiak. Bihurtu zen bere sor-lekhurat: utzi zituen alde baterat tratua eta gerlako ofizioa yarraikitze kotzat baxharrik Jainkoari: egin zituen bere egin ahal guziak, ezagutze kotzat probidentziak zer galdetzen zuen harenganik.

Kamariz zolhan aldi batez, bathu zuen lepradun bat, era haren gaitz itsusiak nahasi zion barne guzia; ordean orhoitu zen Jesu-Kristo zerbitzatzeko, behar zuela lehenik bere burua garaitu; yautsi zen beraz zamaritik, besarkatu zuen eri hura, eta eman ziotzon, zituen diru guziak. Etzen bain laster igan zamarirat non lepradun hura suntsitu baitzen bet-betan. Gerthakari

hunek gehiago baizik etzuen ukitu gure sainduaren bihotza. Yarri zen osoki perfekzionerat daraman bide dohatsuan; etzuen ordutik nihon lakhet, lekhat, othoitzean, eta mundutik urrun bizitzean. Nigar marrasketan zagoela bere bekhatu iraganez orhoitzean, agertu zitzaion Jesu-Kristo gurutzean hil izan zen estatu berean. Ikhusgarri ukigarri hark hunenbat iharrosi zuen Frantzesen bihotza non ezin bara baitzetzakeien bere auhenak eta nigarrak Salbatzaillearen pasionea aiphatzen zuen aldi guzietan. Sustatua aurkhitzen zen khar saindu batez, nahi izan zitzaien yarrailki Jesusen pobreziari eta sofrikariei. Etzuen halako atseginik nola pobreekin eta lepradunekin ibiltzea. Erromako eliza batetarik ilkhitzen zela, bathu zuen pobre multzo bat karitatea galdetzen zutenak: fagoratu zituen bere diru guziez: etzen hartan gelditu: erran ziotzan erdi bulhuzia zen pobre hetarik bati bere soineko ederrak, eta berak yauntsi zituen haren arropa txarrak. Gure sainduak iragan zuen egun hura guzia pobreen baltsan zirtzilla zarioela. Supherra zen berenez, eta ederki agertu nahia. Ordean hain ungi zebatzten zuen urgilleria non iduri baitzuen berekin

ekharri zituela mundurat humiltasuna eta pobreen alderako amudioa.

San Frantzesek, othoitzean zatzala San Damienen elizan, zeina baitzen erori hurrena, entzun zuen boza bat gurutzefikatik heldu zela ziruriena: boza hark erran zion antolatzeaz eliza hura. Gure sailduak uzte izan zuen Jainkoa bera mintzo zitzaioela. Lehiatzen da obeditzerat; badoha bere aitaren etxerat, hartzen-tu zenbeit oihal peza, saltzen ditu hek zaramatzen zamaria-rekin batean, eta badoha San Damieneko elizaren artha zuen aphez batenganat; othoitzten du eliza gizon hura errezibitzeaz bere etxean bera eta elizaren antolatzeko ekhartzen ziotzon diruak. Aphez hark hartu zuen arraiki bere etxerat gure saildua; ordean, diruaz bezanbatean, etzuen nahi izan eskutarat hartu. Frantzesek utzi behar izan zuen diru hura leiho baten gainean: iragan zituen ondoan zenbait egun aphez prestu harekin othoitzean eta penitentzian, ikhus zuen urrundarik bere aita fulian heldu zela hura zen etxerat, gorde zen berehala beldurrez erran bide gehiago bere burasoaren aserradurari. Athera zen laster gordea zagon lekhutik, eta agertu zen

Asisako karriketan guzia desegina, eta bertze bat egina. Iduri zuen burutik arindua; ondotik zarraizkon haurrak burlatzen zirelarik hartaz. Aitak ikhusi zuenean bere semea planta hartan, erakharri zuen bere etxerat, yazarri zion bortitzki, eta eman-arazi zuen lekhu barne batean erhotu izan balitz bezala. Aita hura ilkhi zen bere etxetik, bere egitekoz, zenbeit egunentzat. Amak eman zion, arte hartan, Frantzesi etxetik atheratzeko libertatea: gure sailduak egin zuen berehala bide San Damieneko aphezaganat. Aitak, bihurtu zenean etxerat, aurkhitu zuen bere semea eskas; haren galtzeaz baino min gehiago zuen bere oihal pezeen galtzeaz. Abiatu zen bere semearen ondoan. Frantzes athera zitzaion bera biderat animo saildu batekin, eta erran zion: hobeki naiz Jainkoarena ezen-ez zurea. Hura da bakharra zerbitzatu nahi dudana. Ez duzu zeren kondatu gehiago ene gainean. Nausi handiago baten zerbitzuan edireten naiz. Aitak ihardetsi zion: horletan bihur diezadazu ene dirua, eta zato aphezpikuaren aitzinerat zure zuzenean desmetimendua egiterat. Frantzes gogotik erori zen aitaren nahirat: agertu

zenean aphezpikuaren aitzinerat, utzi gabe aitari mintzatzeko astirik, khendu zituen soinean zituen arropak, eta bihurtu ziotzon bere aitari guziak: etzuen deusere begiratu beretzat baizik gorphutzean zaxharkeien zilizioa, edo ille latzezko athorra. Erran zion bere burasoari: orai areraino deithu izan zaitut ene aita, hemendik aitzinat fidantzia gehiagoekin erranen dut: gure aita zeruetan zarena. Aphezpikuak atsegin hartu zuen Frantzesen egiteko moldeaz: besarkatu zuen amultsuki, eta egorri zuen San Damienerat, emanik bere benedikzioea.

Ordu hartan Frantzesek hogoi eta bortz urthe zituen: hautsi zituen allegeraki munduarekin lotua zadukaten lokharri guziak, eta abiatu zen mortuan barna kantatzen zituelarik bidean Jainkoaren laudorioak. Iragaten zela oihan batetarik, erori zen ohoineen eskutarat. Zehatu zuten dorpheki, artiki ere zuten elhurrez bethea zen zilho baterat. Zer bozkario gure sainduarentzat paira ahal izatea Jesu-Kristoren ohoretan! Haurreko adiskide batek ikhusi zueneko Frantzes Gubbio daritzon lekhu batean, erakharri zuen bere etxerat, eta eman zion tunika txar bat

estalkitzat. Gure sailduak zerbitzatu zituen ospitaleko lepradunak; hobeki garaitzekotzat halako erien zerbitzatzeko barnetik zuen desgustua, besarkatu zuen hetarik gaitzaz maldatuena, eta eri urrikgarri hura sendatu zen ordu hartan berean.

Frantzes orhoitzen zen bethi San Damienen eliza antollatzeko Jainkoak eman zion manuaz. Bihurtu zen Asisarat, egin zuen eske bat obra hari lothzekotzat. Hari zen bera ere lanean har-ginak bezala. Eliza hura allogatua izan zen arte laburrez. Lurrerat zohan hurren Porzionkula zari-tzon Andre-dena Mariako eliza, nola ezin erra-nezko debozione bat baitzuen gure sailduak Jainkoaren amarentzat, hartu zuen eliza haren altxatzeko xedea, eta konplitu zuen bere nahia bere nekhearen eta eske baten bidez. Asisatik lekhoa laurden bat ahal da eliza hartarat. Eliza hartan ardietsi zituen Frantzesek fagore guziz miragarriak: eliza hura da oraino haren ordena-ren ethorkia bezala. Egun batez, meza entzuten hari zela Porzionkulako elizan, entzun zituen ebanyelioko hitz hauk: *ez dezazula izan ez urre-rik, ez zilharrik, ez eta bertze dirurik. Bidean*

zohazenean ere ez dezazula izan ez zakhurrik, ez soineko aldatzekorik, ez oinetakorik, ez eta makillarik.

Frantzesen bihotza sustatua izan zen momento hartan perfekzionerat heltzeko kharrik bizienaz. Ezagutu zuen ebanyelioko hitz hetarik Jainkoak zer galdetzen zuen harenganik. Khendu zituen berehala bere oinetakoak, artiki zuen bere makilla, eta ukho egin zioten bethikotzat urreari eta zilharrari. Etzuen begiratu bere tunika baizik; khendu zuen orobat bere gerriko larruzkoa, eta hartu zuen soka bat ordaintzat. Eman zen gero predikatzen. Nola haren etsenpluak haren hitzeen araberakoak baitziren, egin izan zuen ezin erran bezanbat konbersione. Mundu guziak ederretsten zituen haren prediku gozoak; etzuten baitezpadako edergaillurik, ordean solidoak ziren eta sarkhorrak. Batzuei etzitzaien aski zela haren entzutea: nahi izan zitzaizkon yarraiki hark hartu zuen zeruko bide dohatsuari; ontasun guziak utzirik, yarri ziren haren gobernuaren azpian. Lehenik, izan zituen hirur dizipulu. Heldu izan zenean hamabitarraino, egin nahi izan zuen hek guziez gorphutz bat

bezala. Aphezpikuak eman zaroen guziei predikatzeke botherea, eta bere benedikziona.

San Frantzes ibilli zen bere dizipuluekin, herriz herri, predikatzen ebanyelio saildua. Zenbat konbersione etzuten egin bazter guzietan! Horra nolakoa izan zen gure sailduaren ordenaren hastapena. Ordena bat da elizari hainitz doktor, martira eta saildu eman diotzona. Emendatu zirenean San Frantzesen dizipuluak, Asisako aphezpikuak nahiko zuen yabe zadin zenbeit ontasunez hek guzien haztekozat. Ordean gure sailduak etzuen nahi bertze ontasunik baizik probidentziatik eta giriztinoen karitatetik ethorriren zirenak. Aita-sailduak etzion eman nahi izan San Frantzesi bere ordena altxatzeko laudamendua. Damu hunek etzuen lotsatu haren bihotza; eman zitzaion othoitzari. Aita-sailduak, ondoko gauean egin zuen amets batetarik lekhora, erakharri zuen Frantzes bere aitzinerat: ezagutu zuen haren hitzetarik saildu handi bat zela, besarkatu zuen, eta eman zion gogoan zarabilan ordenaren altxatzeko laudamendua.

Ez ahal da nihor egin dukenik San Frantzesek baino penitentzia gehiago. Bere nekhe guzien

erdian, barurtzen zen egun guzietan. Etzuen yaten hurren behinere deusere errerik. Aurkhitzen bazioen bere yanari gusturik, ematen zion hautsa gagnetik. Dorpheki zakharkeien bere gorphutza: lurra zen harenetzantza harria haren bururdia. Tunika ihetxi bat zuen soinekotzat urtheko denborarik gogorrenetan ere. Etzen hurbiltzen surat negurik bortitzenean. Aski zitzaion haren bihotza berotzen zuen zeruko sua. Predikatzen eta erien zerbitzuan zaramatzen egun osoak, eta gauen parterik hoberena gurutzefikaren, edo sakramendu sainduaren zinetan: eta nola! nigarririk kharatsenetan. Ez bide da izan gizonik San Frantzes baino humillagorik. Zertutik zituen grazia seinalatuen erdian, iduritzen zitzaion hura zela lurraren gainean zen bekhatorerik handiena. Ezin erakharri zuten aphez izaterat, lurreko xixaria baino zerbait gutiagokotzat zadukan bere burua. Zenbat mirakuillu etzuen obratzen! Sendatzen zituen eriak, biz-arazten hillak.

San Frantzes egon zen eri bi urtheen ingurua. Eraman-arazi zuen bere burua Porzionkulako komenturat. Harat zenean, erran zioten bere dizipuluei khen ziozotela bere tunika, eta eman

zezatela lurraren gainean hiltzekotzat ahalik pobrekiena, Jesu-Kristo gurutzean hil izan zen bezala: dizipuluek egin zuten bere nausiaren nahia; ordean goardianoak eskaini ziotzon tunika xahar bat eta soka bat, erraten zioelarik etziotzola beretzat ematen, eta har zetzala obediencia egiteko. Orduan gure sainduak hartu zituen. Ikhusi zituenean bere dizipuluak nigar marrasketan, altxatu zituen eskuak zerurat: gomendatu zioten hertsiki Jainkoaganako amudioa, leihaltasunik handiena begiratzeko ordenako egin bideak; gomendatu zioten bereziki pobrezia, eta izateaz sinhetste itsu bat eliza katolikoan. Gomendatu zioten oraino amudio khartsu bat Birjina sainduaren alderat: gomendio hautarik lekhora, San Frantzesek othoitztu zuen Jainkoa arren benedika zetzan haren ume maite guziak, eta balia zakioten aitatzat. Hil zen berrogoi eta bortz urthetan, hitz hauk ahoan: athera zazu Jauna, ene arima gorphutz huntako presondegitik. Gure sainduaren gorphutza ehortzia izan zen lehenik San Damieneko elizan; eramana izan zen gerorat, zeremoniarik ederrenean Asisarat balthaiatua izan zen elizarat.

San Louis Frantziako Erregea

Louis bederatzigarrena bide da Frantziak izan duen errege handienetarik, eta saildu guti bide da elizak hura baino gehiago ohoratzen duenik. Sorthu zen Poissy daritzon herrian, eta berekin ekharri zituen mundurat Jainkoaren araberrako errege bat izateko behar ziren dispoziore dohatsu guziak. Aurkhitzen ziren haren baitan bertutearen alderako yaidurarik handiena, eta bihotz ontasun bat nihon pare guti zuena. Erregina Blanca zuen ama; printzesa hura bethea zen izpirituz eta errelijionez. Berak nahi izan zuen altxatu bere semea lehenbiziko urtheetan. Ama prestuak irakhatsi zion obeditzen Jainkoari hasi baino lehen gizonei manatzen. Hameka urthe zituen Louisek aitak utzi zioenean, hiltzerakoan, bere khoroa amaren tuturkoaren azpian. Amak sakrarazi zuen errege gaztea Rheimsko hirian; ikharan eta errespestuan zaduzkan Chanpagnako eta Bretaniako konteak, eta hekiekin bat egnik, erresumaren gobernatzeko moldearen kontra altxatu nahi ziren guziak. Printzesa hark begi-

ratu zuen bere zuhurtziaz eta fermutasunaz
Frantzia guzia bakean eta sumetimenduan, gure
errege hel arterainokoan berak gobernatzeko
adinetarat. Deusere etzuen guphidetsi altxatze-
kotzat bere semea Jainko legean: etzitzaion
baratzen erratetik zenbat maite baitzuen ere,
nahiago zuela gal zezan bizia ezen-ez inozentzia.
Amaren hitz salbagarriek sor-arazi zuten haren
bihotzean bekhatuaren alderako higuntzarik
handiena, etsenplu huntarik ageri den bezala.
Galdegin zion, egun batez, bere fidantziaz ohora-
tzen zuen Joinvilla Jaunari zer zuen nahiago, ala
izatea lepratsu, ala bekhatu mortal batez hoben-
dun: bertzeak ihardetsi zion lanhoki nahiago
zituzkela ehun bekhatu mortal kontzientzian
ezen-ez lepra gorphutzean. Solas hau gaitzitu
zitzaion errege gazteari; erran zion, mindurik
Joinvillari: ematen duzu ezagutzerat ez dakizula
zein zorigaitz handia den Jainkoarekin gaitziriz-
koan bizitzea: yakin ahal dezakezu bada bekha-
tu mortal bakhar bat gaitz ikharagarriagoa dela
munduko gaitz guziak elkharren gainzka emanik
baino.

Errege gazteak lakhet zuen ebanyelioko maximo saindutan: heien arabera erregelatzen zuen bere bizitzea. Zebatzen zituen pasioneak sortzen ziren bezain laster. Eman zen ihizirat eta arrantzarat; ordean hamabortz urthetarat heldu zenekotzat, utzi zituen bata eta bertzea. Othoitzean eta mortifikazionean edireten zuen bere atsegin bakharra. Elizan zaduzkan modestiak eta debozione miragarriak erakharri zuten korthe guzia Jainkoagana: haren etsenplu ederrekin ukitzen eta bere baitan sar-arazten zituen libertinak berak.

Louisek arthoski bethetzen zituen errelijioneko eginbideak bezala, errege handi bati dagozkonak ere. Miretsteko da nola ikhasi zuen zakien bezanbat, hain gaztea zelarik. Haren yakintasuna seinalatzen zen iskributan, armadetan eta gauza guzietan. Ederki mintzo zen latinez, bakharrak ziren arren denbora hartan erdara hura zakitenak. Othoitzean eta errelijioneari zaronso-tenetan zaramatzen erresumaren gobernuak utzten ziotzon arte libro guziak. Etzituen oraino hamalau urthe eman zenean bere armadaren buruan suntsi-arazteko zat haren kontra altxatu

zirenak. Sethiatu eta hartu zuen, neguaren bihotzean, hiri bat ezin hartuzkoa zadukatena: etsaiek galdetu behar izan zuten bakea, eta erresuma yarri zen leheneko deskantsuan.

Errege bihurtu zenean Parisat, eman zituen bere debozionearen seinale berriak. Eragin zituen komentuak, hospitaleak eta asko bertze fundazione eder. Maitatua eta estimatua zen dela gerla-gizonez, dela populuaz; bereganatzen zuen mundu guziaren admirazionea. Ala eder baitzen ikhustea hemezortzi urthetako errege bat hain minbera zuena kontzientzia, eta hain prestua korthe distios eta lerragarri baten erdian! Etzen nihoiz bozago eta allegerago nola yustizia bihurtzeko parada zuenean, eta lagun ahal zezakeienean populua. Pobreak zakharskeien beregainki bihotzean; hazten zuen hetarik multzo bat bere palazioan, eta berak zerbitzatzten zituen mahainean. Kharra zatxeikon errelijionearen alderat zuen suari, etzen sinatzen Louis Frantziako erregea; bainan bakharrik Louis de Poissy, zeren lekhu hartan izan zen bathaia-tua.

Louis ezkondu zen Probentzako kontearen alaba berthutezkoarekin. Erregelatu zuen bere palazioa familia guziei etsenplurik sailduena emateko molde edifikagarrian. Khendu zituen bere palaziotik edergaillu sobraniazkoak: utzi zituen orobat dostagaillu inozententak lothzekotzat penitentziarik garratzenari. Hartuak zituen bere othoitzeen mugak. Erraten zuen, egun guzietan, aphezak bezala, ofizio dibinoa. Bere lan guzien erdian, hartzen zituen arteak adoratzekotzat Yaun handia, eta ikhustekotzat hospitaletako pobreak. Debozione berezi bat zuen Andredena Mariaren alderat, etzuen egunik iragaten harenganat altxatu gabe bihotza. Den hobekiena konpuntuak zituen Jainkoarenganako kharra eta erresumako egiteko handiek galdetzen zuten artha zorrotza. Eta noiz ikhusi da Frantzia haren denborako dohatsutasunean eta distiaduran! Lusignan Marchako konte eta printze ezin egona, bat eginik angelesekin, nahi izan zen yabetu Frantziaz harturik armak bere errege zuzen bidezkoaren kontra; ordean alferretan izan ziren haren egin ahal guziak. Louisek bildu zituen berehala zenbeit tropa, eman zen bera heien

buruan, iragan zuen arribera bat ahur bat yendeekin; eman zion gudu armada handi bati, zeina manatua baitzen Angeleterrako erregeaz. Louisen animoa seinalatu zen huntarainokoa non errege etsaia eman behar izan baitzitzaion ihesari, eta iragan baitzituen bi egun yateko astirik hurren hartu gabe, beldurrez eror frantzesen eskutarat. Marchako kontea eta haren esposa eman ziren erregeren oinerarat grazia galdez, eta izan zuten barkhamendua. Errex zen ordu hartan Louisentzat yabetzea Angeleterrak itsasoaz alde huntarik zituen lur eta ontasun guziez; ordean gure errege saildua etzen eman halako eginbidetan: aski iduritu zitzaion khentzea bere erresumatik etsaia, eta utzi zuen bakean.

Gerthatu zen gosete handi bat Frantziako zenbeit probintzietan; orduan ere Louis aita on bezala agertu zen: erakharri zuen bihitze handi bat eskasian ziren lekhutarat, eta hedatu zituen oraino amoina handiak pobretarat. Itsasoaz bertze bazterreko mandurel batzuen erregeak entzun zuenean San Louisek gudu eman nahi zaroela Mahometanei, edo Turkoei, egorri zituen, ixillik, bi gaixtagin Parisat hil-arazteko-

tzat Frantziako erregea: San Louisek yakin zuen zer iragaten zen; har-arazi zituen bi gaixtaginak; ordean etzituen gal-arazi; aitzitik egorri zituen emaitzeekin: horra nola egin zuen bizia berari eraman nahi zioteneen alderat.

Louisen saindutasunaren, zuhurtziaren eta animoaren berria heltzen zen bazter guzietarat. Haren amudioaren eta fagoreen ondoan zabil-tzan lekhurik arrotzenetako printzeak. Laguntza beharrean aurkhitzen zen Konstantinopleko enperadorea. Ala finki hartu baitzen bereganat-zekotzat San Louisen bihotza! Agindu zion Jesu-Kristoren elhorrizko khoroa. Zer bozkario gure sainduarentzat! Lagundu zuen berehala, diruz eta gizonez enperadore hura. Athera zuten erleki preziatu hura bahikundez zadukaten Venizia-rran eskutarik, eta ekharri zuten Frantziarat. Errege athera zitzaion biderat yarraikitzen zitzaizkolarik bere korthea eta aphezak; errezibi-tu zuen errespekturik handienarekin, eta yarraiki zitzaion Pariseraino. Sarthu zenean hiri hartan, hartu zuen bere eskutan erleki balios hura, era-man zuen orthuts, eta buru has, San Antonioen elizatik Andre-dena Mariaren elizaraino, eta

ezar-arazi zuen haren palazioari zatxeikon kape-
ra batean. Yabetu zenean gurutze egiazkoaren
zathi batez, urrarazi zuen kapera hura, eta era-
gin zuen lekhu berean bertze bat, kapera sain-
duaren izena dakharkena. San Louis agertzen
zen, urthe guziez, ortzilare saindu egunean,
kapera hartan bere erregetasuneko magnifizen-
tzia guzian, eta bere khoroa buruan. Atheratzen
zuen gurutzea populuaz adoratua izan zadintzat.
Khentzen zituen gero bere khoroa, zapatak,
gerrikoa eta ezpata, eta ematen zen, ahuspez;
aphur bar egon zenean othoitzean, bazohan
bere belhauneen gainean, trikatzen zelarik hiru-
retan. Hurbildua zenean gurutzerat, nigarra
zarioen begietarik, eta egin zuenean hirugarren
othoitza, ematen zion gurutzeari musu, elizan
ziren guziak nigarretan eman-arazten zituen
humiltasunarekin.

Frantzia bakerik gozoenean eta nahikara
guzien erdian aurkhitzen zen errege Jainkotiar,
eta mundu guziaren admirazionea egiten zuena-
ren manuen azpian; ordean zer bihotz min
etzuen izan ikhustez bere errege saindua haren
biziaz beldur-arazten zuen eritasunean eroria!

Orduan zen seinale zenbat zen bere populaz maitatua. Etzen alde guzietan othoitzik, prozesionerik, beillarik eta barurik baizen. Guziek marrasketan galdetzen zuten haren eguneen iraupena. Jainkoak entzun zituen frantzesen othoitz minak: gaitzak eman zuen amor, eta sendatu zen gure saildua botu egin ondoan altxaturren zuela armada handi hat khentzekotzat Palestinatik Turkoak. Bere familiak, erresumako handiek eta aphezpikuek ezin gibelatu zuten egundaino konplizetik bere botua. Errege sailduak hartu zuen berekin gurutztea, egin zuen solas Aita-sailduarekin, eta utzi zuen erresumako nausitasuna ama, erregina Blancharen eskutan. Lothu zitzaion gero bideari, eta hedatu zen Aigermortes daritzon Langedok-eko porturat. Egon zen lekhu hartan gerlate saildurat behar ziren guziak elkhargana bil arteraino. Milla eta zortzi ehun untzik egin zuten bela maiatzaren azkene-rat. Nahi bezala iragan zuten itsasoa, eta hedatu ziren, zenbeit ilhabereen buruko, Ejiptoako leihorretarat. Frantzesak hasi ziren desegitetik hama-bortz, edo hogoi milla turko, eta yabetu ziren erresuma hartako hiririk bortitzenaz zeina bai-

tzen Damietta. Erregeren animoa seinalatzen zen haren errelijionea bezala gudu eta ordu guzietan. Parisen bezala Damiettan ere ematen ziotzon debozioneari egitekoek utzten ziotzoten arte libro guziak. Bihotzean zakharkeien turkoen salbamendua, bozkario handi bat zuen ikhustiaz hetarik hainitzak heldu zirela haren kanpamen-durat galdetzerat bathaioa.

Zenbatenaz errege saildua lehiatzen baitzen yauts-arazterat bere othoitz khartsuez zeruko benedikzioneak armadaren gainerat, hanbatenaz armada zoro hark urruntzen zituen bereganik, bere bekhatuez benedikzione hek berak. Jainkoak punitu izan zituen gaixtaginak. Frantzesak hurbildu zirenekotzat Masourako hirirat, yanarien eskasiak eta eritasunak erakharri zituen hersturarik urrikgarrienerat; etzen ageri bazter guzietan gorphutz hillik eta eririk baizen. Eritu zen errege bera ere, eramana izan zen etxola baterat, eta han egon zen sendatu arte-raino. Etsaiak baliatu ziren frantzesen herstura handiaz; inguratu izan zituzten alde guzietarik, eta frantzesak nekhez itzur zitezkeien erori gabe turkoen eskutarat. Louis sailduak nahiz guphi-

detsi bere popularen odola, manatu zioen armadari beheititzeaz, onez onean, armak. Damiettan zen erregina entzun zuenean etsaien eskutan zela errege. Zer berri erdiragarri bere esposa hain maite zuenarentzat! Louisek etzuen nihoiz ere erakutsi ordu hartan baino saindutasun eta handitasun gehiago. Etzuen deusere gutitu bere baruretarik eta bertze penitentziarik; leheneko muga beretan zaramatzan bere othoitzak. Zituen guziak, eta bere libertatea bera galdurik ere, dohatsu zadukan bere burua zeren bihurtu zioten bere othoitzetako liburua. Libertatean zen hura bera agertzen zen gathibutasunean ere. Ezin erran bezain urrun heltzen ziren haren pasientzia eta sufertasunik gabeko fermutasuna. Etzuen deusere nahi konpuntzen etzenik haren ohorearekin eta kontzientziarekin. Probidentziaren alderako sumetimendu itsu batean edireten zuen bere kontsolazione guzia. Turkoek herek huntaraino ederretsren zuten S. Louisen bihotz handitasuna, non baitzioten haltoki harturen zutela bere erregetzat hala nahi bazuen berak. Eman hehar izan zuen dirutze handi bat, eta bihurtu etsaieen eskutarat Damiettako hiria

erostekotzat bere libertatea, eta bere armada guziarena.

Errege egon zen lau urtheen ingurua Palestinan erreberitzen eta bortitzten lur sailduko hiriak. Deusere etzuen hala nahiko nola isurtzea bere odola fedearen sustengutan. Seinalatu ziren haren zuhurtzia eta Jainkoaganako amudioa Palestinan egon zen denbora guzian. Bere amaren hil berriak erakharri zuen Frantziarat. Errezibitua izan zen populuaren allegrantzia guzien erdian. Lehiatu zen dohatsu egiterat bere manuko zituen guziak. Jainkoaganatu zituen bere etsenplu sailduz bere korthea eta kondizione guzietako presunak. Garrazki ziren punituak blasfematzaileak, errespektatuak ziren elizak eta lekhu sailduak. Barkhatzen zituen errexki haren beraren alderat egiten ziren gaitskiak; ordean artha zorrotz bat zuen begirarazteko Jainkoaren lege saildua. Errana zen hartaz, nekez kausi zitekeiela Jainkoaren zerbitzari leihala-go bat, eta gizonen nausi hobe bat. Entzuten zuen, egun guziez, meza. Elizan erakutsten zuen debozione khartsuak hautsten zituen bihotzik gogorrenak. Yaun handia altxatzean zarizkon

nigar gozoek ematen zuten ezagutzerat zertarainokoan heltzen zen haren fede bizia.

Gure sailduak doblatu zituen bere penitentziak bihurtuz geroz Frantziarat. Etzuen behinere huts eginen elizaren barurik; etzen hartara gelditzen: barurtzen zen oraino, ogia eta urean, abendo guzian, urtheko ortzilare guzietz, eta Andredena Mariaren bezta bezpera guzietz. Etzuen yaten abendo garizumetan, fruiturik eta arrainik: ogia eta ilharrak ziren egun hetan haren yanari bakharrak. Bere gorphutzean zakharken zilizioa. Ez ahal da komentutako fraide, serorarik hark bezain penitentzia dorpheak egiten duenik. Haren tresorak bethi ziren zabalduak pobreen fagoretan. Bil-arazten zuen larunbat guzietz hetarik berrehunen ingurua: garbitzen ziotzoten oinak, besarkatzen zituen, eta egiten zioten amoina. Hazten zituen, egunoroz, ehun eta hogoi pobre bere palazioan, eta etzuen hartzen othuruntzarik non etzuen hetarik zenbeit bere mahainean. Eragin zituen erresumako hiri gehienetan kaperak, hospitaleak eta komentuak. Turkoek izan zuten barbaria begien lehertzeko hirur ehun aitoren semei. Errege sailduak eragin

zuen, hekin orhoitzapenetan, hospitale bat haztekozat hirur ehun pobre itsu. Iskribuz zituen probintzietako aitoren seme pobreen izenak, bai eta ere Andre ohorezko ezkongaien eta ontasurik etzuteneenak hedatzekotzaz halakotaratz bere laguntzak. Zenbat baitzen ere errege handia, erran dezakegu haren karitatea haren boterea baino urrunago hedatzen zela, Etzagokoa nihori gure sailduari bezain zuzenki popularen aitaren izena, guziz, pobreen aitarena. Bigarren Salomon zen zuzurtziaren partetik; arrotzek berek ezagutzen zuten haren zuzentasuna eta izpirituko zorrotzetasuna: fidantzia oso batekin utzten zituzten haren erranerat bere arteko eskatimak. Erregeek, populuek eta Aita-sainduak behin baino gehiagotan hartu izan zuten bere yuiztat.

Louis sailduak damu min bat hartu zuen entzun zuenean gogorki zirela ekharriak Palestinan ziren giriztinoak, eman zion berriz ere gogori egin behar zituela munduan egin ahalak atheratzekotzatz lur saildua turkoen eskutarik. Ezin nihork hartarik urrundu zuen iduritzen zitzaion Jainkoak galdetzen zuela harenganik

eman zadin eginbide hartan. Hartu zuen gurutzea kroisada predikatzen zuen kardinalearen eskutik: har-arazi zaroen orobat bere hirur semei, eta erresumako Yaun phuruenei. Egin zuen bere testamenta; utzi zuen erresumaren gobernua San Denysko abadearen eta Nesleko kontearen eskutarat; egin zituen bere debozio-neak eta eman zen untzi batean milla eta berrehun eta hirur hogoi eta hamargarren urt-hean. Gure saildua zen untziak erlaxatu behar izan zuen Cagliariako porturat. Entzuna zen Tunisko erregea konbertitu nahia zela; berri horren gainean, hedatu zen errege haren lurretarat. Itsas hegian ziren tunisiarrek, edo turkoek ikhusi zutenean frantzesak Tunisat zohazela, eman zitzaizkon ihesari. Arte hartan Louisek yakin zuen Tunisko erregek burdinetan eman-arazten zituela giriztino guziak, etsitu behar izan zuen beraz haren konbersioneaz. Bero handiak eta ur gaixtoek erakharri zuten eritasun bat bertzeak kutsatzen zituena. Etzen ageri gorphutz hillik baizen. Gaitza abiatu orduko, erregeren seme bat eta kroisada predikatzen zuen kardinalea hil izan ziren. Eritasunak etzuen bertzeak baino

gehiago guphidetsi errege bera. Ezagutu zuen herstuak zirela haren egunak, oi! nolakoak etziren printze Jainkotiar haren sentimenduak ikhustean laster agertzerat zohala bere Salbatzaille maitearen aitzinerat! Erakharri zuen beregana Filipe bere semea eta bere khoroaren primua. Eman ziotzon iskribuz zaduzkan abisu miragarriak. Haren hitzek hedadura handia galdetzen dute; ordean hain dire ederrak eta ukigarriak, non uzte bai dut atseginekin irakurriren direla. Huna beraz nola San Louis mintzatu zitzaion, hiltzerakoan, bere seme errege beharrari.

«Ene seme maitea, zuri emateko dudan lehenbiziko abisua da, maita zazun Jainkoa zure bihotz guziaz, eta zure ahal guziez; ezen-ez gara deusere hura gabe. Ekharriagoa izan behar zare zure burua zathitan ematen utzterat ezen-ez haren mortalki ofentsatzerat. Egortzen badarotzu eritasunik edo bertze atsekaberik, bihurtu beharko diotzotzu eskerrak orhoiturik merezi duzula handiagorik gaitski zerbitzatu, eta ofentsatu duzulakotzat. Egortzen badarotzu zenbeit fagore, bihur diotzotzu, orduan ere, eskerrak humilki, eta begira zaite suferago izatetik. Gaits-

ki handi bat laite baliatzea harenganik heldu diren ontasunez haren beraren ofentsatzeko. Gomendatzen darotzut sakramendutarat maiz hurbiltzeaz, eta berezteaz etsenplu onetako kofesorak zure eginbideak irakhatsiren darozkitzutenak. Dela heiekin, dela zure adiskideekin, har zaite hunelako moldez non erranen baidarotzute librokari eta beldurrik gabe zertan huts egiten duzun. Ibil zaite arthoski ofizio dibinotarat, eta egon zaite elizan modestia eta atenzione handitan, guziz, Mezako sakrifizioaren denboran. Ez bekizu itzur hitz alfer bakhar bat ere Jaunaren etxean. Zure errespektuak ezagutzerat eman behar du Jesu-Kristori ekhartzen diozun amudio bizia. Gomendatzen darotzut debozione handi bat izateaz Andre-dena Mariarentzat, eta bihotz on bat pobreen alderat. Zenbeit khexadune, edo nahikabe dukezunean, baldinetariak zure barneko pena deklaratzekoa bada, zabal diozozu bihotza zure kofesorari, edo zure damua arintzeko gai direken presuna zuhur bati; maita zazu solas egitea, noizetik noizerat, yende prestuekin. Ez dezazula onets nihork erran dezan behinere zure aitzinean hitz laxorik, deshonestik eta karitatea

zaurthzekorik; puni zatzu garrakzi Jainkoa bera, edo sainduak idozta detzaketen solas gaixtoak darabiltzatenak.

»Jainkoak egiten badarotzu tronurat heltzeko grazia, lehia zaite zure bizitze onaz merezitzerat gantzadura sakratua, zeinak egiten baiditu Frantziako erregeak Jaunaren gantzutu: lehia zaite ardietsterat erregetasunari dagozkon berthuteak. Ikhus bedi zure baitan zuzentasun bat deusek ere ezin kordokaturen duena. Ager zaite pobreen alde, aberatsen alde baino hobeki. Emozu zure kontseilluari zure kontrestatzeko libertate guzia yustiziaz dohanean. Bihur azu (ahal bezain laster) bertzerena, edo zure aitzinekoek zuzen kontra beretu dukerena: hala galdezen du zure kontzientziak, bai eta heien arimen deskantsuak. Debeka ezatzu eliza gizonei egin ahal dakizkoten gaitskiak. Maita zatzu komentutan bizi direnak, eta egiozute ungi: yarraik zakizko hortan ene aitaso Filiperi: errege hura ekharriagoa zen gerizatzerat eliza gizoneen hutsak, ezen-ez hekin punitzerat edozein garratztasunekin. Maita eta ohora zazu erregina zure ama: egi-tzu haren erranak: maita zatzu zure anaiak, bilha

zazu heien ona, ez ordean zuzentasunaren gostuz. Elizako benefizioak emateko direnean, zure hoberena izanen da hetarik ez ematea dutenei; edirenen-tutzu gai onak batere gabe direnak: hei behar diotzotzute eman, hanbatik hainbatean, emateko izanen-tutzun elizako benefizioak. Ez izan munduan ahal badakizu printze giriztinoekin gerlarik. Etzaitezelayar gerlateko egin-bidetan ezin bertzez baizik. Lehia zaite guziekin bakean bizitzerat: orhoit zaite gerlateari darraizkon zorigaitz eta bekhatu guziez. Ertxatua bazare gudukatzerat; izan ezazu artha zorrotz bat hobenik ez dutenek paira ez dezaten hobendunengatik. Sethia ezatzu zure zuzena ezagutu nahi ez duteneen gaztelluak eta hiriak; ordean guphidets zatzu, egin ahal bezanbatean, zure etsaiak. Balia zaite zure bothereaz ez uztekoztat gerlarik zure manuko direneen artean. Hauta zatzu karguduntzat, eta yuietzat zuzenki yustizia bihurturen dutenak. Higundu behar duzu gaitskia guzietan, eta beregainki eman diozuten indarraz abusu gaixto bat egiten dutenetan.

»Errespesi zazu Erromako eliza, eta ohora aita-saindua zure aita izpirituala bezala. Ez bedi

ikhus zure erresumani debeka ahal dezakezun gaitskirik; hala nola yuramenturik, zilhegi ez den yokorik, hordikeriarik eta lohikeriarik. Khen ezatzu zure lurretarik heretikoak eta gaixtaginak. Jainkoaganik ditutzu zure eskutan diren bothe-rea eta ontasunak, zor diozu beraz ezagutzarik hedatuena. Beha diozozu ohore handi bati bezala Jainkoaren zerbitzari eta populuaren aita izateari. Ez dezazula egin sobraniozko gatzurik, arin zatzu egin ahalean, zure manukoen kargak. Heldu banaiz zu baino lehen hiltzerat, erran-araz ezazu mesa hainitz, eta mana zazu egin dezaten othoitz ene arimaren fagoretan Frantziako herri eta komentu guzietan; eta har nazazu, zuk ere, zure obra onetan partale.

»Ene seme maitea, ematen darotzut ene benedikzioea aita batek ume maite bati erran ahal diozoken bezala. Othoitzten dut Jesu-Kristo gure Jauna begira zaitzan, eta lagun bere grazia sainduaz. Othoitzten dut oraino ez dezan permiti deusere egin dezazun haren nahiaren arabera baizik, eta izan dadin zutaz ohoratua eta zerbitzatu; grazia bera galdetzen diot ene buruaren-

tzat elkharrekin ikhus, lauda eta ohora dezaguntzat eternitate guzian. Hala biz».

Errege sainduak iskribatu zituen, bere eskuz, eta Paristik athera gabe, abisu eder hauk guziak. Ezagun da beretuak zituela hemen ekharriak diren sentimendu edifikagarriak. Maiz errezibitzen zuen Jaun handia bere eritasunean. Nola emendatuz baitzohakon sukharra, hartu zituen sakramendu guziak hunenbat errelijioneekin, non lekhuko ziren guziak eman baitziren nigar marrasketan. Eman-arazi zuen bere burua, athorra has, hautsaren gainean, utzi gabe gorphutzean zarabillan zilizioa; eta artiki zuen deskan-tsuki azken hatsa berrogoi eta hamabortz urthe eta lau ilhabetetan.

Horra beraz nola hiltzen yustuen heriotzeaz tronuaren gainean izan ahal den erregerik eta saindurik handiena. Charles d'Anjou Siziliako erregeak eta San Louisen anaiak, eraman-arazi zituen Palermarat bere haurridearen gorphutza-ren zenbeit zathi, eta eman-arazi zituen zeremonia handirekin eliza batean. Filipe erregea bihurtu zenean Turkiatik Frantziarat, ekharri zituen berekin bere aita zenaren bihotza eta hezurak.

Ezin estimatuzko tresor preziatu hura errezibitua izan zen gure erresuman, allegrantzia guzien erdian. Ezarri zuten, lehenik Parisko Andre-dena Mariako eliza nausian. Biharamunean Filipe erregeak eraman zuen bere bizkarrean gure sainduaren, eta bere aitaren gorphutza magnifientzia guzietan, San Denysko elizarat.

Santa Katalina

Santa Katalina sorthu zen Alexandriako hirian. Iragan zituen lehenbiziko urtheak liburu saildunen eta profanoen istudioan. Nola bethea baitzen izpirituz, urrun hedatu zuen bere yakin-tasuna. Ordu hartan Maximin zen enperadore, eta bizi zen Alexandrian, Dioklezien bere ama-giharrabaren idurikoa agertu zen; etzuen hark baino herra gutiago erakutsi giriztinoen alderat. Printze krudel hark eman zuen manu bat hitz hauk zakharzkena: gure manuko diren guziei agur eta salutantzia. Gure Jainkoek grazia seinalatu bat egin darokute: zuzen da ager dezagun gure eza-gutza ofrendatuz sakrifizioak heien ohoretan. Adiarazten darotzuegu ethortzeaz guregana sei-nalaraz dezazuentzat, zuek ere, gure Jainkoen alderat izan behar duzuen amudioa. Gertha bale-di bakhar bat manu hau konpli ez lezakena, eta bertze errelijione bat lukeiena, yauts-araz lezake Jainkoen aserradura bere buruaren gainerat, eta garrazki laite punitua. Manu hau eman izan zeneko, guziak lehiatu ziren enperadoreari obe-

ditzerat: etzen ikhusten alde guzietan biktimeen kherik baizen.

Mundua sakrifizioak etsaiari ofrendatzen hari zen denbora hartan berean, Katalinak egiten zituen bere egin ahalak finkatzekotzat giriztinoen fedea. Ematen zaroen begien aitzinerat paganokeriak zirela idolei bihurtzen zitzaizten ohoreak; gizon herbal eta arbuiagarri batzuk zirela Jainko zirelako hek guziak; nihork ezin ekhar ziozokela obedientzia enperadoreari bereganatu gabe zerua eta lurra egin izan dituenaren, eta bakharrik adoratu behar denaren gastigu ikhargarrienak. Horra nola Katalinak bortitzten zituen giriztinoak Jainkoaren lege sainduan. Urrunago heltzen zen haren khar miragarria. Hedatu zen enperadoreaganat, eta galdegin zuen harekin solas egiteko laudamendua. Ordu hura zen enperadorea Jainko faltsoei ofrendatzen hari zen orena. Katalina ungi egina zen eta mintzazaille ederra. Ardietsi zuen errexki enperadorearen aitzinerat agertzeko grazia. Erran zion printze hari bere fede khartsuak ematen zioen fermutasunarekin, itsumendu bat zela hanbat Jainko adoratzea. Arrazoinaren argiak berak aski behar

litezkela ikhusekotzat ez dela Jainko bat baizik, eta ezin izan daitekela gehiago; hura dela gauza guziak kreatu dituen; eta ez balin bazen gai, bere baitarik, hulako egia ageri baten ezagutze-ko, erori behar zela bere erresumako doktoreen erranetar. Bada doktor hek irakhatsi izan zute-
la etzela Jainko bat baizik, eta noizdik geroz munduak adoratzen zuen Jainko bat baino gehi-
ago: erran zion oraino ahalkagarri zela enperado-
re batentzat urrundu behar bidean populua Jain-
ko faltsoen adoratzetik, berak hartarat erakhar-
tzea bere etsenplu gaixtoaz. Othoitztu zuen debekatzeaz halako gaitzki handia, eta bihur-
arazteaz egiazko Jainkoari bakharrik hari zor-
zaion adorazionea. Erran zioen, azkenean, bel-
dur izateko zuela Jainkoak puni zetzan sakrilio hek guziak, eta seinalaraz zezan bere nausitasun guzizkoa hari khendurik khoroa eta bizia bera.

Nolakoa etzen izan enperadorearen espanti-
mendua entzutean emazteki bat hala mintza-
tzen! Asalatu zitzaion barnea, guziarekin etzuen deuseren iduririk egin. Erran zioen Kata-
linari haren erran guziek etzutela gibelatuko hasi zuen sakrifizioa; bainan osatua izanen zen ordu

beretik, entzunen zuela astiroki. Enperadorea etzen hain laster bihurtu bere palaziorat non erakharri baitzuen Katalina bere aitzinerat. Galdetu zion nor zen? eta nola hartu ahal zuen atrebentzia agertzeko halako bilkhu errespektagarri baten erdirat? Gure saindak ihardetsi zion: ene ethorkia aski ezagutua da Alexandrian, Katalina dut izena, eta ene burasoak herri hautako ohorezkoenetatik ziren. Egiaren ezagutzen iragan dut ene denbora guzia, eta zenbatenaz eman bainatzaio istudio hari, hanbatenaz ezagutu dut adoratzan ditutzun Jainko faltsoen funtsgabetsuna. Etzait badela halako ohorerik eta ontasunik nola izatea giriztino eta Jesu-Kristoren espos. Nik munduan gehienik nahi nukeien gauza da ezagut bazinezate zuk, eta zure erresuma guziak Jainko egiazkoa, utzirik zuen paganokeriak. Horra zerk erakharri nauen zuen tenplurat; erdi agintzen nioen ene buruari eroriko zinela zure onetan diren ene erranetarat.

Enperadorea etzen aski argitua berak ihardetstekoa Katalinari: bil-arazi zituen berrogoi eta hamar filosofo osperik handienetakoak: bere

palazioan zaduzkan, eta ekhartzen zioten mundu guziaren yabeak izan balire bezanbat ohore.

Sarthu baino lehen arrazoinamenduan, aingeru bat agertu zitzaion gure saindari erraterat etzadila izi, Jainkoak hunenbat argituren zioela izpiritua non eskurako baitzituen berrogoi eta hamar filosofoak, eta hekiekin batean, asko bertze hura arrazoinatzen entzunen zutenak; erak-harriren zituela batzuk nola bertzeak Jesu-Kristo ezagutzerat, eta helduko zela bera martirioaren khoroarat. Hitz hauk erran orduko, suntsitu zen aingerua. Katalina sartu zen barnetik bortitztua zelarik, ihardukitzeko lekhuak deskantsuzko aire batekin; mundu guziak landatuak zituen begiak haren gainerat, eta bera humiltasun eta modestia guzietan agertu zen. Yar-arazi zuten filosofo hek guzien erdian, eta enperadorearen hurbillean; ezen printze hark etzuen nahi galdu haren hitzetarik bakhar bat ere.

Filosofo hetarik argituena abiatu zen mintzatzzen iguzkiaz haren edertasunaz, haren efetu miragarriez, zioelarik, hark argitzen zuela mundu guzia, hark sor-arazten zituela liliak eta fruituak, bazagokola beraz iguzkiari adoratua

izatea. Maximin enperadoreak garaitua zadukan Katalina: etzuen igurikitzen ihardets ahal ziozokela arrazoinamendu bortitz hari. Ordean laster ezagutu zuen bere enganioa. Katalinaren hitz zuhurrek errexki urmariarazi zituzten filosofo haren erran guziak. Huna nola mintzatu zen: iguzkia da (nahi dut) argizagi guzietan den ederrera; ordean egiazko Jainkoaganik du bere distiadura guzia; hark berak goibelarazten du nahi duenean. Hala egin zuen Salbatzaillea hil zenean gurutzean. Ordu hartan iguzkia goibeldu zen egunaren erdian, eta ilhunbeak yautsi ziren lurraren gainerat. Gure saindaren hitz solidoek erakharri zuten filosofo hura hari amor ematerat. Enperadoreak erran zioten bertze filosofoei ager zitezela, hek ere adoratzten zituzten Jainkoen alde, eta sar zitezela arrazoinamenduan. Ordean etziren hartaratu aithortu behar izan zuten ahalkeriarekin enganioan bizi izan zirela orduraino: erran zuten haltoki etzela Jainko bat baizik, eta ekharriak zirela isurtzerat bere odola egia hunen sustengutan.

Ederrets dezagun graziaren indar miragarria. Nork sekulan erranen zuen emazteki batek

garaituren zituela yakintasunean filosoforik famatuenak! Enperadorea eman zen sumindura handitan: kondemnatu zituen surat haren idolei ukho eginik heldu ziren filosofo zuhurtu berriak. Yasan zuten martirioa animo handirekin handik laster izan zen Katalinaren aldia. Enperadorea aspertu zitzaion gure saindari; eta eman-arazi zuen presondegian. Katalinaren bihotza sustatzen zuen kharra etzen behinere iraungitu. Presondegian berean mintzo zen, libertatean bezala, idolen adoratzeko erhokeriaz itzul-arazi zituen Jainkoaganat enperadorea beraren emaztea, eta armadetako aitzindari bat berrehun soldaduekin batean. Guziek pairatu zuten allegera ki martirioa Jesu-Kristoren ohoretan. Korte bera izan zuen Katalinak. Ebaki zitzaionean burua, errana da odolaren orde, esnea zarioela haren zauriari. Esne hark ematen ahal zuen ezagutzerat biktima sakrifikatuaren inozentzia. Irakurtzen dugu aingeruak yautsi zirela zerutik altxatzerat Santa Katalinaren gorphutz preziatua, eraman zutela Sinaiko mendirat, eta han ehortzi zutela lorifikatzen zutelarik Jainkoa bere laudoriozko kantikoez.

Santa Ursula, eta haren lagunak

Santa Ursularen eta haren neskatxa lagunen bizia iskribatu dutenak ez dire hanbat konpuzten bere hitzetan. Hetarik batzuk aitzinatu-tuzte asko gauza egiaren iduri guti dutenak. Huna sainda hartaz ekhar dezakegun historiorik segurena.

Ursula sorthu zen Angeleterran. Ordu hartan nihon baino gehiago distiatzen zuen gure erreligijoneak aiphaturik heldu garen erresuman. Dianot, Cornouailleko erregea, zen gure saindaren aita, eta Daria ama. Daria zen printzesa bat Jainkoari osoki emana bere senharra bezala. Bi buraso prestuek altxatu zuten Ursula gaztea artharik handienarekin. Haur guti ikhusi ahal da hark baino izpiritu, eta ungirako yaidura gehiago zukeniz. Zen guzia ekharria zen berthuterat. Haren edertasunak etzuen nihon parerik; ez omen zen Europa guzian hura baino printzesa ederragorik. Ursulak sobera zuen izpiritu ez eza-gutzekotzat behere huntako gauzeen ezdeusta-

sunan, eta utzteko bere burua lilluratzerat munduko handitasunez. Haurdanik hartu zituen Jainkozko sentimenduek geroago eta gehiago altxarazten zituzten zeruko alderat haren gogoan eta bihotza. Arbuio saindu batekin, eta agertu orduko hitsten den lore bati bezala behatzen zion berak, bertze haren baitan admiratzen zuten edertasunari. Etzuen batere lakhet printzesei dagozkoten edergaillu eta berregintzetan: ezagutu zuen, haste-hastetik, modestia dela neskatxa giriztino batek guzien gainetik bilhatu eta maitatu behar duen berregintza ohoragarria. Ostikatzen zituen kortheko atsegina, lausengu eta nahikara guziak yarraikitzeke baxharrik bere Salbatzaillari. Etzuen hain laster ezagutu Jesus maitea non ez baitzuen nahi, hartaz landan, bertze esposik. Jainkoak saristatu zituen Ursularen xede laudagarriak; izan-arazi ion bere birjinitatearen begiratzeko atsegina, eta martirioa pairatzeko zoriona.

Maximin tirano kruela eman zen armada handi baten buruan: iragan zuen itsasoa heltzeko Bretaniako alderat, eta yabetu zen inguru hetako bazterrez. Maximinek bazuen aitzindari

bat Konan deitzen zena. Hau zen Bretaniako printze giriztino bat seinalarazi zituen orduko gerlanean bere zehurtzia eta animoa. Egin izan zen Bretaniako duke eta gobernadore: Nantesko hirian egiten zuen bere egoitza. Konan ezkon- gaia zen oraino, bainan ezkontzeko xedea zara- man. Ursularen merezimenduen, berthutearen eta edertasunaren berria hedatu zen haren beharritar: haren gainerat artiki zituen bere begiak. Gaztatu zion Cornouailleko erregeri hea plazer zioen eman ezkontzaz bere alaba printzesa; nola hari yarraiki zitzaizkon armadako aitzindari eta soldadu gehienak ez baitziren orai- no ezkonduak, Konanek gomendatu zioten bere mandatari edo deputatuei erakhartzeaz printze- sarekin batean aurkhi ahal bezanbat neskatxa gazte ezkon zitezentzat haren manuko zirene- kin.

Erregek arraiki hartu zituen Konanen deputa- tuak, ezagutzen zituen haren merezimenduak, onhetsi zuen haren galdea, eta agindu zion bere alaba ezkontzaz. Ezkontza hura atsegin eginga- rria zen dela ohorearen, dela aberatstasuneen partetik, halarik ere aitak nekhez erakharri zuen

bere alaba hartarat. Ursulak bertzerik zuen gogoan eta bihotzean. Munduko handitasun eta ontasun guziak baino gehiago prezatzen zuen bere birjinitatea. Nakhaizki hartu zuen Konanen galdea; etzuen ere deusere ihardetsi. Aitak itsutuki zuen maite bere alaba; ikhususirik ezkontza hura abantaillosa zela haren umearentzat, eta ezin eskura zezakeiela bere hitz onez, baliatu zen buraso bati ohi dagokon nausitasunaz ardietstekotzat galdetzen zuen laudamendua. Guziarekin, etzen iragan alabaren gogoari bor-txa oso bat egiterainokoan. Ursulak erran zion bere aitari etzela batere ekharria ezkontzerat, eta ez lukela nahi, Jesu-Kristoz landan, bertze esposik; ordean aserretan izan ziren haren hitzak, othoitzak eta nigarrak, aita haren gogoa etzen behinere ganbiatzen. Orduan ez gehiago damustatzeagatik bere burasoa, Ursulak eman zuen, obedientzia phuruz, ezkontzeko hitza; ordean fidantzia oso bat zuen Jainkoaren ontasun-ean: eman zen ahuspez haren oinetan, eta egin zion othoitz khartsu hau: badakizu, o! ene nausi dibinoa, zer iragaten den ene bihotzean: lurreko ontasunek eta handitasunek ez naute egundaino

kordokatu. Zure eskutan duzu bothere guzia urmariarazteko gizonen nahiak, eta egin ahal guziak. Entzun ezazu arraiki egiten darotzudan othoitz humila: izan zazu nitaz artha, eta gauza guziak gertha beitez zure loriaren handitzeko, eta ene salbamenduko.

Arte hartan hartu ziren hartzeko ziren arri-muak egortzeko gure printzesa Bretaniarat, eta bil-arazi ziren andre eta neskatxa gazte aurkhi ahal guziak hel-araztekotzat probintzia hartarat. Ursula eta hari yarraikitzen zitzaizkonak bildu ziren Londresat. Untziek bela egin bizkitartean, gure sainda maiz mintzatzen zitzaien bizitze huntako ontasun eta ohoreen ezdeustasunaz, eta hekin iraupen laburraz; etzen baratzen hei erratetik milletan dohatsu zirela Jesu-Kristo zutenak bere espos bakhartzat. Ursulak bazituen behar ziren donu guziak bihotzen irabazteko: izpiritu zorrotz bat, berthute miragarri bat, mintzatzeko nihork ez bezalako bokantza bat, hauk guziak aurkhitzen ziren haren baitan; bazuen, bertze alde, hunenbat emetasun eta modestia non bereganatu baitzituen neskatxa heien estimua eta amudioa. Erakharri zituen guziak nihor

munduan ez maitatzerat Jesu-Kristo baxharra baizik. Untziek egin zuten, azkenean, bela: nahi bezala zituzten itsasoa eta haizea: denbora guti aski izanen zuten Bretaniarat heltzeko.

Ursulak etzuen behinere etsitzen gogoan eta bihotzean zarabillan esparantzaz. Konplitu zen haren nahia: altxatu zen, bet-betan, haize ikharragarri bat. Guziak beldur ziren bere bizientzat; ordean deskantsurik handienezan zatzen gure printzesa: mintzatu zitzaioten hari yarraki zitzaizkon neskatxei haren bozkarioa eta fidantzia erakutsterat ematen zuten hitz hautaz: ene alabak, izan zazue gogoan on: ez dezagun izan deusen ere beldurrik: Jainkoa da guk zerbitzatzeko dugun nausia; badugu espos bat haizea eta itsasoa bere manuko dituen. Egin diozogun gogotik gure bizen sakrifizioa. Haren ezagutzeke zoriona ez dutenak ikhara beitez herioaz orhoitzean; gutaz bezanbatean, eman dezagun gure fidantzia guzia Jaunaren miseriakorian. Gure saindaren animo handiak eta haren hitz kontsolagarriek ezarri zituzten deskantsuan harekin ziren guziak. Hek ziren untziek yo behar izan zuten kosta.

Populu barbaro batzuk ikhusi zituztenean bere etsaieen untzi hek bere leihorretan, bildu zuten berehala armada bat hetaz yabetzekotzat. Nolakoa etzen izan hekin espantimendua edireteaz hanbat emazteki untzi hetan! Ursula erama-na izan zen berekin zituen neskatxa lagunekin. Cologna daritzon Allemaniako hiri baten ingurutarat: han behar zuten pairatu martirioa. Zer etzuen egin gure printzesak gogortzekotzat bere lagunak Jainkoarenganako leihaltasunean! Barbaroen buruzagiak bazakien Ursularen edertasunaren berri: egin zitzaizkon haren laudorioak: erakharri zuen bere aitzinerat; ordean igurikitzen zuen baino fermutasun gehiago aurkhitu zuen haren baitan. Alferretan ziren haren lausenguak eta mehatxuak. Guziez gorago zen Ursularen berthutea. Mintzatu zitzaion buruzagi krudel hari animo saindu batekin. Zintzurak egin ziotzoten neskatxa hei guziei. Zer sarraski! zer barbaria! hunela pairatu zuten martirioa Ursula sainduak eta hari yarraiki zitzaizkon neskatxa guziek. Hekin gorphutzak ehortziak izan ziren Colognako lurretan, erleki preziatu hek eramana izan dire geroztik giriztino herri guzietarat.

Santa Agnesa

Santa Agnesa mundu guzian hain ospe handitan dena Erromarra zen: ohorezkoak eta Jainkotiarrek zituen burasoak: bera ere giriztino bati dagokon bezala izan zen altxatua. Haurdanik yaidura dohatsu bat zakharken errelijionearen alderat, eta estimurik handiena birjinitatearentzat. Etzituen oraino hamar urthe non iduri baitzuen perfekzionean finkatua. Agnesak (San Ambrosio mintzo da) maitatu zuen Jainkoa haren ezagutzen hasi zenekotzat, eta erran daite hasi zela haren ezagutzen sortu zen bezain laster. Etzen batere emana haurreen dostetetarat: Jainkoari zaronso ten gauzetan zuen bere gogo guzia. Edertasun guzizko batek ematen zion distiadura berri bat haren modestiari. Ezin erran bezalakoia zen birjineen erreginari ekhartzen zion amudioa. Eman zion bere buruari, lehenbiziko urthetarik, etzuela bertze esposik izanen Jesu-Kristo bera baizik.

Agnesaren edertasunaren eta merezimen duen fama hedatua zen korteraino. Prokope,

Erromako gobernadorearen semeak, ikhus zue-
neko gure sainda, hartua izan zen harenganako
amudioaz, eta nahi izan zen harekin ezkondu.
Gizon gaztearen aitaren ezagutzan ziren Agne-
saren berthute miragarriak; laudatu zuen ezkon-
tza hura. Prokopek egorri ziotzon Agnesari pre-
sentik baliosenak, eta gaztiatu zion zer zuen
gogoan. Agnesak etzuen deusere hartu egorri
zitzaizkonetarik, aitzitik arbuiatu zituen emaitza
guziak. Etzen hargatik Prokopen amudioa gutitu.
Zer etzuen egin heltzekotzat ezkontza hartarat!
Ikhusi zuenean alferretan zirela othoitzak, agin-
tzak eta mehatxuak, bilhatu eta aurkhitu zuen
parada mintzatzeko, buruz buru, Agnesarekin:
igurikitzen zuen ardietsiren zuela bere hitz onez
eta bere lausengez gure saindaren laudamen-
dua. Urrun da ordean hartarat baitzen. Agnesa
mintzatu zitzaion bere adinaz goragoko kharrae-
kin erraten zioela: tentatzaille gaixtoa, zohazkit
begietarik. Ez duzu zeren eman zure gogoari
ezkonduko zarela Jainkoa bere espostzat hartu
duen neskaxa batekin. Badakit espos dibino
hark birjinen gainerat hedatzen dituela bere
benedikziona berezienak. Prokopek minki hartu

zitzen Agnesaren hitzak. Eman zen desesperamenduan: haren amodioa itzuli zen sumindurarat, beldurtzeko ere zen iragan zadin extrabagantziatarat. Haren aitak, hori ikhusirik, egin zituen bere egin ahal guziak bereganatzekotzat Agnesaren laudamendua. Erakharri zuen bere aitzinerat, eta bihurtu ziotzonean zor zitzaizkon ohoreak, mintzatu zitzaioen hunela: bide dakizu zergatik erakhartzen zaitudan hunat: ene semeak zurekin nahi dut baitezpada ezkondu: ez naiz ni ere egiteko hortarik urrundua. Etzait iduritzen egin ahal dezakezula zuk ere, ezkontza hoberik, eta etzaudukat zure buruaren aski etsaia ez erortzeko, orai beretik, egiten zaitzun galderat.

Agnesa prestuak ihardetsi zuen modeski, ordean fermuki, hainitz ungi ezagutzen zuela egin nahi zioten ohorea; bainan bertze espos bat bazuela infinituki ohoragarriagoa eta botheretsuagoa, egia zela bada espos haren ontasunak etzirela behere huntakoak, etzirela hargarik gutiago prezatzekoak: munduko ontasun guziak baino gehiago ederretsten zuela birjinitatea, eta hau zela haren espos dibinoak harenganik galde-

tzen zuen dothe guzia. Solas hau entzun zuen aitoren seme batek ezaguturik gobernadoreak etzuela konprenitzen nor ahal zen espos dibino hura, erran zion: Jauna neskatxa hau giriztinoa da. Haurdanik bere errelijoneko ametsetan bizi izan da, eta horrek aiphatzen duen espos dibinoa delako hura giriztinoen Jainkoa behar da. Orduan gobernadoreak erran zion Agnesari: ikhusten dut, ene haur maitea, zerk horrela zoratzen duen zure izpiritua. Larga ezazu birjinitateaz egiten duzun estimu handi hori zure errelijonearen pentsu bat bezala: hemendik harat, gure Jainkoak behar ditutzu baxharrik adoratu, heien Maximoen arabera behar duzu erregelatu zure bizitzea. Begira zaite gelditzetik gehiago sure zoramenduan; eskaintzen zaitzu fortuna handi bat, ezkontza ohorezko bat, munduko Andre aberatsenatarik eta lehenatarik izanen zare: zure zoriona hedaturen da zure familia guziaren gainerat. Gero erran zion nausitasunekin: behintzat, ez darozkitzut ematen hogoi eta lau oren baino gehiago zure gogoeten egiteko. Zuri dagotzu orai ikhustea hea nahi zaren izan Erromako

lehenbiziko Andre, ala nahiago duzun galdu bizia laidotsuki eta tormentarik handienetan.

Agnesak ihardetsi zion gobernadoreari: ez dut Jauna, hogoi eta lau orenen beharrik yakiteko zer egin behar dudan. Erraten darotzut orai berean ez dudala izanen, Jesu-Kristoz landan, bertze esposik, ez eta bertze Jainkorik zerua eta lurra egin izan dituen Yaun soberanoa baizik. Miretsia nago nola galdetzen diozun adimendu guti bat dukeien bati adoratzeaz harriz eta zurez eginak diren Jainkoak. Ez duzu zeren uzte izan tormenteen dixiduek lotsaturen nautela. Ene hirritsik handiena da martirioak khoroa dezan ene birjinitatea. Zenbat ere bainaiz gaztea eta herbala, izanen dut, Salbatzaillearen laguntzarekin batean, aski indar pairatzeko eta hiltzeko haren ohoretan. Gobernadorea harritu zen entzutean Agnesaren hitzak. Aurkhitzen zuen haren baitan deusek ere ezin garaituzko amodio bat garbitasunarentzat; eman zion beraz bere buruari tormenten pairatzeaz baino beldurago izanen zela bere birjinitatearen galtzeaz: hargatik mintzatu zitzaion hunela: ikhus ezazu, ene

alaba, zer duzun nahiago, ala Prokope esposatu, ala laidotsuki galdu zure ohorea hil baino lehen.

Agnesak ihardetsi zuen: Jesu-Kristo ene espos zerukoa baitan dut ene fidantzia guzia. Bere eskutan du bothere guzia ene begiratzeko zuen bortxa guzietarik, eta sobera prezatzen du bere esposeen garbitasuna onesteko gal deza- ten haren berarenganik heldu den tresor maite bat, bera denaz geroz haren begiraillea. Zuen Jainko tzar eta arbuiagarriak dire horrelako gaix- takerien asmatzailleak. Yakin ahal dezakezu nik zerbitzatzen dudan garbitasunaren Jainkoak sun- tsiaraziren dituela zure xede gaixto guziak. Gobernadorea yarri zen fulian bezala; eman- arazi zuen gure saina burdinetan. Gathe pisuek, haren hil-arazteko baliatu behar ziren gauza ikharagarriek, eta burreuak bere aitzinean ikhustek bazuten zertaz asalda Agnesaren bihotza; halarik ere etzen batere kantitu, haren bisaia etzen den gutiena ere mudatu: deskantsu guzietan agertzen zen. Mundu guziak urrikal- mendu zuen hartaz, paganoak berak ezin zau- dezken nigar egin gabe. Agnesa zen bakharrik deskantsu eta allegera. Eraman zuten herrestan

bezala Jainko faltsoen tenplurat idolen adorazterat; urrun da ordean hartarat baitzen: deklaratu zuen guzien aitzinean, eta egundaino baino khar gehiagorekin gauza guzien kreatora zela baxharrik hark adoratzeko zuen Jainkoa; ezin nihondik ere altxaraz ziozoten eskua gurutzearren seinalea egiteko baizik.

Gobernadoreak ikhusi zuenean fermutasun miretsteko hura, hartu zuen bertze bide bat tormenta guziak eta herioa bera baino seguragoa zadukana Agnesa prestua eskuratzeko. Eramanarazi zuen lekhu izigarri batetarat, nahi zuen galzezan, bortxaz bederen, bere birjinitatea; ordean agertu zen berehala aingeru bat hartarik begiratu zuena. Prokope zorotua etzen gutienik nahi zioena gure saindaren garbitasunari; ordean erori zen han berean hil gogorra lurrerat. Eginik heldu zen mirakuilluaren berriak hedatu zuen ikhara bazter guzietarat. Semearen heriotzeak zaurthu zuen gobernadorearen bihotza: utzi zituen bere mehatxuak eta krudelitateak, eta othoiztu zuen Agnesa bihur-arazteaz bizia haren umeari. Gure saindak etzituen hain laster altxatua eskuak eta begiak zerurat, non Prokope biztu

izan baitzen, zioelarik oihuz, deuserere etzirela hekin Jainkoak, etzela egiazko Jainkorik bakhar bat baizik, eta hura giriztinoek adoratzan duten zeru, lurren kreatzaillea, zela.

Idolen adoratzailleek sorgintzat zadukaten Agnesa saindua: mundu guzia altxatu zen hari yazartzekotzat; ez ordean Prokoperen aita: buraso hunek nahiago izan zuen utzi bere gobernadorekoa ezen-ez gal-arazi neskatxa Jainkotiar bat haren semeari bizia bihurtu zioena. Oxala haren ondoan izan zen gobernadoreak izan balu urrikalmendu bera! Bainan ez, kondemnatu zuen Agnela miragarria heriotzerat: gehiago dena, errea izaterat bizi bizia. Biztu zuten su handi bat: bainan suak errespestatu zuen biktima dohatsu hura; etzitzaion batere lothu haren gorphutzari, eta erre zituen hura hiltzen ikhusi nahiak harat erakharri zituen gehienak. Idolen alde altxatu zirenak sinhetsteian ziren bethi bazela zerbeit sorginko Agnesa baitan; ezin bertzela obra zezakeiela hanbat gauza espantagarri. Burreu batek izan zuen hari zintzurren egiteko manu barbaroa: orduan gure saindak orhoitztu zuen Jainkoa arren osa zadin, azkenean, hasia zen sakrifizioa.

Errespestutik heldu zen ikhara batek hartu zuen hura hil behar zuen burrua; ordean Agnesak berak erakharri zuen obedientzia egiterat. Erraten zioela: lehia zaite ezdeustatzerat gorphutz bat aski dohakabea izan dena agradagarri izateko gizonen begietan, ene espos dibinoa den arren baxarra ene bihotzak maite duena. Ez izan beldurrik niri emateaz heriotze bat bizitze eternalaren hastapena gerthaturen dena. Altxatu zituen amultsuki begiak zerurat, erraten zuelarik: har ezazu, Jauna, zureganat arima bat hanbat gosta izan zaitzuna, eta hain maite duruna. Burruak sartu zuen ikhara guziarekin ezpata gure saindaren gorphutzean, eta eraman zion bizia.

Horra nola Agnesak merezitu zuen garbitasunaren eta martirioaren khoro loriosoa.

Santa Klara

Santa Klara hanbat berthute zuena, eta eliza hanbat ohoratzen duena, sorthu zen Italian, San Frantzes sortu zen lekhu berean, erran nahi da, Asisako hirian: Jainkotiarrek eta ethorki handikok zituen bere burasoak. Errana da Klaraen amak gomendatu zioela Jainkoari erraietan zakharken haurra, eta entzun zuela boz bat zioena mundurat emanen zuen umeak argituren ziruela bazter guziak. Hortik heldu da eman baitzion haur hari Klaraen izena. Neskatxa saindu hau etzen egon handitu arteraino itzuli gabe Jainkoagana bere bihotza. Bere haurtasunean ere othoitzean zuen bere atsegina. Etzuten behinere edireren bere gelan belhauriko baizik: arrosorioaren eskasean, harri xehe batzuekin kondatzen zituen *Paterrak* eta *Abe Mariak*. Haurdanik Andre-dena Mariarentzat zuen amodioak erakhartzen zuen garbitasuna maitatzerat. Garbitasuna, eta pobreen alderako karitatea ziren beregainki haren baitan gehienik seinalatzen ziren berthuteak.

Jainkoarenganako Klaraen amudioa emendatuz zohan adinarekin. Etzuen batere lakhet munduko atsegin eta berregintzetan. Lehiatzen zen munduari ihes egiterat; ezin bertzez zarabiltzan jaunstura ederrak, ezagun ere zen bere gogoaren bortxa agertzen zela haren sortzeari zagozkon arrimu eta aphainduretan. Ikhusten zen haren baitan edertasun handi bat; ordean denbora berean modestia bat oraino handiagoa. Serora khartsuenek berek hartzen zuten bere etsenplutzar, eta mundutiarrek berthutearen mirailtzat. Bere soin eder guziek etzuten gibela-tzen erabiltzerik bere larruaren gainean zilizio dorphe bat. Zenbat ere haren prestutasunak atsegin egiten baitzion haren ama Jainkotiarrari, buraso zuhur hura ezin zagoken kondemnatu gabe bere alabaren penitentzia sobraniozkoak; eta egiaz, hain gaztea zelarik, etzuen nibon hala lakhet nola othoitzean, barurean eta gainerako mortifikazionetan. Santa Klarak Jainkoari ekhartzen zion amudioa oraino gehiago sutatu zuena zen entzutea zer bizitze miragarri zaraman San Frantzesek Porzionkulako komentu xumean: hedatu zen harengana yakiteko gizon saildu

harenganik zer egin behar zuen bere burua Jainkoari hobeki kontsekratzekotzat.

Santa Klara bozkariatu izan zen San Frantzese-
sen humiltasunaz, emetasunaz eta solasez.
Erran zion bizitze perfetagoko bati lothu nahia
zela, eta galdegin zion zer bide hartu behar zuen
hartarat heltzeko. Gizon sailduak laster ezagutu
zuen Klaraen bihotzeko garbitasuna, eta mun-
duarentzat zuen urruntasuna, finkatu zuen bere
birjinitatea Jainkoari kontsekratzeko eta mun-
duari arras ukho egiteko zaraman xede laudaga-
rrian: erran zioen oraino Jainkoak perfekzione
gora baterat deitzen zuela, eta egin behar
zuela emaztekien alderat hark berak gizonkien
alderat egiten zuena; erran nahi da, sarthu
behar zuela seroratasunean, eta erakharri ber-
tzeak ere zorion bererat. Santa Klara agertu zen,
erramu igande batez, eliza nausian berregintza-
rik handienez. Batbedera lehiatzen zen hartze-
rat erramua jaun aphezpikuaren eskutik; ordean
gure sailda etzen higitu modestiaz bere lekhu-
tik. Jaun aphezpikua bera yautsi zen aldaretik,
eta berak eman zion erramua munduaren gai-
nez eramanen zuen biktorioaren seinaleztat

bezala. Arrats aphalerat, egin zuen bide Porzion-
kulako eliza xumerat. San Frantzes eman zen
bere fraide lagunen buruan, eta errezibitu zuten
Klara prestua, xiriok eskutan, kantatzen zituzte-
larik psalmoak. Gure saina egon zenean aphur
bat othoitzean, motx-arazi zituen bere illeak,
khendu zituen bere soin ederrak, eta hartu zuen
aldarearen oinetan penitentziazko arropa zakhu
iduri bat, zeina amarratu baitzuen sokazko gerri-
ko batez. Gauza hunek haro egin zuen hiri
guzian: damustatuak izan ziren Klaraen ahai-
deak. Egin zituzten bere egin ahalak haren
gogoa itzul-arazteko, nahi ere izan zuten bortxaz
ilki-arazi zen lekhotik; ordean ezin egin zuten:
gure saindak atxikitzen zuen esku batez aldarea,
eta erakuststen zituen bertzeaz, bere ille pika-
tuak, zioelarik etzuela behinere izanen, Jesu-
Kristoz landan bertze esposik, ez eta bertze
yaunsturarik penitentziazko arropa baizik. San
Frantzesek egorri izan zuen bertze komentu
batetarat lekhu seguragoan izatekotzat.

Santa Klara komentu hartan sarthu zenetik
hamabortz egunen buruko, harat zen Agnesa,
haren aizpa gazteagoa arropa bera hartzerat,

eta harekin bizitzerat. Orduan egundaino baino gehiago sumindu ziren ahaideak. Sarthu ziren, bortxaz, komentu hartan, arrapatu zuten Agnesa gaztea Klaraen eskutarik, atherarazi zuten barne hartarik, eta yazarri zioten dorpheki eta ostikoka. Halarik ere aizpa gazte hura etzen baratzen erratetik, nahi zuten guzia eginen zutela, etzela hargatik gutiago izanen serora. Santa Klarak eman behar izan zion bortxari amor: altxatu zuen Jainkoagana bihotza: othoitz labur, ordean khartsu batetarik lekhora, athera zen komentutik bere aizparen ondoan, eta obratu zuen mirakuillu bat bere ahaide guzien begietan. Agnesak galdu zituen bet-betan higitzeko eta eramana izateko ahal guziak. Ezin eragin zioten urhatsik gehiago aitzinat. Ahaidek ezagutu zuten Jainkoaren nahia zabillala ordu hartan: utzi zuten Agnesa Klaraen eskutarat, eta Klarak eraman zuen, loria handitan, berekin komenturat.

Santa Klaraen ama eta aizpetarik gaztena sarthu ziren orobat serora komentu berean. Gure sainda izan zen berezia serora guzien buruzagitzat. Ezin bertzez, eta obedientzia phuruz hartu zuen ematen zioten kargua. Nausitasunak

etzuen batere itsutu: bera zen guzietarik humile-
na, mortifikatuena eta khartsuena: berak zerbi-
tzatzen zituen serorak mahainean eta eritasune-
tan. Erran izan dugu gehienik haren baitan sei-
nalatzen zen berthutea karitatea ahal zela. Hil
zitzaionean aita, aurkhitu zen ontasun handien
buruan; etzuen ordean hetarik deusere aldaratu
beretzat, ez eta komentukotzat. Hedatu zituen
guziak pobretarat. Munduko ohorez eta ontasu-
nez egiten zuen arbuioa miragarria zen; ordean
hark zaraman bizitze dorphea etzen gutiago
ederretstekoa. Ordenako erregelek serora guzie-
tarik galdetzen zituzten eginbideez bertze alde,
hala nola oinetakorik ez erabiltzea, egun guzietan
barurtzea, behinere ez mintzatzea, &c. Santa
Klarak egiten zituen penitentzia oraino gogorra-
goak. Erabiltzen zuen zilizio latz bat larruaren
gainean; ogia eta urean zaramatzen garizuma
guziak, etzuen ere ogirik yaten, ez urik edaten
azte-lehenetan, azte-azkenetan eta ortziraletan.
Ala khartsuak baitziren Santa Klaraen othoitzak!
Zer nigar gozo etzuen egiten Jaunaren aitzinean!
eta nolakoa etzen Andre-dena Mariari ekhartzen
zion amudioa!

Penitentzia handiek gutitu zuten, azkenean, Santa Klaraen osasuna, ez ordean batere Jainko-arenganako haren amodio bizia. Ezin zagoke-nean gehiago oinen gainean, eraman arazten zuen bere burua sakramendu sainduaren aitzinerat; eta haren gorphutza herbaldu zenean lan bortizik ezin egin ahal zezakeien bezala, baliatzen zen bere eskuez aldarekotzat: iruten zuen korporalen edo kalitz azpikoen egiteko behar zen haria. Zenbat maite baitzuen ere pobrezia, ez zitzaion iduritzen deusere ahal zitekela aski ederrik elizentzat. Sethiatua izan zen Asisako hiria, eta hiri hartako murruei zatxeikon Santa Klarako komentua. Etsaiak iganak ziren murrugainerat. Zer bihotz min gure saindarentzat! Ederrets detzagun haren fede handia, eta Jaunaren miseri-kordian zuen fidantzia miragarria: eraman-arazi zuen bere burua komentuko atherat eskuan zadukala Sakramendu Saindua; eman zen, ahuspez, bere alaba guziekin Jesu-Kristoren aitzinean, eta erran zion Salbatzailleari: Jauna, zure zerbitzari urri-alkarriek zutan dute bere esparantza guzia, zu zare hekin laguntza bakharra. Ez bide ditutzu utziko erortzerat zure erreli-

jione saindua ezagutzen ez duten etsaieen esku-
tarat. Entzun zen ordu hartan berean boza bat
zibario saindutik heldu zena, eta zioena: ene
alaba, ez dezazula izan deusen ere beldurrik. Ni
izanen nauzue zuen begiraille, ez zaitzue gaitski-
rik eginen. Hitz hauk erran zireneko, etsaiak yau-
tsi ziren, ez nahi bezain laster, murru gainetarik,
eta altxatu zuten sethioa.

Aita-saindu batek bihurtzean Frantziatik Erro-
marat, nahi izan zuen ikhusi Santa Klara. Aurkhi-
tu zuen Biatiko Saindua harturik heldu zela. Gure
saindak galdegin zion bere benedikzioea; haren
hitzek eta nigarrek ematen zuten erakutsterat
munduan zen bekhatorerik handienarentzat
zadukala bere burua. Aita-sainduak eman zion
bere benedikzioea, eta erran zuen, harenganik
urruntzean, mundua galtzerat zohala elizak zuen
saindu handienetarik bat. Santa Klarak egin
zuen, hiltzerakoan, testamenta, eta zen San
Frantzesena bezalakoa: utzi ziotzoten bere sero-
ra lagun guziei, ez munduko ontasunak zeinei
ukho egina baitzen, bainan pobrezia perfetena-
ren izpiritua. Kofesora mintzo zitzaion aldi batez
pasienziari darraizkon ondore dohatsuez, gure

saindak ihardetsi zion: ene aita, deusek ere ez du ene barnea lotsatzen, ez gaitzak, ez eritasunak, ez eta munduko lazzeria batek ere: zorion hau badut Jainkoari kontsekratu nai zaionetik huna. Oi! ene aita kofesora, ala gozo baida Jesu-Kristoren ohoretan pairatzea! Guti iraun zuen haren hagoniak. Hil zen hirur hogoi urthetan: eramane zituen hetarik berrogoi eta bia seroratasunean. Izan zen ehortzia Asisako hirian, haren ohoretan eragin zen, eta haren izena dakharken eliza batean.

Santa Theresa

Erran dezakegu Santa Theresaz bere mendearen eta giriztino herri guzien admirazionea egin izan duela. Avila deithua den Espainiako hiri batean sorthu zen, ethorki ohorezkoarik atheratzen zen; ordean odolaren nobleziak baino pres-tutasunak eta berthuteak oraino gehiago bista-tzen zituen haren burasoak. Bazituzten hirur alaba, eta Theresa zen guzietarik gaztena. Nola ezagutu baitzioten haren adinari zagokon baino izpirituko atzartasun gehiago, altxatu eta eskola-tu zuten artha berezi batekin. Alaba gazte haren baitan ikhusten zuten Birjina sainduaren alderako debozione guzizkoa ahal zen buraso yainko-tiar hei egiten zioten atseginik handiena.

Aitak lakhet zuen salbamenduari daronsaten liburutan; irakur-arazten zuen, egun oroz, bere familia guzia bildurik, sainduen zenbeit bititze. Etzen aski Theresarentzat irakurtzen entzutea; maite zuen oraino berak irakurtzea bere adineko anaia batekin. Liburu hetako historio edifikagarriek bozten zuten guzia; etzen haren loriaren

parerik ikhusten zuenean badirela asko neskatxa gazte bere odola Jesu-Kristoren ohoretan eman izan dutenak. Hulako etsenplu ukhigarriek huntaraino sustatzen zituzten bi haurride gazte hekin bihotzak, non ilkhi izan baitziren, ixil-ixila, etxetik Turkoen herrirat heltzeko martirioaren bilha. Batak eta bertzeak zazpi urthe zituzten ordu hartan. Osaba batek bathu zituen, bidean zohazela, eta bihur-arazi zituen aitagana. Martirioaz etsitu zutenean, gogoari eman zioten hermitauek bezalako bizia eraman behar zutela: egin ere zituzten, haritz hostoz, bi egoitza xume othoitz egiterat ibiltzen ziren baratze batean.

Oxala bethi iraun balute liburu onek sor-arazi zituzten haste dohatsuek! Bainan ez; liburu gaixtoek laster gaitskirat itzuli zuten Theresa gaztearen bihotza. Galdu zuen ama hamabi urthetan; eta abiatu zen, ordutik, liburu profanoen irakurtzen. Suntsitu ziren, emeki-emeki, haren sentimendu laudagarriak, eta bihurtu zen munduko alderat. Ikhasi zuen liburu ondikozko hetan nola behar zen hartu munduaz onhetsia eta maitatua izateko. Hamalau urthetara zenean, egin zituen adiskidetasunak neskatxa bere ahaide batekin,

zeina baitzen presuna mundutiar, haizatu bat, eta horra zerk eman zuen arima galtzeko hirris-kurik handiengan. Ahantziak ziren aitzinagoko xede on guziak; eta oraino barnago sartzerat zohan munduko arinkerietan, baldin aitak ez balu ezagutu alaba baitan egin zen uztebako ganbiamendua. Buraso zuhurak egorri zuen berehala seroren komentu baterat.

Theresak, iragan zitueneko zortzi egun komentu hartan, egin zen osoki bertze bat. Erakutsten zuen munduaren alderako higuntzarik handiena, eta bere ergelkeriez urrikirik minena. Lothu zitzaion egundainoko khar berarekin zeruko bide dohatsuari. Sinhetstean zen Andre-dena Mariari zioela zor bere ganbiantza salbagarria. Ama hil zitzaioneko, eman zen ahuspez Birjina sainduaren imayinaren oinetan, eta othoitztu zuen haren ama maitetzat baliatzeaz. Etzakien oraino zertarako zen, ala zen ezkonduko, ala zen seroratuko. Duda hortan zatzala, erori zen eritasun handi batean, eta aitak erakharri zuen bereganat haren lasterrago sendarazteko xedez. Amor eman zuenean gaitzak, burasoak egorri zuen bere alaba hiriz kanpoan bizi zen aizpa

baten etxera. Theresak nahi izan zuen ikhusi bere bidean zuen osaba bat, zeinak bere bizia bakhartasunean baitzaraman. Ahaide saildu haren solhasek ezagut-arazi zioten deus gutik egin zuela ez baitzuen bere arima sekulako galdu. Eman zion zinki bere buruari serora egin behar zela, garaiturik seroratasunari datxeikon bizitze nekhatuak, eta osasunaren herbaltasunak haren baitan sor-arazten zituzten arrazoinamendu guziak. Ala ungi gostarik, eta asko nigar gogo isuririk ardietsi baitzuen bere aitaren laudamendua!

Aita baitarik ilkhi zen ordu beretik, Theresak ezagutu zion bere buruari uzkurtasun ezin erranezko bat serora sartzeko; ordean garaitu zuen etsaia haren berarenganik zuen gudu horran sarthu zen animo guzizko batekin Avilako Karmneliten komentuan, zeinetan baitzuen adiskide maite bat. Hogoï urthe zituen ordu hartan. Sero-ra arropa hartu bezain sarri, haren bihotza izan zen sustatua Jainkoaren alderako amudiorik bizienaz. Ordutik, etzen batere herabe berthuterik gorenen pratikatzerat, etzuen bertze gogorik, baizik nondik, eta nola beheratuko eta mortifika-

tuko zen. Haren atseginik handiena komentuko eginbiderik aphalenen eta arbuigarrienen bethetzean zatzan. Zilizioa, burdinezko gerrikoa, izifrina, egunorozko barurak, hauk guziak deus guti zitzaizkon arima miragarri hari. Nola osasuna xumetakoa baitzen, mortifikazione hek guziek hagarandu zuten haren gorphutz herbala. Eritu zen munduak haren biziarentzat beldur izateraino; halarik ere, egin zuen bere profesioneke botua guziek ederretsten zuten animo eta khar sainduenekin. Komentu hartako erregelek etzuten debekatzen handik, edozein ordutan ilkhitzetik, horra zergatik aitik egorri zuen alaba serortu berria bere aizpa baitarat har zetzantzat behar zituen erremedioak.

Nolakoak etziren Jainkoak Theresaren gainerrat hedatzen zituen grazia hautetsiak! Huntaraino zaraman urrun kontenplazioneke dohaina, non nekhez aurkhitzen baitzuen arimen gidari aski argiturik haren dispozizione miragarrien ezagutzeko. Ordean bazen haren baitan gauza bat barnea deskantsatzen zioena, eta hura zen bere burua ikhustea ekharria Jainkoa geroago eta gehiago maitatzerat, eta guzien gainetik han

yarraikitzerat. Gaitza etzitzaion gutitzen; aitzitik emendatuz zohakon. Oinhaze bortitzek ezarri zuten azken hersturan. Etsitu bezala zuten haren biziaz; eta aitak erakharri zuen bere etxerat: hirur urthe iragan ziren osoki sendatua izan zen arteraino. Hartu zuen San Josef bere arartekotzat. Uste zuen saildu haren laguntzak athera zuela bere eritasun handitik; erraten ere bazuen etzuela behinere San Josef en arartekotasunerat bide egin entzuna izan gabe bere othoitzean. Ez da miretsteko ezagutzaz bethea balin bazen saildu haren alderat, eta egin bazituen egin ahalak harenganako amudioa eta fidantzia baster guzietarat hedatzeko.

Eritasunetik altxatzea kaltiar izan zen There-sarentzat. Nola baitzen hainitz ohoratua eta estimatua, ibilli zitzaion mundu oste bat bere atsegina erakutsterat; mundutiarren solas funtsik gabekoek iraungitu zuten, aphur bat, Jainkoaganako zuen kharra. Etzuen leheneko gozotasun bera edireten bere othoitzetan. Sinhets-arazion bere buruari hipokrisia bat zela berthutedu-naren itxura egitea, haizatua zenean gogo guzia. Beldurtzeko izanen zen athera zadin salbamen-

duko bidetik, aitaren heriotzeak ez balu sar-arazi bere komentuan; harat zeneko, eman zitzaion, zen guzia, meditazionari. Auhendatu zuen bihotzeko kharatstasun handienarekin munduaren alderat izanik heldu zen yaidura sobraniaskoa, eta kontsekratu zitzaion bere Salbatzaille maiteari egundaino baino khar gehiagorekin. Ezin erran bezain barna sartzen zen kontenplazionean, eta perfekzionerat heltzeko hirritsarik handiengan zaraman bere bizia: etzirurien leheneko hura. Etzuen batere axolarik munduaren errankisunez; orobat zitzaion hartaz ungi edo gaitski mintza zitezten. Bere ohiko kofesora lehuaren gainean ez gerthatuz, yo behar izan zuen kofesor arrotzetarat, zeinek hartu baitzituzten ilusio-netzat eta ametsentzat zerutik zituen argi eta inspirazione miragarriak; gibelatu ere zuten mahain saindutik. Zer bihotz min Theresarentzat! ematen da berehala, ahuspez, gurutzefika baten oinetan, eta isurtzen-tu nigarrrik kharatse-nak. Bere Jesus maitea errezibitzeko egin zitzaion debeku hark zaurthu zuen haren bihotza damurik minenaz. Etzuen nihon deskantsurik; ordean entzun zuen, ordu hartan berean, barne-

tikako boza kontsolagarri bat erran zioena: «ni naiz mintzo zaitzuna, eta ez naiz behinere zureganik hastanduko». Hitz hauk entzutearekin, suntsitu ziren haren damu hiragarri, eta atseka-be min guziak. Isuri zituen, ordainez, allegran-tziazko nigar gozoenak, eta haren bihotza aurkhitzen zen bozkarioz gaindi egina.

Theresak ifernuaren gainean egin zuen meditazione batek hunenbat asaldatu zuen haren barnea, non uste baitzuen etzuela aski egiten salbatzeko, eta behar zuela altxatu komentu berri bat, edo hobeki erratzeko, ordena berri bat, zeinetan eraman beharko baitzen bizitze bat oraino mortifikatuagoa. Yarri zen egiabide hartan; erosi zuen etxe bat bere xederat heltzeko. Zenbat errateko etzen izan haren kontra! Zer burla, zer iroi etzuen behar izan yasan alde guzietarik! Ordean deusek ere etzituen kantitzen haren pasientzia eta animo saindua. Sarthu zen bertze hirurekin eraginik heldu zen komenkuan, zeinetan hartzen baidu bere ethorkia Karmeliten ordena hertsu eta errespektagarriak. Gaitz da erratea zenbat zuen lakhet sofrikarietan. Edo

nahi zuen pairatu, edo nahi zuen galdu bizia: *aut pati, aut mori*.

Theresak gomendatu zioten serora lagunei, bere azken eritasunean, izateaz sustatuak Jainkoarenganako amudiorik khartsuenaz; Birjina saildua bere ama bezala maitatzeaz; eta ezagutzeaz San Josef bere ordenako patrointzat. Etzuen nahi Karmelita batek yakin zezan deuserre bertzerik, lekhat salbamenduko bidea. Huna zer iskribatu zion Sevillako Karmeliten buruzagiari: «etzait behar ahantzi ederretsiko nuela aita Marianaren guthuna ez balu zenbeit Latinezko hitz hartan ezarri. Othoitzten dut Jainkoa begira detzan, ene alabak Latina yakiteko gutiziatik. Nahiago dut izan ditezen yakintasunik batere gabe ezen-ez erhetorika istudiatuak». Hil izan zen sentimendurik ederrenetan 1582ean. Kofesorak galdetu zion, hiltzerakoan, arekin izanen zuenez haren gorputza izan zadin Avilako komenturat eramana. Huna gure saildak zer ihardetsi zuen: «ez dut deuserre neurerik, agian emanen darotet lur guti bat lekhu huntan berkan». Haren gorputza izan zen Avilarat altxatua, ehortzia izan zenetik hirur urtheen buruan.

Haren oin bat Erroman datza orthuts dabilzan Karmeseen komentuan. Guk ere badugu (esker Espainiako erregina bati) haren erritarik bat Frantzian, Parisko Karmeliteen elizan.